# GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO ARABAKO II. FORU PLANA

2006-2008

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

**ARGITARATZAILEA:**
Arabako Foru Aldundia
Lehendakaritza Saila

**INPRIMAKETA:**
Arabako Foru Aldundiaren Inprimategia
San Miguel de Acha, 7
01010 Vitoria-Gasteiz

**LEGE GORDAILUA:**
VI-459/06

# AURKEZPENA

## Oinarria eta helburua

Foru plan hau gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan jarduteko markoa izango da Araban 2006-2008 bitartean, eta, aurrekoa bezala, nazioarteko, Europako, Estatuko, autonomi erkidegoetako eta toki mailako botere publikoek emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko xedearekin bultzatzen dituzten politika eta planen multzoan sartuta dago. Hain zuzen ere multzoaren batasuna bermatu eta Arabako plana lehendik dagoen markoan ahalik ondoen txertatzeko asmoz, proposaturiko jarduketen edukiak eta izaera Arabako Foru Aldundiaren eskumen-eremuan biltzen dira eta, horrenbestez, eragina dute bai Aldundian bertan bai haren menpean edo hari lotuta diharduten erakunde autonomo eta ente publikoetan.

Lehenengo foru planari, 1999koari, jarraipena ematea da oraingo planaren helburu nagusia. Azken urteotan lehenbiziko plan horrek bultzada handia eman du aukera-berdintasunerantz; aurrerapauso nabarmen eta handiak egin dira arlo guztietan, eta horiek erakusten dute berdintasunaren inguruko ideiak sustraitzen hasita daudela, eta egiazko berdintasuna lortzeko behar diren bitarteko guztiak indartu beharraz jabetzen ari direla erakunde publikoak eta herritar guztiak. Aurrerapenak aurrerapen, oraindik errealitate hauskorra da, finkatze prozesu luze eta etengabea behar duena. Onura baino ezin dio ekarri bigarren jarduketa plan bat lagun izatea; bigarren plan honek markoa eta euskarria emango dizkio gizartearen eta erakundeen ahaleginari.

Halaxe sustatzen da, bada, berdintasun politiketan inplikaziorik zuzenena duten gizarte eragileek parte hartuta, haren edukiek, printzipioek eta espirituak etorkizun hurbilean jarraitu beharreko norabidea markatuko dutelakoan. Ikuspegi horretatik, bultzatzaileen asmoa da bigarren plan hau lagungarria izan dadila berdintasuna eta genero-ikuspegia pixkanaka gure pentsaeran eta jokaeran integratzeko, alegia, gure kulturaren eta gure errealitatearen berezko osagai izateko, ez bakarrik politika publikoen markoan, baizik eta gure eguneroko bizitzan ere bai. Horrela sortuko da berdintasunaren benetako kultura.

## Aplikatu beharreko printzipio orokorrak

**Gizonen eta Emakumeen arteko Aukera Berdintasunerako Arabako II. Foru Planaren printzipio gidariak Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritakoak izango dira:**

✓ **Tratu-berdintasunaren printzipioa.** Honen arabera arbuiatu egin behar dira pertsonen sexuan oinarritutako bereizkeria guztiak, hala zuzenekoak nola zeharkakoak, horretarako erabiltzen den bidea edozein izanda ere.

✓ **Aukera-berdintasunaren printzipioa.** Honen arabera, botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek aukera berdinak izan ditzaten eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, gizarte eskubideak, kultura eskubideak eta arauetan onar daitezkeen gainerako eskubide oinarrizkoak erabili ahal izateko, boterea, baliabide ekonomikoak eta gizarte baliabideak kontrolatu eta eskuratzeko aukera ere barne dela. Aukera-berdintasuna ez da baliabideak eta onurak eskuratzeko abiapuntuko edo hasierako aukera berberak izatea soilik; haiek eraginkortasunez erabili eta kontrolatzeko baldintzak ere berdinak izan behar dira.

✓ **Aniztasuna errespetatzeko printzipioa.** Honen arabera, botere publikoek behar diren baliabideak jarri behar dituzte sexuen arteko berdintasuneranzko prozesuan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak errespetatu daitezen, biologiari, bizi-baldintzei, xedeei eta beharrizanei dagokienez, bai eta emakumeen eta gizonen kolektiboen barruko aniztasuna eta desberdintasunak ere.

✓ **Genero-ikuspegiaren integrazioaren printzipioa.** Honen arabera, botere publikoek genero-ikuspegia aintzat hartu behar dute euren politika eta ekintza orotan: desberdintasunak ezabatu eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea ezarri behar dute helburu orokortzat haietan guztietan. Genero-ikuspegiaren integrazioa da emakumeen egoera, baldintza, xede eta beharrizan desberdinak sistematikoki kontuan hartzea, aldeak ezabatzeko helburu eta jarduketa berariazkoak antolatuz, eta berdintasuna sustatzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta plangintzaren, burutzapenaren nahiz ebaluazioaren fase guztietan.

✓ **Ekintza positiboaren printzipioa.** Honen arabera, botere publikoek, emakumeen eta gizonen arteko benetako eta egiazko berdintasuna lortze aldera, aldi baterako neurri berariazkoak hartu behar dituzte bizitzaren esparru guztietan sexua dela-eta azaltzen diren egitatezko desberdintasunak deuseztatu edo murrizteko.

✓ **Sexuaren araberako rol eta estereotipoak ezabatzeko printzipioak.** Honen arabera, botere publikoek sexuari lotutako gizarte rolen eta estereotipoen deuseztapena sustatu behar dute, horietan oinarritzen baita emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna. Izan ere, emakumeei etxeko ardurak esleitzen zaizkie eta gizonei, berriz, ardura publikoak, oso balorazio eta aintzatespen ekonomiko eta sozial desberdinak dituztenak.

✓ **Ordezkaritza orekatuaren printzipioa.** Honen arabera, botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumezkoek eta gizonezkoek partaidetza orekatua izan dezaten erabakiak hartzen diren erakunde guztietan. Kide anitzeko administrazio-organoetan ordezkaritza orekatua dagoela onartzen da baldin eta bi sexuek %50eko ordezkaritza badute.

✓ **Lankidetzaren eta koordinazioaren printzipioa.** Honen arabera, botere publikoek elkarrekin lankidetzan jardun behar dute eta euren jarduketak koordinatu behar dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan. Horrela haien esku-hartzeak eraginkorragoak izango dira eta baliabideak zentzuz erabiliko dira.

## Metodologia eta edukia

Lehenengoak ezarritako ildoei jarraituz, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Foru Planak erantzuna eman nahi die, bere edukian, aurrekoaren aplikazio-aldian zehar antzemandako beharrizanei. Bestalde, bere egituran, jarduketak aurrez diagnostikoa eginda antolatu beharrari eta jarduketa bakoitzaren ebaluazioan erabiliko diren adierazleak jarduketarekin batera definitu beharrari erantzun nahi die.

**Hala, bada, ereduak bi zati ditu, ondo bereiziak: egoeraren diagnostikoa alde batetik, eta, bestetik, helburuen, neurrien eta jarduketen definizioa, bai eta jarraipenerako eta ebaluaziorako adierazleena ere.**

Diagnostikoa hainbat adierazle oinarri hartuta egiten da. Adierazleen definizioa Europako gomendioei lotu zaie, halakorik izan denean. Hortxe ditugu, adibidez, bizitza pertsonala, familiako ardurak eta lanbidea bateratzearen arloan Europako erakundeek emandako gomendioak. Gomendiorik ezean, aldiz, adierazleak sortu dira berariaz, erreferentziako agirietatik esanguratsuen iritzi zaien elementuak oinarritzat hartuta. Erreferentziako agiriok, zalantzarik gabe, berdintasun gaietan bide-erakusle izan dira. Hona zeintzuk diren:

✓ Emakumeen mundu-konferentzietako orientazioak; batez ere Pekinen 1995ean egindakoa hartu da kontuan.

✓ Emakumeek boterean parte hartzeari buruzko konferentzietako orientazioak. Horrelako konferentziak egin dira Atenasen (1992), Erroman (1996), Delhin (1997) eta Parisen (1999).

- ✓ EBko Oinarrizko Eskubideen Gutuna, Nizan aldarrikatua 2000ko abenduaren 7an. Honakoa ezartzen du 23. artikuluan: ***"emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatu egingo da eremu guztietan, baita enpleguaren, lanaren eta ordainsarien eremuan ere. Berdintasun printzipioa ez da oztopo izango gutxien ordezkatuta dagoen sexuaren aldeko onura zehatzak dakartzaten neurriak mantendu edo hartzeko".***

- ✓ Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunari buruzko Europako Esparru-Estrategia (2001-2005). Lehentasuneko helburu hauek ezartzen ditu: bizitza ekonomikoan berdintasuna sustatzea, enplegu aukerak hobetzea eta garapen iraunkorra lortzea.

- ✓ Europako Konstituzioa ezartzeko Itunean gai honi buruz jaso diren aurreikuspenak, batez ere III-210. eta III-214. artikuluetan daudenak. III-210. artikuluak dioenez, Batasunak estatu kideen ekintza lagundu eta osatu egin behar du hainbat arlotan, besteak beste emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan, lan-merkatuko aukerei eta laneko tratuari dagokienez. Bestalde, III-214. artikuluak ondokoa dio: ***"Estatu kide guztiek bermatu egin behar dute emakumezko langileek eta gizonezkoek ordainsari bera jasoko dutela lan bera edo balio bereko lana egiteagatik", eta, halaber, "lanean emakumeen eta gizonen arteko egiazko eta erabateko berdintasuna bermatuta egon dadin, tratu-berdintasunaren printzipioak ez dio inongo estatu kideri eragotziko onura zehatzak eskaintzea lanbide-jarduera jakin batean gutxien ordezkatuta dagoen sexuari, edota neurriak hartzea lanbidean eragozpenik aurkitu ez dezaten, edo, aurkituz gero, horiek nolabait konpentsatu daitezen."***

- ✓ Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana, autonomi erkidegoan indarrean dagoena.

- ✓ Indarra duen arau-esparrua: bereziki, Langileen Familiako Bizitza eta Lana bateratzeko azaroaren 5eko 39/1999 Legea, eta duela gutxi onetsi den otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren aldekoa.

- ✓ Beste autonomi erkidego batzuetan eremu honetan indarra duten planen edukia eta egitura.

Osagarri gisa, hautatutako adierazleen kuantifikaziorako, honako iturri hauetara jo da:

- ✓ Foru Aldundiaren beraren dokumentazioa, batik bat 1. arloari dagokionez (Genero-ikuspegia politika publikoetan sartzea).

- ✓ Eustat - Euskal Estatistika Erakundearen estatistikak.

- ✓ Eusko Jaurlaritzako sailek lanaren, hezkuntzaren edo kulturaren alorretan garatutako programen gainean emandako datuak.

- ✓ Erreferentziako eta oinarrizko txosten batzuetan dagoen informazioa. Hauek dira txostenak: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurtasun Sailak egina; Arabako gizarte beharrizanen mapa, Foru Aldundiarena; "Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn", Arartekoaren txostena; eta, derrigorrez, Emakundek argitaratutako txosten monografikoak, besteak beste "EAEn emakumeek egiten duten prostituzioari buruzko txostena", "EAEko unibertsitate sistema publikoaren barruko genero-desberdintasunak" edo "Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako tokiko politikak".

- ✓ Estatuko estatistikak: Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioarenak, INEMenak eta Barne Ministerioarenak.

Informazio iturri horiek erabiliz egin den diagnostikoak, duen xehetasun mailagatik, berekin ekar ditzake desberdintasunak murrizteko helburuak, helburuak betetzeko garatu beharreko neurriak eta halako neurriei lotutako jarduketak; haren espezifikotasun eta zehaztasun mailak, zalantzarik gabe, lagungarriak dira zorrotzago ebaluatu ahal izateko helburu bakoitza zenbateraino bete den; ebaluazio horretarako ere emaitzen adierazleak aurreikusten dira.

## Egitura

Agiriak duen diseinuari esker, aldi berean ikus daitezke Planeko neurri bakoitzari lotutako informazio guztiak, diagnostikorako adierazleetatik hasi eta ebaluazio-adierazleetaraino, ondoko sei jarduketa-arloetan banaturik:

1. arloa.- Genero-ikuspegia politika publikoetan sartzea

2. arloa.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bizitza ekonomikoan

3. arloa.- Bizitza pertsonala, familiako ardurak eta lana bateratzea

4. arloa.- Berdintasun zibil, politiko eta soziala sustatzea. Emakumeen aurkako indarkeria bereziki kontuan hartzea

5. arloa.- Bizi-kalitatea, ongizatea eta osasuna sustatzea

6. arloa.- Gizarte estereotipoen haustura sustatzea

Arlo bakoitzak bere diagnostikoa du, gehienetan hainbat elementuk osatua. Diagnostiko bakoitzerako helburu bat edo gehiago adierazteko ahalegina egin da; helburuei ere neurri bat edo gehiago esleitu zaie, jarduketa batean edo gehiagotan banatuta. Jarduketa bakoitzerako, edo zenbaitetan neurri bakoitzerako, egin beharreko jarraipen eta ebaluazio ekintzak definitu dira. Horrela, bada, Plana 17 helburuz, 60 neurriz, 257 jarduketaz eta jarraipenerako 485 adierazlez osatuta dago.

## Ezarpena

Planak berak aurreikusten du, 1. arloan, bere aplikazioaren euskarri izango den egitura:

- ✓ Lehendakaritza Sailean Berdintasunerako Aholkularitza eratuko da eta sail guztiei ezarritako eginkizunen jarraipen etengabearen ardura emango zaio. Gainera, Plana ezarri eta garatzeko prozesuan zehar, motibazioa eta aholkuak eman behar dizkie sailetako arduradun politikoei eta profesionalei.

- ✓ Zuzendaritza bakoitzean arduradunak izendatuko dira, Planean ezarritako neurriak eta jarduketak zuzendaritzaren jarduketa-ildo nagusiei egokitzeko ardura izango duten pertsonak alegia. Gainera, kasuan kasuko zuzendaritzaren eskumeneko eremuan berdintasun gaiei buruz bultzatzen eta garatzen diren jarduketak koordinatu, jarraitu eta ebaluatzeko ardura izango dute.

- ✓ Zuzendaritza bakoitzean bilera teknikoak antolatuko dira, aurreko lerroaldean aipatutako profesionalen eskutik, langile guztiek zuzenean parte har dezaten Planean ezarritako jarduketen aplikazio eraginkorrean.

- ✓ Sailen arteko Batzordea eratuko da. Arestian aipatutako teknikariek, Berdintasunerako Aholkularitzaren ordezkariek eta Lehendakaritza Sailaren ordezkari politikoek osatuko dute. Batzorde horrek ekintzen koordinazioa bermatu behar du eta multzoari batasuna eman behar dio.

Aurreikuspen horien osagarri, funtsezko finantza-neurri bat hartuko da, alegia, bermatu egingo da Foru Aldundiaren aurrekontuetan bereiz islatuko direla Planean berdintasun printzipioa aplikatzeko aurreikusitako jarduketak. Zuzendaritza bakoitzak konpromiso hau hartu beharko du: urtero berariazko aurrekontu partidak esleituko dizkiela Planaren barruan ekitaldi horretan garatu beharreko jarduketei. Hala eta guztiz ere, berariazko aurrekontu partidak kasu guztietan ezartzea zaila denez –sarritan, burutu beharreko ekintzaren izaeraren ondorioz sortzen dira zailtasunak-, jarduketa hau burutzeko tresna honakoa izango da: plan honi erantsitako agiri bat egitea, “memoria ekonomikoa” izenekoa, urterokoa. Agiri horretan jasoko dira kredituak, Planean erreferentziako urterako ezarritako neurri eta jarduketak burutzea xede dutenak.

# EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDITASUNERAKO II. FORU PLANA (2006-2008). EDUKIAK

## 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

✓ Plana ezagutzera ematea
✓ Foru Administrazioari bere berdintasun-politika eraginkortasunez aplikatzeko behar dituen baliabideak ematea.
✓ Berdintasun printzipioa erakundearen bizitzaren eremu guztietan sar dadin sustatzea.
✓ Beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan aritzea berdintasuna sustatzen..

## 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

✓ Emakumeen eta gizonen egoera ekonomikoa ezagutzea eta enplegu-politikek bi sexuetan duten eragin desberdina ebaluatzea.
✓ Emakumeak lan-merkatuan errazago sartzeko bideak ezartzea.
✓ Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak berdindu daitezen sustatzea.

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

✓ Zeregin desberdinetan ematen den denborari dagokionez generoaren arabera dauden aldeak txikitzea.
✓ Lan-baldintzak hobetzea, emakumezko eta gizonezko langileek lanpostuko eta familiako ardurak bateratu ahal ditzaten.
✓ Bizitza pertsonala, familiako ardurak eta lana bateratzen laguntzen duten gizarte zerbitzu komunitarioen estaldura hobetzea.

## 4. ARLOA.- BERDINTASUN ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEREZIKI KONTUAN HARTZEA

✓ Erabaki politiko eta sozioekonomikoak hartzen diren tokietan emakumeek eta gizonek neurri berean parte har dezaten sustatzea.
✓ Emakumeek berdintasun printzipioa garatzeko gizarte eragile gisa parte har dezaten laguntzea.
✓ Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea eta biktimei arreta ematea.

## 5. ARLOA.- BIZI-KALITATEA, ONGIZATEA ETA OSASUNA SUSTATZEA

✓ Ahultasun bereziko egoeran aurkitzen diren emakumeei gizarteratzen laguntzea.

## 6. ARLOA.- GIZARTE ESTEREOTIPOEN HAUSTURA SUSTATZEA

✓ Berdintasunaren aldeko ekimenak garatzea kulturaren eta aisiaren arloetan.
✓ Emakumeek eta gizonek, neskatoek eta mutikoek kiroletan parte-hartze orekatua izan dezaten sustatzea.
✓ Komunikabideetan, emakumeen irudi estereotipatua pixkanaka deuseztatuko duten hizkuntzaren eta irudien erabilera sustatzea.

| 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA | | | |
|---|---|---|---|
| **EGOERAREN DIAGNOSTIKOA** | | | |
| **DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK** | **DATUEN ITURRIA** | **DATUAK** | **INFORMAZIOAREN BALORAZIOA** |
| **Zentzuzkoa denez, 1. arloko 1. helburuak, hau da, Plan hau ezagutzera emateak, ez du inolako diagnostikorik, beraren edukiaren izaeragatik.** | | | |

# 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **1. HELBURUA**<br>**Plana ezagutzera ematea** | **1.1. neurria**<br>Planean ezarritako jarduketen berri ematea Arabako Foru Aldundiko, erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako langileei. | **1.1.1. jarduketa**<br>Profesionalen talde bat izendatzea, Planaren berri eman diezaieten AFAko, erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako langileei. | ▪ AFAko langileei Planaren berri emateko ardura duten profesionalen taldea sortu dela egiaztatzea. |
| | | **1.1.2. jarduketa**<br>Bilera antolatzea, Foru Aldundiko sail eta zuzendaritzetako arduradunei Plana aurkezteko. Planaren ekintza-ildo nagusiak azalduko zaizkie, eta horien inguruan hasieran sor daitezkeen zalantzak argituko dira. | ▪ Egiaztatu egingo da bilerak antolatu direla Plana honako hauei aurkezteko:<br>- Aldundiko sail eta zuzendaritzetako arduradunei.<br>- jarduketa-politikak diseinatzeko ardura duten teknikariei.<br>- jarduketen ardura duten profesionalei. |
| | | **1.1.3. jarduketa**<br>Bilerak antolatzea, Aldundiko zuzendaritzetan jarduketa-politikak diseinatzeko ardura duten teknikariei eta aurreikusitako jarduketen aplikazioaren arduradunei Plana aurkezteko. Planaren ekintza-ildo nagusiak azalduko zaizkie eta horien inguruan hasieran sor daitezkeen zalantzak argituko. Aholku berezia eta zehatzagoa behar izanez gero, Berdintasunerako Aholkularitzara jotzeko esango zaie, Planeko 1. arlo honetako 2.1.1. jarduketan batzorde hori sortzea aurreikusten baita. | |
| | | **1.1.4. jarduketa**<br>Intranetaren bidez, Foru Aldundiko langile guztiei jakinaraztea II. Plana onetsi dela eta badagoela talde bat Planaren berri zabaltzeko ardura duena. Talde hori nortzuek osatzen duten eta zein eginkizun dituzten jakinaraziko da, eta Planaren alderdi nagusiei buruz informazioa eskatu ahal zaiela ohartaraziko da. | ▪ Egiaztatu egingo da intranetaren bidez Foru Aldundiko langile guztiei jakinarazi zaiela II. Planaren onespena, eta behar duten informazioa bidali zaiela Planaren alderdi nagusiei buruz taldeari informazioa eskatu ahal izateko. |
| | **1.2. neurria**<br>Planean aurreikusitako jarduketen berri zabaltzea haien garapenean esku hartu eta lagundu dezaketen administrazio publiko guztietan. | **1.2.1. jarduketa**<br>Jendaurreko bilera antolatzea, Foru Aldundiko Lehendakaritza Saileko arduradun politikoek II. Plana aurkez diezaieten Arabako udaletan, gainerako toki erakundeetan eta Eusko Jaurlaritzan berdintasun politiken arloan diharduten arduradun politikoei eta teknikariei, batez ere Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundean diharduteneі. Planaren kopia bana emango zaie. | ▪ Egiaztatu egingo da bilera egin dela II. Plana honako hauei aurkezteko:<br>- Toki erakundeei<br>- Eusko Jaurlaritzari, bereziki Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeari. |
| | | **1.2.2. jarduketa**<br>Sektorekako bilera teknikoetan, Foru Aldundiko sailak, Eusko Jaurlaritzako sail homologoak eta, halakorik denean, Arabako Lurralde Historikoko udaletako sail homologoak biltzea, euren eskumeneko eremuetan egingo diren jarduketak zehatz-mehatz aurkezteko. Beraiei ere Planaren kopia bana emango zaie. Bilera horietan Planaren berri zabaltzeko ardura duten profesionalen taldeko kideren bat egongo da. | ▪ Sektorekako bilera teknikoen kopurua, Planeko jarduketa garrantzitsuak honako hauei zehaztasunez aurkezteko:<br>- Foru Aldundiko sailei.<br>- Eusko Jaurlaritzako sailei.<br>- Toki erakundeei, hala behar denean. |

| 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA | | | |
|---|---|---|---|
| **EGOERAREN DIAGNOSTIKOA** | | | |
| **DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK** | **DATUEN ITURRIA** | **DATUAK** | **INFORMAZIOAREN BALORAZIOA** |
| **Zentzuzkoa denez, 1. arloko 1. helburuak, hau da, Plan hau ezagutzera emateak, ez du inolako diagnostikorik, beraren edukiaren izaeragatik.** | | | |

## 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **1. HELBURUA**<br>**Plana ezagutzera ematea** | **1.3. neurria**<br><br>Planean aurreikusitako jarduketen berri ematea haren garapenarekin zerikusia duten gizarte eragileei. | **1.3.1. jarduketa**<br><br>Bilera antolatzea, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Batzordean (aurreko planaren markoan sortutako batzordea) parte hartzen zuten elkarteei Plana aurkezteko eta horren kopia bana emateko. | ▪ Egiaztatu egingo da bilera egin dela Batzordean parte hartzen zuten elkarteei Plana aurkezteko. |
| | | **1.3.2. jarduketa**<br><br>Plana banatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea helburu duten erakundeei, batez ere elkarteei. | ▪ lanaren zenbat kopia banatu zaizkien honakoei:<br>- Berdintasunaren sustapenean diharduten elkarteei.<br>- Beste elkarte batzuei.<br>- Lurralde Historikoan diharduten alderdi politiko, sindikatu eta ugazaba-elkarteei.<br>- Plantillan 50 langile baino gehiago dituzten enpresei.<br>- Banatzaileei. |
| | | **1.3.3. jarduketa**<br><br>Plana banatzea Araban diren alderdi politiko guztiei, bai eta Lurralde Historikoan diharduten sindikatu eta ugazaba-elkarteei ere. | |
| | | **1.3.4. jarduketa**<br><br>Plantillan 50 langile baino gehiago dituzten enpresei Planaren edukietako batzuk banatzea, eragin diezaieketenak hain zuzen. | |
| | **1.4. neurria**<br><br>Berdintasun Planaren berri ematea herritar guztiei. | **1.4.1. jarduketa**<br><br>Hasierako zabalkunde kanpaina antolatzea ikus-entzunezko eta idatzizko komunikabideetan, jendeak Berdintasun Plan berria dagoela jakin dezan. | ▪ Zenbat ekintza, eta zer-nolakoak, antolatu diren Berdintasun Plan berria dagoela aditzera emateko.<br>▪ Hedabideak. |
| | | **1.4.2. jarduketa**<br><br>Ikus-entzunezko eta idatzizko komunikabideetan, Planaren indarraldian zehar, zabalkunde kanpainak antolatzea, Planaren alderdi partzialak nabarmenduz, hau da, haren jarduketa-arlo desberdinei dagozkien alderdiak. | ▪ Zein jarduketa-arlori buruz zabaldu den informazioa.<br>▪ Zenbat ekintza, eta zer-nolakoak, antolatu diren Berdintasun Plan berria dagoela aditzera emateko.<br>▪ Hedabideak. |
| | | **1.4.3. jarduketa**<br><br>Plana Arabako Foru Aldundiaren web orrian sartu eta agiriaren testu osoa edonoren eskura jartzea. | ▪ Egiaztatu egin behar da Planaren testu osoa web orrian jarri dela. |

| 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA | | | |
|---|---|---|---|
| **EGOERAREN DIAGNOSTIKOA** | | | |
| **DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK** | **DATUEN ITURRIA** | **DATUAK** | **INFORMAZIOAREN BALORAZIOA** |
| ▪ Azken ekitaldian zenbat zuzendaritzak eduki duten euren aurrekontuetan Plana burutzeko partida edo diru-kopururen bat. | AFA | Azken ekitaldian zuzendaritza batek ere ez du eduki bere aurrekontuan Plana burutzeko partida edo diru-kopururik. | ▪ Foru Aldundiko sailek ez dituzte Planeko jarduketak euren aurrekontuetan sartu. Arrazoi nagusia hauxe da: ez dago formula bideragarririk I. Planean aurreikusitako ekintzek sail bakoitzaren politiketan duten pisu espezifikoa zehazteko. Ekintza hauek ahalegin ekonomikoa eskatzen dute. Hortaz, beharrezkoa da aurrekontuak genero-ikuspegitik aztertzea, eta Planeko jarduketei sail bakoitzean esleitu beharreko diru-kopurua aurreikusi eta agerrarazi ahal izateko formulak prestatu behar dira. Era horretara, halaber, sailek AFAn zeharkakotasuna ezartzeko hartu duten konpromisoa sendotu egingo da. |

## 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **2. HELBURUA**<br>**Foru Administrazioari bere berdintasun-politika eraginkortasunez aplikatzeko behar dituen baliabideak ematea** | **2.1. neurria**<br>Planean ezarritako jarduketen garapena sustatzeko behar den administrazio-egitura sortzea. | **2.1.1. jarduketa**<br>Lehendakaritza Sailean Berdintasunerako Aholkularitza eratzea, sail guztiei ezarritako eginkizunen jarraipen etengabearen ardura izan dezan. Gainera, Plana ezarri eta garatzeko prozesuan zehar, motibazioa eta aholkuak eman behar dizkie sailetako arduradun politikoei eta profesionalei. | ▪ Berdintasunerako Aholkularitza sortu dela egiaztatzea.<br>▪ Aholkularitzako langileen eginkizunak.<br>▪ Profesionalek egindako jarduerak. |
| | | **2.1.2. jarduketa**<br>Zuzendaritza bakoitzean arduradunak izendatzea, Planean ezarritako neurriak eta jarduketak zuzendaritzaren jarduketa-ildo nagusiei egokitzeko ardura izango duten pertsonak alegia. Gainera, kasuan kasuko zuzendaritzaren eskumeneko eremuan berdintasun gaiei buruz bultzatzen eta garatzen diren jarduketak koordinatu, jarraitu eta ebaluatzeko ardura izango dute. Horretarako, haien eginkizunak garbi definitu beharko dira eta zeregin horretan eman beharreko denbora zehaztu. | ▪ Sail bakoitzean zenbat pertsonak duten Plana garatzeko ardura.<br>▪ Definitutako eginkizunak.<br>▪ Lanaldiaren barruan zenbat denbora ematen zaion Planaren garapenari. |
| | | **2.1.3. jarduketa**<br>Zuzendaritza bakoitzean bilera teknikoak antolatzea, aurreko jarduketan aipatutako profesionalen eskutik, langile guztiek zuzenean parte har dezaten Planean ezarritako jarduketen aplikazio eraginkorrean. | ▪ Sail bakoitzak zenbat bilera antolatu dituen.<br>▪ Bileretan aztertu diren gaiak.<br>▪ Bileren ondoriozko ekintzak. |
| | | **2.1.4. jarduketa**<br>Sailen arteko Batzordea eratzea. Neurri honetako 2.1.2. jarduketan aurreikusi bezala izendatuko diren teknikariek, Berdintasunerako Aholkularitzaren ordezkariek eta Lehendakaritza Sailaren ordezkari politikoek osatuko dute. Batzorde horrek ekintzen koordinazioa bermatu behar du eta multzoari batasuna eman behar dio. | ▪ Sailen arteko Batzordea eratu dela egiaztatzea.<br>▪ Bileretan aztertu diren gaiak.<br>▪ Bileren ondoriozko ekintzak. |
| | | **2.1.5. jarduketa**<br>Sailen arteko Batzordeari ahalmena ematea erakunde politikoei lantalde teknikoak eratu daitezela proposatzeko, Planaren aplikazioarekin zerikusia duten alderdiak aztertze aldera, beharrezkoa edo komenigarria irizten zaionean. | ▪ Eratutako taldeen kopurua eta mota.<br>▪ Egindako azterketen kp. eta mota.<br>▪ Bileren ondoriozko ekintzak. |

| 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA | | | |
|---|---|---|---|
| **EGOERAREN DIAGNOSTIKOA** | | | |
| **DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK** | **DATUEN ITURRIA** | **DATUAK** | **INFORMAZIOAREN BALORAZIOA** |
| ▪ Aurrekontuan jarritako diru-kopuruak. | AFA | Gaur egun, esku hartzeko programetan berdintasun printzipioa integratzeko zuzendaritza bakoitzean jartzen diren baliabide ekonomikoak ez dira aurrekontuetan agertzen, eginkizun horiei berariaz esleitutako aurrekontu-partidarik ez dutelako. | |

## 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **2. HELBURUA**<br><br>**Foru Administrazioari bere berdintasun-politika eraginkortasunez aplikatzeko behar dituen baliabideak ematea** | **2.2. neurria**<br><br>Berdintasun printzipioaren aplikazioari begira Planean aurreikusi diren jarduketak Foru Aldundiaren aurrekontuen egituran bereiz jasoko direla bermatzea. | **2.2.1. jarduketa**<br><br>Foru Aldundiaren aurrekontuak genero-ikuspegitik aztertzea. | ▪ Aurrekontuen azterketa egin dela egiaztatzea.<br>▪ Genero-berdintasuna xede duten jarduketak sailen aurrekontuetan ager daitezen erabiliko diren formulak. |
| | | **2.2.2. jarduketa**<br><br>Zuzendaritza bakoitzak konpromisoa hartzea Planaren barruan garatu beharreko jarduketei berariazko aurrekontu-partidak esleitzeko. | ▪ Azken ekitaldian zenbat zuzendaritzak eduki dituzten euren aurrekontuetan Plana burutzeko berariazko partidak edo diru-kopuruak. |

# 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

## EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<table>
<tr><th>DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK</th><th>DATUEN ITURRIA</th><th colspan="3">DATUAK</th><th>INFORMAZIOAREN BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td>▪ Hurbileko sailen arteko batzorde edo lantaldeak izatea, praktika onak trukatzeko eta hainbat sailek batera burutu beharreko ekintzen garapenean lankidetzan aritzeko marko gisa.</td><td>AFA</td><td colspan="3">Ez da hurbileko sailen arteko batzorde edo lantalderik sortu, praktika onak trukatzeko eta hainbat sailek batera burutu beharreko ekintzen garapenean lankidetzan aritzeko marko gisa.</td><td rowspan="6">▪ Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak gidaliburu bat prestatu eta zabaldu zuten. Bertan azaltzen da nola aplikatu behar zaien genero-ikuspegia programa publikoei, eta hizkuntza sexu-bereizkeriarik gabe erabiltzeko arauak ematen dira. Hala ere, ez du behar bezalako tresnarik bere arautegian eta ekintza-planetan berdintasun printzipioa errespetatuko dela bermatzeko. Gainera, ez du behar adina datu edo azterlan gizonek eta emakumeek hainbat arlotan duten egoera genero-ikuspegitik islatu ahal izateko. Garrantzitsua da bitarteko egokiak ezartzea, bai datuak, bai txostenak, ekintza-planak eta Aldundiaren arautegia genero-ikuspegiarekin bat datozela bermatzeko.</td></tr>
<tr><td>▪ Arautegia eta ekintza-planak egiten direnean genero-berdintasunaren printzipioa errespetatuko dela bermatzeko tresnak edo prozedurak izatea.</td><td>AFA</td><td colspan="3">Ez dago tresna edo prozedurarik arautegia eta ekintza-planak egiten direnean genero-berdintasunaren printzipioa errespetatuko dela bermatzeko.</td></tr>
<tr><td rowspan="4">▪ Genero-berdintasunaren gaineko azterlan eta estatistikak.</td><td rowspan="4">AFA</td><td colspan="3">Genero-berdintasunaren gaineko azterlan eta estatistiken kopurua.</td></tr>
<tr><td></td><td>Aldizkakoak</td><td>Unean unekoak</td></tr>
<tr><td>Azterlanak</td><td>0</td><td>2</td></tr>
<tr><td>Estatistikak</td><td>0</td><td>0</td></tr>
</table>

# 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **3. HELBURUA**<br>**Berdintasun printzipioa erakundearen bizitzaren eremu guztietan sar dadin sustatzea** | **3.1. neurria**<br>Erakundeek berdintasun printzipioa eraginkortasunez aplikatzeko konpromisoa hartuko dutela bermatzeko behar diren bitartekoak eta prozedurak ezartzea. | **3.1.1. jarduketa**<br>Sail guztiek konpromiso formala hartzea euren jarduketak berdintasun printzipioari egokitzeko. | ▪ Sailek euren jarduketak berdintasun printzipioari egokitzeko konpromiso formala hartzea xede duten jarduketen kopurua eta mota. |
| | | **3.1.2. jarduketa**<br>Sail guztiek konpromisoa hartzea euren agiri publikoetan genero-ikuspegia sartzeko, bereziki euren ekintza-planetan eta euren arautegian, eta programa nahiz baliabideei buruzko informazioan ere bai. Horrela bermatu egin behar da hizkuntzaren eta irudien erabileran ez dela sexu-bereizkeriarik izango. | ▪ Agiri publikoetan genero-ikuspegia sartu dela egiaztatzea.<br>▪ Berdintasun printzipioa aplikatu zaien jarduketen kopurua eta mota. |
| | | **3.1.3. jarduketa**<br>Sail guztiek konpromisoa hartzea euren eskumeneko gaien azterketan erabiltzen dituzten adierazleak egokitzeko, informazioaren analisia genero-ikuspegitik egin dadin. | ▪ Adierazle berriak erabiliz egindako azterlanen kopurua eta mota.<br>▪ Azterlanetan erabilitako adierazleen kopurua eta mota. |
| | | **3.1.4. jarduketa**<br>Aldundiak argitaratzen dituen txosten guztiek euren formulazioetan eta analisian genero-ikuspegia errespetatuko dutela bermatzea. | ▪ Formulazioetan eta analisian genero-ikuspegia errespetatzen duten txostenen kopurua eta mota.<br>▪ Pertsona edota erakunde hartzaileen ezaugarriak. |
| | | **3.1.5. jarduketa**<br>Foru Aldundiak sustatzen dituen kontratazio-espedienteetan, adjudikazioa emateko irizpideetariko bat berdintasun printzipioaren errespetua izatea. | ▪ Berdintasun printzipioa errespetatzen duten kontratazio-espedienteen kp. |
| | **3.2. neurria**<br>Plana zenbateraino betetzen den jakiteko behar diren prozedurak ezartzea | **3.2.1. jarduketa**<br>Urtero, Berdintasunerako Aholkularitzaren bitartez, Planaren ebaluazioa egitea, haren aplikazioa noraino iritsi den jakiteko. | ▪ Urtero planaren ebaluazioa egin dela egiaztatzea.<br>▪ Ebaluazioan parte hartu duten zuzendaritzak.<br>▪ Egin gabe utzi diren jarduketen kopurua eta mota, eta zergatik ez diren egin. |
| | | **3.2.2. jarduketa**<br>Hasita dauden jarduketak egokitzea, urteroko ebaluazioetan ematen diren gomendioak kontuan hartuta. | ▪ Ebaluazioetan emandako gomendioak kontuan hartuta egin diren zuzenketen kopurua eta mota. |

## 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<table>
<tr><th>DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK</th><th>DATUEN ITURRIA</th><th>DATUAK</th><th>INFORMAZIOAREN BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td>▪ Genero-berdintasunari buruzko prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua.</td><td>AFA</td><td>▪ 1999tik 2004ra bitartean 295 pertsonak jaso dute prestakuntza, horietariko 212k barruan eta 83k kanpoan.</td><td rowspan="3">Foru Aldundiak ahalegin handia egin du bere langileei prestakuntza emateko genero-ikuspegiarekin zerikusia duten gaietan. Gainera, plantillako 83 langilek prestakuntza jaso dute kanpoan. Hala ere, antolatzaileek diotenez, egitekoak ziren ikastaroetako batzuk bertan behera utzi behar izan dira, egin diren ikastaroetara jende gutxi joan delako. Prestakuntza lanpostu mota bakoitzari egokitu behar zaio; horrela prestakuntzaren baliagarritasuna eta, ondorioz, langileen inplikazioa bermatuko dira.<br><br>Beste alde batetik, izendapen politikoaren bitartez eskuratzen diren ardura handiko postuetan alde handiak daude gizonen eta emakumeen artean. Ardurako postuetarako izendatzen diren emakumeen kopurua handitu egin behar da; funtsezkoa da arduradun politikoek beharrizan hori aintzat har dezaten sustatzea. Horren harira, 2003. urtetik -diagnostikoaren zenbakiak urte horretakoak dira- 2005. urtearen amaierara arte -Plana idazten amaitu arte- egoera horrek hobera egin duela azpimarratu behar da. Izan ere, emakume diputatuen kopuruak gora egin du bitarte labur horretan eta dagoeneko diputatu guztien %30 emakumezkoak dira.<br><br>Halaber, plantillaren ezaugarriak aztertu eta etengabe kontrolatu behar dira, berdintasun printzipioa benetan zenbateraino aplikatzen den zehaztu behar da eta antzematen diren desorekak zuzendu behar dira.</td></tr>
<tr><td>▪ Genero-berdintasunaren arloko prestakuntza plan edo programaren bat izatea, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak garatua.</td><td>AFA</td><td>▪ Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari buruzko bi prestakuntza plan egin dira, bata orokorra, Arabako Foru Aldundiko langile guztientzat, eta bestea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearena.</td></tr>
<tr><td>▪ Erabakiak hartzen diren mailetan eta AFAren eskumeneko arloetan parte hartzen duten emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea.</td><td>AFA</td><td>Erabakiak hartzen diren mailetan eta AFAren eskumeneko arloetan parte hartzen duten emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea (%) – 2003. urtea
<table>
<tr><th></th><th>Gizonak</th><th>Emakumeak</th></tr>
<tr><td>Diputatuak</td><td>90,0</td><td>10,0</td></tr>
<tr><td>Zuzendariak</td><td>81,2</td><td>18,8</td></tr>
<tr><td>Konfiantzako langileak</td><td>50,0</td><td>50,0</td></tr>
<tr><td>AFAko funtzionarioak</td><td>57,5</td><td>42,5</td></tr>
</table></td></tr>
</table>

# 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **3. HELBURUA**<br>**Berdintasun printzipioa erakundearen bizitzaren eremu guztietan sar dadin sustatzea.** | **3.3. neurria**<br>Behar diren bitartekoak eta prozedurak ezartzea, Aldundia, enplegu-emailea den aldetik, berdintasun-politikak aplikatzeko erreferentziako eredu bihur dadin. | **3.3.1. jarduketa**<br>Izendapen libreak egiten dituzten arduradun politikoei ohartaraztea emakume gehiago izendatu behar direla ardurako postuetarako. | ▪ Sustapen-jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Erabakiak hartzen diren mailetan dauden emakumeen kopurua. |
| | | **3.3.2. jarduketa**<br>Foru Aldundiko lanpostuak betetzeko oposizioetako gai-zerrendetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz indarra duten arauak sartzea. | ▪ Berdintasunari buruzko arauak gai-zerrendan jaso diren oposizioen kopurua.<br>▪ Jasotako arauen kopurua eta mota. |
| | | **3.3.3. jarduketa**<br>Lanpostu publikoak betetzeko eta mailaz igotzeko aukeraketa-prozesuei buruzko arauetan honako klausula hau sartzea: gaitasun bereko bi lehiakideren artetik, emakumezkoa lehenetsiko da Administrazioko edozein kidego, eskala, maila eta kategoriatan, baldin eta bertan emakumezkoen ordezkaritza %40tik beherakoa bada; salbuespenez, beste lehiatzailea laneratzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituen kolektibo batekoa bada, edo sexu-bereizkeriarik gabeko beste arrazoi bidezkoren bat tartean bada, ez da aplikatuko arau hori. | ▪ Klausula hori sartu den aukeraketa-prozesuen kopurua.<br>▪ Emakumezkoen portzentajea Administrazioko kidego, eskala, maila eta kategorietan. |
| | | **3.3.4. jarduketa**<br>Klausula bat sartzea, lanpostu publikoak betetzeko eta mailaz igotzeko aukeraketa-prozesuetako epaimahaietan bermatuta egon dadin emakumezkoen eta gizonezkoen ordezkaritza orekatua, betiere epaimahaiko kide guztiek gaitasun eta prestakuntza egokiak dituztelarik. | ▪ Emakumeen portzentajea lanpostu publikoak betetzeko eta mailaz igotzeko aukeraketa-prozesuetako epaimahaietan. |
| | | **3.3.5. jarduketa**<br>Lan eskaintza publikoetan sexismorik izan ez dadin arduratzea. | ▪ Lan eskaintza publikoetan genero-ikuspegia errespetatzen dela egiaztatzea. |
| | | **3.3.6. jarduketa**<br>Aldundiaren plantillaren ezaugarriak aztertzea bi urtean behin, jarduketa arloak, lanbide-mailak eta eginkizunak kontuan hartuz, sexuari, adinari, maila akademikoari, famili egoerari eta egokitzat jotzen diren gainerako faktoreei erreparatuz, berdintasun-printzipioa benetan zenbateraino aplikatzen den zehazteko eta, desorekaren bat antzemanez gero, hura zuzentzeko neurri egokiak hartzeko. | ▪ Azterketak egin direla egiaztatzea.<br>▪ Noizero egin diren azterketak.<br>▪ Egindako azterketen kopurua eta gaiak.<br>▪ Antzemandako desorekak zuzentzeko egindako jarduketen kopurua eta mota. |
| | | **3.3.7. jarduketa**<br>Arabako Foru Aldundiko eta haren menpeko erakundeetako lanpostuen izenak eta eginkizunak berrikusi eta zuzentzea, genero-ikuspegitik. | ▪ Berrikuspena eta zuzenketa egin direla egiaztatzea. |
| | | **3.3.8. jarduketa**<br>Arabako Foru Aldundian gurasoentzako baimenak nola erabiltzen diren eta bizitza pertsonala, familiako ardurak eta lana bateratzeko langileek -emakumeek nahiz gizonek- zer-nolako neurriak hartzen dituzten aztertzea. | ▪ Azterketa egin dela egiaztatzea. |
| | | **3.3.9. jarduketa**<br>Gizonezkoek gurasoentzako baimenak eta bizitza pertsonala, familiako ardurak eta lana bateratzeko neurriak baliatu ditzaten sustatzea. | ▪ Gurasoentzako baimenak eta bizitza pertsonala, familiako ardurak eta lana bateratzeko neurriak baliatzen dituzten gizonezkoen portzentajea. |
| | | **3.3.10. jarduketa**<br>Berdintasunari buruzko prestakuntza plana diseinatzea Aldundiko, erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako langileentzat, zuzendaritzetako eginkizunen arabera egituratuta, haren edukiak zuzendaritzen eskumen-eremuetara moldatzeko eta, hartara, zuzendaritza bakoitzaren inplikazio handiagoa bermatzeko. Gainera, prestakuntza plan horrek hainbat espezializazio-maila eduki behar ditu, lanpostuetako eginkizun desberdinei egokituak. | ▪ Plana egin dela egiaztatzea.<br>▪ Planean aurreikusitako jarduketen kp. eta mota. |
| | | **3.3.11. jarduketa**<br>Laneko jazarpen sexistari aurrea hartzeko eta hura eragozteko jarduketa-protokoloak egin eta aplikatzea. | ▪ Jarduketa-protokoloak egin direla egiaztatzea.<br>▪ Administrazioko sailetan jarduketa-protokoloak aplikatzen direla egiaztatzea. |

## 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Beste administrazio batzuekin batera berdintasun-politikak prestatzeko egindako hitzarmen, batzorde eta lantaldeak. | AFA | ▪ Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak berdintasun plan bana garatzeko egindako erakunde arteko hitzarmena.<br>▪ Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei hobeto laguntzeko jarduketa-protokoloaren inguruan eratutako batzordea eta lantalde teknikoa.<br>▪ Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana garatzeko erakunde arteko batzordea. | ▪ Gaur egun Arabako Foru Aldundiak lankidetzan dihardu Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin, berdintasuna sustatzen. Horretarako hainbat formula erabiltzen dituzte, hala nola lankidetza hitzarmenak, diru-laguntzak, eta praktika onei buruzko ezaguerak trukatzeko harreman informalak. Komenigarria da elkarlanean jarraitzea eta lankidetza harreman horiek sendotzea. |
| ▪ Genero-berdintasuna sustatzeko laguntza ekonomikoak toki erakundeentzat. | AFA | ▪ Arabako Lurralde Historikoan 20.000 biztanle baino gutxiago duten toki erakundeentzako laguntzak, norbanako edo talde ahulak gizarteratu eta horiei arreta soziala eskaintzeko gizarteratze-programak aurrera eraman ditzaten.<br>▪ Erakunde publikoentzako laguntzak, zentro eta gizarte zerbitzuak berritzeko, egokitzeko eta ekipamendua jartzeko, bai eta horietan auzolanean aritzeko materiala erosteko ere.<br>▪ Diru-laguntzak, gizarte zerbitzuen helburu nagusi diren norbanakoen eta taldeen prebentziorako, arretarako eta gizarteratzeko erakunde publikoak antolatzen dituzten jarduerak eta programak aurrera eramaten laguntzeko.<br>▪ Gizarte zerbitzuen jarduerekin zerikusia duten ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak eta kongresuak antolatzeko laguntzak. | |

# 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| 4. HELBURUA<br>**Beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan aritzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen.** | **4.1. neurria**<br>Arabako Lurralde Historikoko udalekin eta udalen elkarteekin lankidetzan aritzea, batera garatzen diren politiketan arian-arian berdintasun printzipioa ezarriko dela bermatzeko. | **4.1.1. jarduketa**<br>Berdintasunarekin zerikusia duten gaietan Arabako udalekin elkarlanean jarraitzea; batez ere, laguntza teknikoa eskainiko zaie eta sustapen-neurriak ezarriko dira Planean aurreikusitako jarduketak ahalik ondoen aplikatzeko eta, oro har, berdintasuna xede duten plan eta jarduerak garatzeko. | ▪ Udalekin izandako harremanen kopurua eta mota. |
| | | **4.1.2. jarduketa**<br>Foru Aldundiko sailek udalekin eta gainerako toki erakundeekin sinatzen dituzten hitzarmenek ekintza positiborako klausulak izango dituztela bermatzea, eta edukiaren nahiz hizkuntzaren aldetik berdintasun printzipioari lotuko zaizkiola. | ▪ Sail bakoitzak toki entitateekin zenbat hitzarmen sinatu dituen berdintasun printzipioari lotuta, edukiaren eta hizkuntzaren aldetik, eta zein motatako hitzarmenak diren. |
| | | **4.1.3. jarduketa**<br>Foru Aldundiko sailek udalei eta gainerako toki entitateei ematen dizkieten diru-laguntzak edukiaren eta hizkuntzaren aldetik berdintasun printzipioari lotuko zaizkiola bermatzea. | ▪ Sail bakoitzak toki entitateentzat zenbat diru-laguntza ezarri dituen berdintasun printzipioari lotuta, edukiaren eta hizkuntzaren aldetik, eta zein motatako diru-laguntzak diren. |

## 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Beste administrazio batzuekin batera berdintasun-politikak prestatzeko egindako hitzarmen, batzorde eta lantaldeak. | AFA | ▪ Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak berdintasun plan bana garatzeko egindako erakunde arteko hitzarmena.<br>▪ Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei hobeto laguntzeko jarduketa-protokoloaren inguruan eratutako batzordea eta lantalde teknikoa.<br>▪ Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana garatzeko erakunde arteko batzordea. | ▪ Gaur egun Arabako Foru Aldundiak lankidetzan dihardu Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin, berdintasuna sustatzen. Horretarako hainbat formula erabiltzen dituzte, hala nola lankidetza hitzarmenak, diru-laguntzak, eta praktika onei buruzko ezaguerak trukatzeko harreman informalak. Komenigarria da elkarlanean jarraitzea eta lankidetza harreman horiek sendotzea. |
| ▪ Genero-berdintasuna sustatzeko laguntza ekonomikoak toki erakundeentzat. | AFA | ▪ Arabako Lurralde Historikoan 20.000 biztanle baino gutxiago duten toki erakundeentzako laguntzak, pertsona edo talde ahulak gizarteratu eta horiei arreta soziala eskaintzeko gizarteratze-programak aurrera eraman ditzaten.<br>▪ Erakunde publikoentzako laguntzak, zentro eta gizarte zerbitzuak berritzeko, egokitzeko eta ekipamendua jartzeko, bai eta horietan auzolanean aritzeko materiala erosteko ere.<br>▪ Diru-laguntzak, gizarte zerbitzuen helburu nagusi diren norbanakoen eta taldeen prebentziorako, arretarako eta gizarteratzeko erakunde publikoak antolatzen dituzten jarduerak eta programak aurrera eramaten laguntzeko.<br>▪ Gizarte zerbitzuen jarduerekin zerikusia duten ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak eta kongresuak antolatzeko laguntzak. | |
| ▪ Europako, Estatuko eta autonomi erkidegoetako erakundeekin berdintasun gaietan informazioa, laguntza teknikoa eta aholkuak trukatzeko mekanismoak. | AFA | Ez dago Europako, Estatuko eta autonomi erkidegoetako erakundeekin berdintasun gaietan informazioa, laguntza teknikoa eta aholkuak trukatzeko mekanismorik. | ▪ Gaur egun ez dago Europako, Estatuko edo autonomi erkidegoetako erakundeekiko harremanetarako mekanismo formalik. Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Lehen Foru Planaren inguruan sortutako talde teknikoaren jarduketei buruzko memorietan, hala ere, horrelako erakundeekin berdintasunaren arloko praktika onak trukatzeko harremanak izan direla aipatzen da. Komenigarria litzateke lehendik dagoen lankidetza hori sendotu eta arlo honetako harremanetarako bide formalagoak sortzea. |

## 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **4. HELBURUA**<br><br>**Beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan aritzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen.** | **4.2. neurria**<br><br>Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzea ekintza positiborako politikak prestatzen, eta baterako jarduketetan berdintasun printzipioa bete dadin begiratzea. | **4.2.1. jarduketa**<br><br>Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearekin elkarlanean jarraitzea, ondoko batzorde hauetan modu aktiboan parte hartuz:<br>▪ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 12. artikuluan aurreikusitako erakunde arteko batzordea.<br>▪ Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei hobeto laguntzeko jarduketa-protokoloaren inguruan eratutako batzordea eta lantalde teknikoa. | ▪ Erakunde arteko batzordearen deialdien kopurua.<br>▪ Batzorde horretan parte hartzearen ondorioz egindako jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei hobeto laguntzeko jarduketa-protokoloaren inguruan sortutako batzordearen eta lantalde teknikoaren bilkuretan zenbat aldiz parte hartu duen AFAk.<br>▪ Batzordean eta lantalde teknikoan parte hartzearen ondorioz zenbat jarduketa egin diren eta zein motatakoak. |
| | | **4.2.2. jarduketa**<br><br>Foru Aldundiko sailek Eusko Jaurlaritzarekin sinatzen dituzten hitzarmenek ekintza positiborako klausulak edukiko dituztela eta berdintasun printzipioa errespetatuko dutela bermatzea. | ▪ Sail bakoitzak Eusko Jaurlaritzarekin zenbat hitzarmen sinatu dituen ekintza positiborako klausulak eduki eta berdintasun printzipioa errespetatzen dituztenak. |

## 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Beste administrazio batzuekin batera berdintasun-politikak prestatzeko egindako hitzarmen, batzorde eta lantaldeak. | AFA | ▪ Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak berdintasun plan bana garatzeko egindako erakunde arteko hitzarmena.<br>▪ Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei hobeto laguntzeko jarduketa-protokoloaren inguruan eratutako batzordea eta lantalde teknikoa.<br>▪ Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana garatzeko erakunde arteko batzordea. | ▪ Gaur egun Arabako Foru Aldundiak lankidetzan dihardu Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin, berdintasuna sustatzen. Horretarako hainbat formula erabiltzen dituzte, hala nola lankidetza hitzarmenak, diru-laguntzak, eta praktika onei buruzko ezaguerak trukatzeko harreman informalak. Komenigarria da elkarlanean jarraitzea eta lankidetza harreman horiek sendotzea. |
| ▪ Genero-berdintasuna sustatzeko laguntza ekonomikoak toki erakundeentzat. | AFA | ▪ Arabako Lurralde Historikoan 20.000 biztanle baino gutxiago duten toki erakundeentzako laguntzak, pertsona edo talde ahulak gizarteratu eta horiei arreta soziala eskaintzeko gizarteratze-programak aurrera eraman ditzaten.<br>▪ Erakunde publikoentzako laguntzak, zentro eta gizarte zerbitzuak berritzeko, egokitzeko eta ekipamendua jartzeko, bai eta horietan auzolanean aritzeko materiala erosteko ere.<br>▪ Diru-laguntzak, gizarte zerbitzuen helburu nagusi diren norbanakoen eta taldeen prebentziorako, arretarako eta gizarteratzeko erakunde publikoak antolatzen dituzten jarduerak eta programak aurrera eramaten laguntzeko.<br>▪ Gizarte zerbitzuen jarduerekin zerikusia duten ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak eta kongresuak antolatzeko laguntzak. | |
| ▪ Europako, Estatuko eta autonomi erkidegoetako erakundeekin berdintasun gaietan informazioa, laguntza teknikoa eta aholkuak trukatzeko mekanismoak. | AFA | Ez dago Europako, Estatuko eta autonomi erkidegoetako erakundeekin berdintasun gaietan informazioa, laguntza teknikoa eta aholkuak trukatzeko mekanismorik. | ▪ Gaur egun ez dago Europako, Estatuko edo autonomi erkidegoetako erakundeekiko harremanetarako mekanismo formalik. Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Lehen Foru Planaren inguruan sortutako talde teknikoaren jarduketei buruzko memorietan, hala ere, horrelako erakundeekin berdintasunaren arloko praktika onak trukatzeko harremanak izan direla aipatzen da. Komenigarria litzateke lehendik dagoen lankidetza hori sendotu eta arlo honetako harremanetarako bide formalagoak sortzea. |

## 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| 4. HELBURUA<br><br>**Beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan aritzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen.** | **4.3. neurria**<br><br>Arartekoaren Bulegoarekin lankidetzan aritzea ekintza positiborako politikak prestatzen, eta baterako jarduketetan berdintasun printzipioa bete dadin arduratzea. | **4.3.1. jarduketa**<br><br>Arartekoaren Bulegoarekin lankidetzan aritzea emakumeen eskubideak defendatzen, eta erakunde horrek berdintasun printzipioaren urratzeei buruz egiten dituen eskaerei erantzutea. | ▪ Arartekoaren Bulegoarekin lankidetzan egindako jarduketen kopurua eta mota. |
| | **4.4. neurria**<br><br>Gizarte ekimeneko erakundeekin lankidetzan, berdintasunaren sustapena bultzatzea. | **4.4.1. jarduketa**<br><br>Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako batzordea sortzea, gizarte ekimeneko erakundeek parte hartzeko bidea izan dezaten. Batzorde horretan Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailak erakunde-ordezkaritza izango du, sail horretako teknikariek ere parte hartuko dute, eta berdintasunaren sustapenaren arloan nabarmentzen diren gizarte ekimeneko erakundeek ordezkaritza izango dute. Esparru horretan, erakundeek aukera izango dute berdintasunarekin zerikusia duten foru ekimenei buruzko iritzia azaltzeko eta erakunde-proposamenak hobetzen lagunduko duten ekarpenak egiteko. | ▪ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako batzordea sortu dela egiaztatzea.<br>▪ Batzordean aztertu diren gaiak.<br>▪ Batzordearen eraginez AFAk egin dituen jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Batzordearen eraginez elkarte partehartzaileek egin dituzten jarduketen kopurua eta mota. |

## 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Beste administrazio batzuekin batera berdintasun-politikak prestatzeko egindako hitzarmen, batzorde eta lantaldeak. | AFA | ▪ Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak berdintasun plan bana garatzeko egindako erakunde arteko hitzarmena.<br>▪ Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei hobeto laguntzeko jarduketa-protokoloaren inguruan eratutako batzordea eta lantalde teknikoa.<br>▪ Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana garatzeko erakunde arteko batzordea. | ▪ Gaur egun Arabako Foru Aldundiak lankidetzan dihardu Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin, berdintasuna sustatzen. Horretarako hainbat formula erabiltzen dituzte, hala nola lankidetza hitzarmenak, diru-laguntzak, eta praktika onei buruzko ezaguerak trukatzeko harreman informalak. Komenigarria da elkarlanean jarraitzea eta lankidetza harreman horiek sendotzea. |
| ▪ Genero-berdintasuna sustatzeko laguntza ekonomikoak toki erakundeentzat. | AFA | ▪ Arabako Lurralde Historikoan 20.000 biztanle baino gutxiago duten toki erakundeentzako laguntzak, pertsona edo talde ahulak gizarteratu eta horiei arreta soziala eskaintzeko gizarteratze-programak aurrera eraman ditzaten.<br>▪ Erakunde publikoentzako laguntzak, zentro eta gizarte zerbitzuak berritzeko, egokitzeko eta ekipamendua jartzeko, bai eta horietan auzolanean aritzeko materiala erosteko ere.<br>▪ Diru-laguntzak, gizarte zerbitzuen helburu nagusi diren norbanakoen eta taldeen prebentziorako, arretarako eta gizarteratzeko erakunde publikoak antolatzen dituzten jarduerak eta programak aurrera eramaten laguntzeko.<br>▪ Gizarte zerbitzuen jarduerekin zerikusia duten ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak eta kongresuak antolatzeko laguntzak. | |
| ▪ Europako, Estatuko eta autonomi erkidegoetako erakundeekin berdintasun gaietan informazioa, laguntza teknikoa eta aholkuak trukatzeko mekanismoak. | AFA | Ez dago Europako, Estatuko eta autonomi erkidegoetako erakundeekin berdintasun gaietan informazioa, laguntza teknikoa eta aholkuak trukatzeko mekanismorik. | ▪ Gaur egun ez dago Europako, Estatuko edo autonomi erkidegoetako erakundeekiko harremanetarako mekanismo formalik. Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Lehen Foru Planaren inguruan sortutako talde teknikoaren jarduketei buruzko memorietan, hala ere, horrelako erakundeekin berdintasunaren arloko praktika onak trukatzeko harremanak izan direla aipatzen da. Komenigarria litzateke lehendik dagoen lankidetza hori sendotu eta arlo honetako harremanetarako bide formalagoak sortzea. |

## 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **4. HELBURUA**<br><br>**Beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan aritzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen.** | **4.5. neurria**<br><br>Estatuko Administrazio Orokorrarekin, beste autonomi erkidego batzuekin eta Europar Batasunarekin lankidetzan aritzea berdintasunaren arloan. | **4.5.1. jarduketa**<br><br>Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta gainerako autonomi erkidegoekin hasitako lankidetza sendotzea, baliabideak eta esperientziak trukatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eskualdeen arteko ekintzak garatzeko. | ▪ Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta beste autonomi erkidego batzuekin izandako harremanen kopurua eta mota.<br>▪ Eskualdeen artean burututako ekintzen kopurua eta mota. |
| | | **4.5.2. jarduketa**<br><br>Europako beste eskualde batzuekin batera lankidetzarako programak garatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikei buruzko esperientziak trukatzeko. | ▪ Egindako programa-motak.<br>▪ Onuradunen kopurua eta ezaugarriak.<br>▪ Programak garatu dituzten erakundeen kopurua eta ezaugarriak.<br>▪ Programen barruko jarduketa-motak.<br>▪ Programen estaldura maila. |
| | | **4.5.3. jarduketa**<br><br>Emakumeen egoera aztertu eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako estrategiak aurkezten diren foroetan aktiboki parte hartzea, Estatu mailako foroak zein nazioartekoak izan. | ▪ Estatu mailako eta nazioarteko zenbat forotan parte hartu den.<br>▪ Zein motatako parte-hartzea izan den.<br>▪ Aztertutako gaiak. |

| 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA | | | |
|---|---|---|---|
| **EGOERAREN DIAGNOSTIKOA** | | | |
| **DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK** | **DATUEN ITURRIA** | **DATUAK** | **INFORMAZIOAREN BALORAZIOA** |
| ▪ Garapen bidean dauden herrialdeentzako laguntzak eta diru-laguntzak, euren oinarrietan genero-ikuspegia kontuan hartzen dutenak. | AFA | ▪ 6/2004 Foru Dekretuak, garapen bidean dauden herrialdeetan ekintzak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia eta oinarriak onesten dituenak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren integrazioa aipatzen du, diru-laguntzak esleitzeko beste balorazio-irizpide batzuen artean. | ▪ Garapen bidean dauden herrialdeetan ekintzen finantzaketan parte hartzeko diru-laguntzek badituzte klausula batzuk, diru-laguntza jasoko duten programetan berdintasuna bermatu behar dela diotenak. Nazio Batuek adierazi dute garrantzitsua dela garapenerako lankidetza-politiketan genero-ikuspegia sartzea. Ildo horretan lanean jarraitu behar da laguntza ekonomikoen bitartez; gainera, garapen bidean dauden herrialdeetan berdintasunaren sustapenari eta defentsari buruzko prestakuntza eta informazioa eskaini behar dira. |

# 1. ARLOA.- GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **4. HELBURUA**<br><br>**Beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan aritzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen.** | **4.6. neurria**<br><br>Garapenerako lankidetza-programa eta -proiektuetan genero-ikuspegia jasotzea. | **4.6.1. jarduketa**<br><br>Garapenerako lankidetza-proiektuei laguntza emateko deialdietan, emakumeak lehentasuneko onuradun-taldetzat jotzen dituen politikari eustea. | ▪ Garapenerako lankidetza-proiektuei laguntzeko deialdietan emakumeak lehentasuneko taldetzat jotzen direla egiaztatzea. |
| | | **4.6.2. jarduketa**<br><br>Garapenerako lankidetza-programa eta -proiektu guztietan genero-ikuspegia jaso dadila eskatzea. | ▪ Programetan genero-ikuspegia jasoko dela bermatzeko egindako jarduketen kopurua eta mota. |
| | | **4.6.3. jarduketa**<br><br>Garapen bidean dauden herrialdeetan berdintasunaren alde lan egiten duten emakume eta gizonei berariaz zuzendutako prestakuntza programen garapena sustatzea. | ▪ Egindako prestakuntza programen kopurua eta mota. |
| | | **4.6.4. jarduketa**<br><br>Esperientziak trukatzeko foroak sustatzea, praktika onen ereduak eskaintzea xede dutenak, hartara emakumeek eta gizonek aktiboki parte har dezaten berdintasunaren garapenean eta aurrerapenean, garatzeko bidean dauden herrialdeetan. | ▪ Esperientziak trukatzeko egindako jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Garapen bidean dauden herrialdeetan berdintasunaren aurrerapena sustatzeko praktika onen ereduak biltzea. |

# 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

## EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ 16 urtetik gorako emakumeen eta gizonen artean jarduera-, okupazio- eta langabezia-tasetan dauden aldeak. | Eustat | (1. taula) | ▪ Lan-merkatuko adierazle nagusiek agerian jartzen dute alde handiak daudela emakumeen eta gizonen artean, eta emakumeen egoera txarragoa dela eremu horretan. Arabako Lurraldeko eremu guztietan daude aldeak, estatistika arrunten arabera. Horregatik, behar-beharrezkoa da desberdintasun horien arrazoiak aztertzea, emakumeen eta gizonen egoera berdintzeko behar diren neurriak jarri ahal izateko.<br>▪ Bestalde, datuek erakusten dutenez, soldatapean lan egiten duten emakumeen proportzioa handiagoa da gizonezkoena baino, eta emakume gehienek zerbitzuen sektorean dihardute. |
| ▪ 16 eta 64 urte bitarteko emakumeen eta gizonen arteko aldeak, jarduerari dagokionez, Arabako eskualdeetan. | Eustat | (2. taula) | |
| ▪ 16 urtetik gorako emakumeen eta gizonen arteko aldeak, sektore ekonomikoetan parte hartzeari dagokionez. | Eustat | (3. taula) | |
| ▪ Emakumeen eta gizonen arteko aldeak, lanbide-egoerari dagokionez, 16 urtetik aurrerako biztanle landunen artean. | Eustat | (4. taula) | |

**16 urtetik gorako emakumeen eta gizonen artean jarduera-, okupazio- eta langabezia-tasetan dauden aldeak (2004ko lehen hiruhilekoa)**

| *Tasa mota* | *Gizonak* | *Emakumeak* |
|---|---|---|
| Jarduera-tasa | 68,2 | 49,1 |
| Okupazio-tasa | 64,7 | 43,5 |
| Langabezia-tasa | 7,8 | 11,4 |

**16 eta 64 urte bitarteko emakumeen eta gizonen arteko aldeak, jarduerari dagokionez, Arabako eskualdeetan (2003)**

| *Eskualdea* | *Jarduera-tasa* | | *Langabezi tasa* | | *Enplegu koef.* | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *G* | *E* | *G* | *E* | *G* | *E* |
| Arabako Ibarrak | 85,5 | 60,4 | 3,7 | 13,9 | 82,4 | 52,0 |
| Lautadako gainerakoak | 91,0 | 69,9 | 2,9 | 21,1 | 88,4 | 55,1 |
| Vitoria-Gasteiz | 88,0 | 45,8 | 1,3 | 11,8 | 86,8 | 40,4 |
| Arabako Mendialdea | 81,3 | 58,0 | 6,1 | 24,6 | 76,3 | 43,8 |
| Arabako Errioxa | 81,8 | 71,1 | 8,1 | 14,3 | 75,2 | 61,0 |

**16 urtetik gorako emakumeen eta gizonen arteko aldeak, sektore ekonomikoetan parte hartzeari dagokionez (2004ko lehen hiruhilekoa)**

| *Sektore ekonomikoak* | *Gizonak* | *Emakumeak* |
|---|---|---|
| Nekazaritza-abeltzaintza eta arrantza | 5,3 | 4,0 |
| Industria | 44,3 | 13,7 |
| Eraikuntza | 11,6 | 1,1 |
| Zerbitzuak | 38,8 | 81,2 |

**Emakumeen eta gizonen arteko aldeak, lanbide-egoerari dagokionez, 16 urtetik aurrerako biztanle landunen artean (2004ko lehen hiruhilekoa)**

| *Lanbide-egoera* | *Gizonak* | *Emakumeak* |
|---|---|---|
| Enplegu-emaileak | 3,3 | 0,4 |
| Langile autonomoak | 16,6 | 10,8 |
| Famili laguntzak | 0,4 | 1,3 |
| Kooperatibetako kideak | 2,5 | 1,4 |
| Soldatapekoak sektore publikoan | 11,5 | 24,4 |
| Soldatapekoak sektore pribatuan | 65,7 | 61,7 |

## 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **1. HELBURUA**<br><br>**Emakumeen eta gizonen egoera ekonomikoa ezagutzea eta enplegu-politikek bi sexuetan duten eragin desberdina ebaluatzea.** | **1.1. neurria**<br><br>Emakumeen eta gizonen lan-egoera aztertzea, benetan zer alde dauden zehazteko. | **1.1.1. jarduketa**<br>Eustat erakundean eskura dauden aldizkako estatistikak aztertzea, berariazko datu-ustiapenak egiteko, Arabako Lurralde Historikoko emakumeek eta gizonek egoera sozioekonomikoan dituzten aldeak hobeto ezagutze aldera, eta aldagai berriak edo laginen aldaketak eskatzea, behar izanez gero. | ▪ Eskatutako ustiapen estatistikoen kopurua eta mota.<br>▪ Eskatutako aldagai berrien kopurua eta mota.<br>▪ Eskatutako lagin-aldaketen kopurua eta mota. |
| | | **1.1.2. jarduketa**<br>Foru Aldundian lan-merkatuari buruz egiten diren azterlanetan, etxeko lanak soilik egiten dituzten pertsonak aipatzeko "biztanleria ez-aktiboa" kalifikazioa baztertzea eta haien egoera bereizteko behar diren kategoriak sortzea. | ▪ Etxeko lanak soilik egiten dituzten pertsonak aipatzeko ezarritako kategoriak.<br>▪ Zenbat azterlanetan ezarri den kategoria berriren bat "biztanleria ez-aktiboa" kalifikazioaren ordez. |
| | | **1.1.3. jarduketa**<br>Lan-merkatuko partaidetzari eta egoerari dagokienez, emakumeen eta gizonen arteko aldeak eta berauek bizi-kalitatean duten eragina aztertzea. | ▪ Egindako azterketen kopurua.<br>▪ Aztertutako alderdiak.<br>▪ Aztertutako taldearen profila.<br>▪ Azterketaren edo azterketen estaldura. |
| | | **1.1.4. jarduketa**<br>Emakumezko enpresaburuen egoera eta beharrizanak aztertzea eta estatistiketan agertuko direla bermatzea, "sexua" aldagaia sartuz datu-baseetan (adibidez, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kudeatzeko datu-basean). | ▪ Egindako azterketen kopurua.<br>▪ Aztertutako alderdiak.<br>▪ Azterketaren edo azterketen estaldura. |
| | | **1.1.5. jarduketa**<br>Ezkutuko ekonomian eta kolokako lanpostuetan zenbat emakume ari diren eta egoera horrek haien bizi-baldintzetan nolako eragina duen aztertzea, sektoreka. | ▪<br>▪ Egindako azterketen kopurua.<br>▪ Aztertutako alderdiak.<br>▪ Azterketaren edo azterketen estaldura. |
| | | **1.1.6. jarduketa**<br>Emakumeen egoera eta beharrizanak aztertzea Gizarte Segurantzako araubide berezietan, batez ere Etxeko Zerbitzuan ari diren langileei aplikatzen zaien araubidean eta Nekazaritzako Araubide Berezian. | ▪ Egindako azterketen kopurua.<br>▪ Aztertutako alderdiak.<br>▪ Azterketaren edo azterketen estaldura. |

# 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

## EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK |
|---|---|---|
| ▪ 16 urtetik gorako emakumeen eta gizonen artean jarduera-, okupazio- eta langabezia-tasetan dauden aldeak. | Eustat | 16 urtetik gorako emakumeen eta gizonen artean jarduera-, okupazio- eta langabezia-tasetan dauden aldeak (2004ko lehen hiruhilekoa) |

**16 urtetik gorako emakumeen eta gizonen artean jarduera-, okupazio- eta langabezia-tasetan dauden aldeak (2004ko lehen hiruhilekoa)**

| *Tasa mota* | *Gizonak* | *Emakumeak* |
|---|---|---|
| Jarduera-tasa | 68,2 | 49,1 |
| Enplegu-tasa | 64,7 | 43,5 |
| Langabezia-tasa | 7,8 | 11,4 |

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA |
|---|---|
| ▪ 16 eta 64 urte bitarteko emakumeen eta gizonen arteko aldeak, jarduerari dagokionez, Arabako eskualdeetan. | Eustat |

**16 eta 64 urte bitarteko emakumeen eta gizonen arteko aldeak, jarduerari dagokionez, Arabako eskualdeetan (2003)**

| **Eskualdea** | **Jarduera-tasa** | | **Langabezi tasa** | | **Enplegu koef.** | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | *G* | *E* | *G* | *E* | *G* | *E* |
| Arabako Ibarrak | 85,5 | 60,4 | 3,7 | 13,9 | 82,4 | 52,0 |
| Lautadako gainerakoak | 91,0 | 69,9 | 2,9 | 21,1 | 88,4 | 55,1 |
| Vitoria-Gasteiz | 88,0 | 45,8 | 1,3 | 11,8 | 86,8 | 40,4 |
| Arabako Mendialdea | 81,3 | 58,0 | 6,1 | 24,6 | 76,3 | 43,8 |
| Arabako Errioxa | 81,8 | 71,1 | 8,1 | 14,3 | 75,2 | 61,0 |

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA |
|---|---|
| ▪ 16 urtetik gorako emakumeen eta gizonen arteko aldeak, sektore ekonomikoetan parte hartzeari dagokionez. | Eustat |

**16 urtetik gorako emakumeen eta gizonen arteko aldeak, sektore ekonomikoetan parte hartzeari dagokionez (2004ko lehen hiruhilekoa)**

| *Sektore ekonomikoak* | *Gizonak* | *Emakumeak* |
|---|---|---|
| Nekazaritza-abeltzaintza eta arrantza | 5,3 | 4,0 |
| Industria | 44,3 | 13,7 |
| Eraikuntza | 11,6 | 1,1 |
| Zerbitzuak | 38,8 | 81,2 |

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA |
|---|---|
| ▪ Emakumeen eta gizonen arteko aldeak lanbide-egoerari dagokionez, 16 urtetik aurrerako biztanle landunen artean. | Eustat |

**Emakumeen eta gizonen arteko aldeak, lanbide-egoerari dagokionez, 16 urtetik aurrerako biztanle landunen artean (2004ko lehen hiruhilekoa)**

| *Lanbide-egoera* | *Gizonak* | *Emakumeak* |
|---|---|---|
| Enplegu-emaileak | 3,3 | 0,4 |
| Langile autonomoak | 16,6 | 10,8 |
| Famili laguntzak | 0,4 | 1,3 |
| Kooperatibetako kideak | 2,5 | 1,4 |
| Soldatapekoak sektore publikoan | 11,5 | 24,4 |
| Soldatapekoak sektore pribatuan | 65,7 | 61,7 |

### INFORMAZIOAREN BALORAZIOA

- Lan-merkatuko adierazle nagusiek agerian jartzen dute alde handiak daudela emakumeen eta gizonen artean, eta emakumeen egoera txarragoa dela eremu horretan. Arabako Lurraldeko eremu guztietan daude aldeak, estatistika arrunten arabera. Horregatik, behar-beharrezkoa da desberdintasun horien arrazoiak aztertzea, emakumeen eta gizonen egoera berdintzeko behar diren neurriak jarri ahal izateko.
- Bestalde, datuek erakusten dutenez, soldatapean lan egiten duten emakumeen proportzioa handiagoa da gizonezkoena baino, eta emakume gehienek zerbitzuen sektorean dihardute.

| 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN | | | |
|---|---|---|---|
| **HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA** | | | |
| **HELBURUAK** | **NEURRIAK** | **JARDUKETAK** | **JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA** |
| | | **1.1.7. jarduketa**<br>Aldian-aldian parte hartzeko eta eztabaidatzeko guneak antolatu daitezen sustatzea, horietan honelako gaiak aztertu ahal izateko: emakumeen eta gizonen arteko aldeak lan-merkatuan, emakumeen enpresa-jarduera, eta ezkutuko ekonomian lan egiten duten emakumeen egoera. | ▪ Parte-hartzea eta eztabaida sustatzeko antolatu diren jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Aztertutako gaiak.<br>▪ Parte-hartzaileen kopurua eta ezaugarriak. |
| **1. HELBURUA**<br>**Emakumeen eta gizonen egoera ekonomikoa ezagutzea eta enplegu-politikek bi sexuetan duten eragin desberdina ebaluatzea.** | **1.2. neurria**<br>Azterketen emaitzen berri zabaltzea. | **1.2.1. jarduketa**<br>Enplegu gaiei buruz egindako azterlanen kopia ematea Eusko Jaurlaritzan arlo horretan eskumena duen sailari, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eta eragile laguntzaileei, udalei eta udalen elkarteei, batez ere laneratzearen arloan badihardute, eta halaber, lan-merkatuaren inguruko gaietan espezializaturik dauden beste erakunde publiko eta pribatu batzuei. | ▪ Enplegu gaiei buruz egin diren azterlanen kopurua.<br>▪ Emandako kopien kopurua, eta erakunde hartzaileak. |
| | | **1.2.2. jarduketa**<br>Azterlanak argitaratu direla jakinarazi eta haien emaitza nagusiak azaltzea, ikus-entzunezko eta idatzizko komunikabideen bitartez. | ▪ Azterlanen emaitzak aditzera emateko egin diren zabalkunde-jardueren kopurua eta mota.<br>▪ Onuradunen kopurua eta ezaugarriak.<br>▪ Hedabideak. |
| | | **1.2.3. jarduketa**<br>Egindako azterlanak Arabako Foru Aldundiaren web orrian sartzea, testu osoa eta datu nagusien laburpena zuzenean eskura jarriz. | ▪ Egindako azterlanak AFAren web orrian jarri direla egiaztatzea. |

## 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Berdintasun printzipioa kontuan hartzen duten programak, enpleguaren, ekonomi sustapenaren eta prestakuntzaren arlokoak. | AFA | ▪ Arabako enpresa ertain eta txikien lehiakortasuna hobetzeko laguntza programak (PROMECO).<br>▪ Enpresa unitate berriak sustatzeko programa (PRONUE).<br>▪ Enpresetan prestakuntza ezartzeko laguntzen programa.<br>▪ Irabazteko asmorik gabeko erakundeetan prestakuntza ezartzeko laguntzen programa.<br>▪ Arabako Lurralde Historikoan 20.000 biztanle baino gutxiago duten toki erakundeentzako laguntzak, pertsona edo talde ahulak gizarteratu eta horiei arreta soziala eskaintzeko gizarteratze-programak aurrera eraman ditzaten. | ▪ Dagoeneko badira emakumeen onurarako laneratze programak, emakumeen eta gizonen artean lanmerkatuan dauden aldeak murriztea helburu dutenak. Hala ere, enpleguaren eta prestakuntzaren arloetako politiketan genero-ikuspegiari eutsi behar zaio, edo/eta sendotu egin behar da, eta emakumeen laneratzea sustatu. |
| ▪ Oso egoera zailean dauden kolektiboak gizarteratu eta laneratzeko beste programa eta zerbitzu batzuk . | AFA | ▪ Baztertuta daudenak laneratzeko jardueren programa (GOFEk eta Euskadiko Birgizarteratze Institutuak (EBI) sinatutako lankidetza-hitzarmena: 45 emakume eta 8 gizon).<br>▪ Baztertuta daudenak laneratzeko tailerren programak (Arabako Foru Aldundiaren, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta elizbarrutiko Caritas erakundearen arteko lankidetza-hitzarmena).<br>▪ Egoera ahulean daudenei laneratzen laguntzeko bitartekotza-programa (Arabako Foru Aldundiaren eta SARTU Gizarteratze Elkartearen arteko lankidetza-hitzarmena). | |
| ▪ Eusko Jaurlaritzak enplegua sustatzeko sortutako beste programa batzuk, emakumeen kolektiboa lehenesten dutenak. | Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila | ▪ Enplegurako laguntza-neurriak.<br>▪ Kooperatibetako enplegurako laguntzak.<br>▪ Autoenpleguaren sustapena.<br>▪ Laneratzeko laguntzen programa.<br>▪ Ekonomia sozialeko enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak.<br>▪ Enplegu-sorgune berrietan enpresak sortu eta indartzeko laguntzak.<br>▪ Lanaldia banatzeko eta kontratu mugagabeak egiteko laguntzak. | |

## 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **2. HELBURUA**<br><br>**Emakumeak lan merkatuan errazago sartzeko bideak ezartzea.** | **2.1. neurria**<br><br>Emakumeei lan-merkatuan sartzeko bultzada ematea. | **2.1.1. jarduketa**<br><br>Ikus-entzunezko eta idatzizko komunikabideetan kanpainak egitea, lan-merkatuan benetan sartu nahi duten emakumeei adore emateko INEMen edota Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta berari laguntzen dioten erakundeen bulegoetan izena eman dezaten. | ▪ Lan-merkatuan sartu nahi duten emakumeei adore emateko egindako zabalkunde-jardueren kopurua eta mota.<br>▪ Zabaldutako jardueren edukia.<br>▪ Hedabideak. |
| | | **2.1.2. jarduketa**<br><br>Emakume gazteei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egitea, menpekotasun ekonomikorik ez izateak eta lanerako gai izateak norberaren askatasunerako oinarrizko faktore gisa duten garrantziaz jabetu daitezen. | ▪ Egindako sentsibilizazio-jardueren kopurua eta mota.<br>▪ Hedabideak. |
| | **2.2. neurria**<br><br>Lanbide-orientazioko, lana bilatzeko eta laneratzeko ibilbideak hautatzeko prozeduretan genero-ikuspegia sar dadin sustatzea. | **2.2.1. jarduketa**<br><br>Eskumena duten administrazioekin lankidetzan aritzea, laneratzeko ibilbide pertsonalak osatzeko orduan erabiltzen diren tresnak genero-ikuspegiaren arabera egokitzen. | ▪ Ibilbide pertsonalak osatzeko tresnak egokitze aldera elkarlanean egin diren jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Genero-ikuspegiaren arabera egokitutako tresnen kopurua eta mota. |
| | | **2.2.2. jarduketa**<br><br>Berdintasunerako praktika egokiei dagozkien esperientziak trukatzeko babesa ematea, lanbide-orientazioaren eta enplegu bilaketaren arloetan. | ▪ Berdintasunerako praktika egokien trukeen kopurua eta mota, lanbide-orientazioaren eta enplegu bilaketaren arloetan. |

| 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN | | | |
|---|---|---|---|
| **EGOERAREN DIAGNOSTIKOA** | | | |
| **DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK** | **DATUEN ITURRIA** | **DATUAK** | **INFORMAZIOAREN BALORAZIOA** |
| ▪ Berdintasun printzipioa kontuan hartzen duten programak, enpleguaren, ekonomi sustapenaren eta prestakuntzaren arlokoak. | AFA | ▪ Arabako enpresa ertain eta txikien lehiakortasuna hobetzeko laguntza programak (PROMECO).<br>▪ Enpresa unitate berriak sustatzeko programa (PRONUE).<br>▪ Enpresetan prestakuntza ezartzeko laguntza programa.<br>▪ Irabazteko asmorik gabeko erakundeetan prestakuntza ezartzeko laguntzen programa.<br>▪ Arabako Lurralde Historikoan 20.000 biztanle baino gutxiago duten toki erakundeentzako laguntzak, norbanako edo talde ahulak gizarteratu eta horiei arreta soziala eskaintzeko gizarteratze-programak aurrera eraman ditzaten. | ▪ Dagoeneko badira emakumeen onurarako laneratze programak, emakumeen eta gizonen artean lanmerkatuan dauden aldeak murriztea helburu dutenak. Hala ere, enpleguaren eta prestakuntzaren arloetako politiketan genero-ikuspegiari eutsi behar zaio, edo/eta sendotu egin behar da, eta emakumeen laneratzea sustatu. |
| ▪ Oso egoera zailean dauden kolektiboak gizarteratu eta laneratzeko beste programa eta zerbitzu batzuk. | AFA | ▪ Baztertuta daudenak laneratzeko jardueren programa (GOFEk eta Euskadiko Birgizarteratze Institutuak (EBI) sinatutako lankidetza-hitzarmena: 45 emakume eta 8 gizon).<br>▪ Baztertuta daudenak laneratzeko tailerren programak (Arabako Foru Aldundiaren, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta elizbarrutiko Caritas erakundearen arteko lankidetza-hitzarmena).<br>▪ Egoera ahulean daudenei laneratzen laguntzeko bitartekotza-programa (Arabako Foru Aldundiaren eta SARTU Gizarteratze Elkartearen arteko lankidetza-hitzarmena). | |
| ▪ Eusko Jaurlaritzak enplegua sustatzeko sortutako beste programa batzuk, emakumeen kolektiboa lehenesten dutenak. | Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila | ▪ Enplegurako laguntza-neurriak.<br>▪ Kooperatibetako enplegurako laguntza.<br>▪ Autoenpleguaren sustapena.<br>▪ Laneratzeko laguntzen programa.<br>▪ Ekonomia sozialeko enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak.<br>▪ Enplegu-sorgune berrietan enpresak sortu eta indartzeko laguntzak.<br>▪ Lanaldia banatzeko eta kontratu mugagabeak egiteko laguntzak. | |

## 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **2. HELBURUA**<br><br>**Emakumeak lan merkatuan errazago sartzeko bideak ezartzea.** | | **2.2.3. jarduketa**<br><br>Sindikatuekin eta enpresa-erakundeekin elkarlanean jardutea, lan-merkatuan sartzeko arreta eta aholkularitza programak garatzen emakumeentzat. | ▪ Sindikatu eta enpresa-erakundeekin elkarlanean emakumeentzat egindako arreta eta aholkularitza programen kopurua eta mota.<br>▪ Programen barruko jarduketa-motak.<br>▪ Emakume onuradunen kopurua eta ezaugarriak.<br>▪ Programen estaldura. |
| | **2.3. neurria**<br><br>Lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten emakume-kolektiboen laneratzea erraztea. | **2.3.1. jarduketa**<br><br>Lanerako gaikuntza-prozesuetan ahalik aprobetxamendurik onena lortu ahal izateko aldez aurretik garatu behar diren jarrerak, ohiturak eta trebeziak lantzeko ekintzak sustatzea eta abian jartzen laguntzea; ekintza horien onuradunak baliabide pertsonal eta sozialen gabezia, motibazio galera edota autoestimu txikia duten emakumeen kolektiboak izango dira. | ▪ Diseinatutako laguntza ekonomikoen motak.<br>▪ Laguntzak emateko baldintzak.<br>▪ Emandako laguntzen kopurua.<br>▪ Hartzaileen kopurua eta ezaugarriak.<br>▪ Emandako laguntzen zenbatekoa. |
| | | **2.3.2. jarduketa**<br><br>Emakume langabeen kontratazioa sustatzeko laguntzak ezartzea, landa aldeetan bizi diren emakumeak bereziki kontuan hartuz. | ▪ Laguntzen kopurua eta mota.<br>▪ Emakume onuradunen kopurua.<br>▪ Enpresa onuradunen kopurua. |
| | | **2.3.3. jarduketa**<br><br>Ezgaitasunen bat duten emakumeen laneratzea sustatzea. Horretarako sentsibilizazio kanpainak egingo dira, emakume interesatuaren kolektiboari berari, enpresa eta sindikatuei eta gizarte osoari zuzenduak. | ▪ Egindako sentsibilizazio kanpainen kopurua eta mota.<br>▪ Zabaldutako jardueren edukia.<br>▪ Hedabideak.<br>▪ Erabilitako materialak. |

## 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Berdintasun printzipioa kontuan hartzen duten programak, enpleguaren, ekonomi sustapenaren eta prestakuntzaren arlokoak | AFA | ▪ Arabako enpresa ertain eta txikien lehiakortasuna hobetzeko laguntza programak (PROMECO).<br>▪ Enpresa unitate berriak sustatzeko programa (PRONUE).<br>▪ Enpresetan prestakuntza ezartzeko laguntzen programa.<br>▪ Irabazteko asmorik gabeko erakundeetan prestakuntza ezartzeko laguntzen programa.<br>▪ Arabako Lurralde Historikoan 20.000 biztanle baino gutxiago duten toki erakundeentzako laguntzak, norbanako edo talde ahulak gizarteratu eta horiei arreta soziala eskaintzeko gizarteratze-programak aurrera eraman ditzaten. | ▪ Dagoeneko badira emakumeen onurarako laneratze programak, emakumeen eta gizonen artean lanmerkatuan dauden aldeak murriztea helburu dutenak. Hala ere, enpleguaren eta prestakuntzaren arloetako politiketan genero-ikuspegiari eutsi behar zaio, edo/eta sendotu egin behar da, eta emakumeen laneratzea sustatu. |
| ▪ Oso egoera zailean dauden kolektiboak gizarteratu eta laneratzeko beste programa eta zerbitzu batzuk. | AFA | ▪ Baztertuta daudenak laneratzeko jardueren programa (GOFEk eta Euskadiko Birgizarteratze Institutuak (EBI) sinatutako lankidetza-hitzarmena: 45 emakume eta 8 gizon).<br>▪ Baztertuta daudenak laneratzeko tailerren programak (Arabako Foru Aldundiaren, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta elizbarrutiko Caritas erakundearen arteko lankidetza-hitzarmena).<br>▪ Egoera ahulean daudenei laneratzen laguntzeko bitartekotza-programa (Arabako Foru Aldundiaren eta SARTU Gizarteratze Elkartearen arteko lankidetza-hitzarmena). | |
| ▪ Eusko Jaurlaritzak enplegua sustatzeko sortutako beste programa batzuk, emakumeen kolektiboa lehenesten dutenak | Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila | ▪ Enplegurako laguntza-neurriak.<br>▪ Kooperatibetan enplegua ezartzeko laguntza.<br>▪ Autoenpleguaren sustapena.<br>▪ Laneratzeko laguntzen programa.<br>▪ Ekonomia sozialeko enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak.<br>▪ Enplegu-sorgune berrietan enpresak sortu eta indartzeko laguntzak.<br>▪ Lanaldia banatzeko eta kontratu mugagabeak egiteko laguntzak. | |

## 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **2. HELBURUA**<br>**Emakumeak lan merkatuan errazago sartzeko bideak ezartzea.** | **2.4. neurria**<br>Emakumeei lanerako eskaintzen zaien prestakuntza egokitzea, haien beharrizanak eta lan-merkatua-renak kontuan izanik. | **2.4.1. jarduketa**<br>Tokiko enpresekiko komunikaziorako bideak ezartzea, enplegu-arro bakoitzean emakumeek lan egiteko dituzten aukerak identifikatzeko, batez ere emakumeak gutxiegi diren jardueretan. Horrenbestez, prestakuntza-eskaintza lanerako aukera horien arabera egokituko da. | ▪ Komunikaziorako ezarritako bideen kopurua eta mota.<br>▪ Detektaturiko enplegu-arroak.<br>▪ Egindako prestakuntza-jarduera-ren kopurua eta mota.<br>▪ Prestakuntza-jardueretan parte hartu dutenetatik zenbatek aurkitu duten lana prestakuntzaren xede izan diren arloetan. |
| | | **2.4.2. jarduketa**<br>Prestakuntza-ikastaroetarako diru-laguntzak emateko irizpideetan, balorazio positiboa ematea honelako ikastaroak antolatzen dituztenei: betidanik gizonezkoek betetzen dituzten lanpostuetan aritzeko ikastaroak, informazioaren gizartearekin zerikusia dutenak, asertibitateari eta trebezia pertsonal eta sozialei buruzko moduluak dituztenak, eta enpresaburuekiko komunikaziorako bideen bitartez identifikatzen diren gainerakoak. | ▪ Diru-laguntza jaso duten prestakuntza-ikastaroetatik, sarrerako irizpideetan emakumeen partaidetzari balorazio positiboa eman zaienak zenbat diren eta zer-nolako edukia duten. |
| | | **2.4.3. jarduketa**<br>Prestakuntza-aukeren aniztasuna sustatzea, lan motaren araberako bereizkeriari aurrea hartzeko. | ▪ Lanerako prestakuntza-aukeren aniztasuna sustatzeko egindako jarduketen kopurua eta mota. |

## 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Berdintasun printzipioa kontuan hartzen duten programak, enpleguaren, ekonomi sustapenaren eta prestakuntzaren arlokoak | AFA | ▪ Arabako enpresa ertain eta txikien lehiakortasuna hobetzeko laguntza programak (PROMECO).<br>▪ Enpresa unitate berriak sustatzeko programa (PRONUE).<br>▪ Enpresetan prestakuntza ezartzeko laguntzen programa<br>▪ Irabazteko asmorik gabeko erakundeetan prestakuntza ezartzeko laguntzen programa<br>▪ Arabako Lurralde Historikoan 20.000 biztanle baino gutxiago duten toki erakundeentzako laguntzak, norbanako edo talde ahulak gizarteratu eta horiei arreta soziala eskaintzeko gizarteratze-programak aurrera eraman ditzaten | ▪ Dagoeneko badira emakumeen onurarako laneratze programak, emakumeen eta gizonen artean lanmerkatuan dauden aldeak murriztea helburu dutenak. Hala ere, enpleguaren eta prestakuntzaren arloetako politiketan genero-ikuspegiari eutsi behar zaio, edo/eta sendotu egin behar da, eta emakumeen laneratzea sustatu. |
| ▪ Oso egoera zailean dauden kolektiboak gizarteratu eta laneratzeko beste programa eta zerbitzu batzuk. | AFA | ▪ Baztertuta daudenak laneratzeko jardueren programa (GOFEk eta Euskadiko Birgizarteratze Institutuak (EBI) sinatutako lankidetza-hitzarmena: 45 emakume eta 8 gizon<br>▪ Baztertuta daudenak laneratzeko tailerren programak (Arabako Foru Aldundiaren, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta elizbarrutiko Caritas erakundearen arteko lankidetza-hitzarmena)<br>▪ Egoera ahulean daudenei laneratzen laguntzeko bitartekotza-programa (Arabako Foru Aldundiaren eta SARTU Gizarteratze Elkartearen arteko lankidetza-hitzarmena) | |
| ▪ Eusko Jaurlaritzak enplegua sustatzeko sortutako beste programa batzuk, emakumeen kolektiboa lehenesten dutenak | Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila | ▪ Enplegurako laguntza-neurriak.<br>▪ Kooperatibetan enplegua ezartzeko laguntza.<br>▪ Autoenpleguaren sustapena.<br>▪ Laneratzeko laguntzen programa.<br>▪ Ekonomia sozialeko enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak.<br>▪ Enplegu-sorgune berrietan enpresak sortu eta indartzeko laguntzak.<br>▪ Lanaldia banatzeko eta kontratu mugagabeak egiteko laguntzak. | |

## 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **2. HELBURUA**<br>**Emakumeak lan merkatuan errazago sartzeko bideak ezartzea.** | **2.5. neurria**<br>Emakumeen ekimena eta enpresa-jarduera sustatzea. | **2.5.1. jarduketa**<br>Emakume sustatzaileei enpresa proiektua diseinatzeko, haren bideragarritasuna aztertzeko eta enpresa abiarazteko orientazioa eta aholkua emateko ekintzak sustatu eta bultzatzea. | ▪ Euren enpresa sortzen ari diren emakumeei orientazioa eta aholkua emateko ekintzen kopurua eta mota.<br>▪ Pertsona edota erakunde onuradunen kopurua eta ezaugarriak. |
| | | **2.5.2. jarduketa**<br>Emakume ekintzaileei prestakuntza emateko jarduketak babestea. Jarduketa horien bitartez emakumeek enpresa errazago kudeatzeko prestakuntza jasoko dute, eta euren enpresa-jarduera garatzeko berariazko prestakuntza ere bai, bereziki teknologia berrien arlokoa. Kontuan hartuko da prestakuntza-ekintzak bateragarriak izan behar direla emakume enpresaburuen ordutegiarekin (adibidez, bide telematikotik prestakuntza eta autoprestakuntza ekintzak burutu daitezen sustatuko da). | ▪ Emakume ekintzaileei euren enpresa kudeatzeko prestakuntza eta behar duten prestakuntza berariazkoa emateko ekintzak babesteko egindako jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Pertsona edota erakunde onuradunen kopurua eta ezaugarriak. |
| | | **2.5.3. jarduketa**<br>Emakumeak enplegu-sorgune berriak diren lanbide berritzaileetarako gaitu daitezen sustatzea. | ▪ Emakumeei lanbide berritzaileetarako gaikuntza emateko sustapen-jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Pertsona edota erakunde onuradunen kopurua eta ezaugarriak. |
| | | **2.5.4. jarduketa**<br>Eskumena duten administrazioei behar diren laguntza-neurriak jartzeko eskatzea, lanbide heziketako ikastetxeetan ematen den orientazioa lagungarria izan dadin emakumeak mota guztietako lanbide-jardueretan aritzeko, baita emakumeek inoiz sarrerarik izan ez duten lanbide horietan ere. | ▪ Lanbide heziketaren esparruan orientazioa hobetzen laguntzeko hartutako neurrien kopurua eta mota. |
| | | **2.5.5. jarduketa**<br>Emakumezko ekintzaile eta enpresaburuei zuzendutako prestakuntza-programetan gogoeta-moduluak sar daitezen sustatzea, faktore psikosozialek ekintzaileen jardueran duten eraginari buruzkoak. | ▪ Ekintzaileen jardueran faktore psikosozialek duten eraginari buruzko gogoeta-moduluak zenbat prestakuntza-programatan sartu diren.<br>▪ Moduluetan aztertu diren gaiak. |
| | | **2.5.6. jarduketa**<br>Landa aldeetako emakumeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak sustatu eta babestea, honako gai hauek jorratzeko: enpresa eta merkataritza arloetako teknikak, kooperatibagintza, ekoizteko teknika berrien hobekuntza eta garapena, eta landa inguruneari lotutako jarduera ekonomikoak, besteak beste turismoa eta eskulangintza. | ▪ Landa aldeetako emakumeentzat egindako prestakuntza-ekintzen kopurua eta mota.<br>▪ Onuradunen kopurua eta ezaugarriak. |

## 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Aukera-berdintasunaren printzipioa kontuan hartzen duten programak, enpleguaren, ekonomi sustapenaren eta prestakuntzaren arlokoak. | AFA | ▪ Arabako enpresa ertain eta txikien lehiakortasuna hobetzeko laguntza programak (PROMECO).<br>▪ Enpresa unitate berriak sustatzeko programa (PRONUE).<br>▪ Enpresetan prestakuntza ezartzeko laguntzen programa.<br>▪ Irabazteko asmorik gabeko erakundeetan prestakuntza ezartzeko laguntzen programa.<br>▪ Arabako Lurralde Historikoan 20.000 biztanle baino gutxiago duten toki erakundeentzako laguntzak, norbanako edo talde ahulak gizarteratu eta horiei arreta soziala eskaintzeko gizarteratze-programak aurrera eraman ditzaten. | ▪ Dagoeneko badira emakumeen onurarako laneratze programak, emakumeen eta gizonen artean lan-merkatuan dauden aldeak murriztea helburu dutenak. Hala ere, enpleguaren eta prestakuntzaren arloetako politiketan genero-ikuspegiari eutsi behar zaio, edo/eta sendotu egin behar da, eta emakumeen laneratzea sustatu. |
| ▪ Oso egoera zailean dauden kolektiboak gizarteratu eta laneratzeko beste programa eta zerbitzu batzuk.. | AFA | ▪ Baztertuta daudenak laneratzeko jardueren programa (GOFEk eta Euskadiko Birgizarteratze Institutuak (EBI) sinatutako lankidetza-hitzarmena: 45 emakume eta 8 gizon).<br>▪ Baztertuta daudenak laneratzeko tailerren programak (Arabako Foru Aldundiaren, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta elizbarrutiko Caritas erakundearen arteko lankidetza-hitzarmena).<br>▪ Egoera ahulean daudenei laneratzen laguntzeko bitartekotza-programa (Arabako Foru Aldundiaren eta SARTU Gizarteratze Elkartearen arteko lankidetza-hitzarmena). | |
| ▪ Eusko Jaurlaritzak enplegua sustatzeko sortutako beste programa batzuk, emakumeen kolektiboa lehenesten dutenak. | Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila | ▪ Enplegurako laguntza-neurriak.<br>▪ Kooperatibetan enplegua ezartzeko laguntza.<br>▪ Autoenpleguaren sustapena.<br>▪ Laneratzeko laguntzen programa.<br>▪ Ekonomia sozialeko enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak.<br>▪ Enplegu-sorgune berrietan enpresak sortu eta indartzeko laguntzak.<br>▪ Lanaldia banatzeko eta kontratu mugagabeak egiteko laguntzak. | |

## 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| | | **2.5.7. jarduketa**<br>Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan emakumeak titularkide edo titular izateak ekar ditzakeen zerga onuren eta lan-arloko abantailen berri ematea. | ▪ Egindako informazio-jardueren kopurua eta mota.<br>▪ Emandako informazio mota. |
| | | **2.5.8. jarduketa**<br>Emakumeek sustaturiko enpresa-ekimenak babestea, diru-laguntza emanez eraketa gastuetarako, aktiboetan egiten diren inbertsioetarako eta funtzionamendu gastuetarako. | ▪ Diru-laguntzak ezarri direla egiaztatzea.<br>▪ Sustaturiko enpresa-ekimenen kopurua. |
| | | **2.5.9. jarduketa**<br>Emakumeek sustaturiko kooperatibak eta lan-sozietate anonimoak eratu eta sendotzeko pizgarriak ezartzea. | ▪ Pizgarriak emateko egindako jardueren kopurua eta mota.<br>▪ Kooperatiba eta lan-sozietate anonimo onuradunen kopurua. |
| | | **2.5.10. jarduketa**<br>Emakume enpresaburuei laguntzak emateko orduan, ondoko baldintzetako baten bat betetzen duten taldeak lehenestea:<br>▪ Lanpostua lehenengoz izango duten emakumeak.<br>▪ Landa aldeetan bizi eta lan egiten duten emakumeak.<br>▪ Partekatu gabeko familia-ardurak dituzten emakumeak.<br>▪ Lanik egin gabe luzaroan egon ondoren lan-merkatuan berriro sartzen saiatzen ari diren emakumeak. | ▪ Emakume enpresaburuei laguntzak ematerakoan aipatutako baldintzetako baten bat betetzen duten ekimenak lehenesten direla egiaztatzea. |
| | | **2.5.11. jarduketa**<br>Emakumeen enpresa-ekimenak eratu eta sendotzeko finantzaketa-formulak sustatu eta babestea, batez ere laguntzen funtsak, eta kreditu onuragarriak edota abalik gabeko kredituak emateko banku-erakundeekin egiten diren hitzarmenak. | ▪ Azterketa edo azterketa-multzoa egin dela egiaztatzea.<br>▪ Azterketaren edo azterketen emaitza nagusiak.<br>▪ Sustaturiko finantzaketa-formulen kopurua eta mota. |
| | | **2.5.12. jarduketa**<br>Enpresak sortzeko laguntzak, autoenplegurako laguntzak, emakumeak kontratatzekoak eta abarrekoak emakume-kolektiboen benetako egoerari egokitzen ote zaizkion aztertzea, honako alderdi hauek kontuan hartuz, besteak beste: irisgarritasuna, erabilera-portzentajeak, antzemandako eragozpen edo oztopoak, arrakasta-portzentajea, balizko neurri zuzentzaileak eta egokitzat jotzen diren beste alderdi batzuk. | ▪ Azterketa egin dela egiaztatzea.<br>▪ Azterketatik ateratako ondorio nagusiak. |

## 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<table>
<tr><th>DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK</th><th>DATUEN ITURRIA</th><th colspan="3">DATUAK</th><th>INFORMAZIOAREN BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td rowspan="5">▪ Kontratu motari dagokionez, 16 urte baino gehiago izan eta soldatapean lan egiten duten emakumeen eta gizonen artean dauden aldeak, kooperatibistak kontuan hartu gabe.</td><td rowspan="5">Eustat</td><td colspan="3">Kontratu motari dagokionez, 16 urte baino gehiago izan eta soldatapean lan egiten duten emakumeen eta gizonen artean dauden aldeak, kooperatibistak kontuan hartu gabe (2004ko lehen hiruhilekoa)</td><td rowspan="5">▪ Datuek erakusten dutenez, lan-baldintzetan emakumeak oraindik gizonengandik urrun daude. Ondoko taulan ageri denez, mugagabeak ez diren kontratu motak gehiago egiten zaizkie emakumeei gizonei baino.</td></tr>
<tr><td>Kontratu mota</td><td>Gizonak</td><td>Emakumeak</td></tr>
<tr><td>Mugagabea-finkoa</td><td>79,3</td><td>62,5</td></tr>
<tr><td>Aldi baterakoa</td><td>20,1</td><td>30,4</td></tr>
<tr><td>Kontraturik gabe, eta beste batzuk</td><td>0,7</td><td>7,1</td></tr>
</table>

# 2. ARLOA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BIZITZA EKONOMIKOAN

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **3. HELBURUA**<br>**Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak berdindu daitezen sustatzea.** | **3.1. neurria**<br>Enpresaburuak sentsibilizatzea, emakumeen eta gizonen lan-baldintzak benetan berdindu ditzaten. | **3.1.1. jarduketa**<br>Helburu honekin administrazio publikoek enpresa-erakundeekin lankidetzan ematen dituzten laguntzen eta egiten dituzten programen berri zehatza ematea. | ▪ Hainbat administrazio publikok emakumeen lan-baldintzak hobetzeko ematen dituzten laguntzen eta egiten dituzten programen bilduma egitea.<br>▪ Ildo horretan egindako informazio-jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Erabilitako materialak.<br>▪ Hedabideak. |
| | **3.2. neurria**<br>Enpresetan berdintasun planak ezar daitezen sustatzea. | **3.2.1. jarduketa**<br>Enpresekin lankidetzan aritzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planak ezarri eta garatu ditzaten, enpresa bakoitzaren berezitasunei egokituta. Bermatu egin behar zaie laguntza teknikoa jasoko dutela eta plana diseinatu, abiarazi eta aplikatzeko behar diren sustapen-neurriak hartuko direla. | ▪ Laguntza teknikoa bermatzeko eta berdintasun planak abian jar daitezen sustatzeko egin diren jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Enpresa eta langile onuradunen kopurua. |
| | | **3.2.2. jarduketa**<br>Pertsona batek edo pertsona-talde batek berdintasunaren eragilea izateko prestakuntza jaso dezan sustatzea, batez ere enpresa handietan. Horretarako bekak edo diru-laguntzak emango dira eta beste finantzabide egoki batzuk proposatuko dira. | ▪ Prestakuntzarako laguntzen motak.<br>▪ Enpresa onuradunen kopurua.<br>▪ Berdintasunaren eragile izateko prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua. |
| | | **3.2.3. jarduketa**<br>Enpresa txiki eta ertainetan ekintza positiborako neurriak har daitezen sustatzea; adibidez, emakumeen maila-igoera eta lanbide-sustapena bultzatu, enpresen soldata-politikak ebaluatu eta antzematen diren desberdintasunak zuzendu, edo ordutegien eta lanaldiaren malgutasuna areagotu. | ▪ Enpresek ekintza positiboko neurriak har ditzaten pizgarriak emateko egin diren jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Pizgarrien onura jaso duten enpresen eta pertsonen kopuruak. |
| | | **3.2.4. jarduketa**<br>Emakume landunen lanbide-gaitasuna hobetuko duten prestakuntza-ekintzak sustatzea, arreta berezia emanez antolaketa-eredu, buruzagitza-estilo eta ekoizpen-modu berriei. | ▪ Emakume landunen lanbide-gaitasuna hobetzeko prestakuntza-ekintzen kopurua eta mota.<br>▪ Emakume onuradunen kopurua eta ezaugarriak. |
| | | **3.2.5. jarduketa**<br>Ohiz kanpoko kontratu mota (lanaldi partzialekoa, asteburuetakoa eta beste batzuk) duten emakumeek enpresetan antolatzen diren prestakuntza-ikastaroetan parte har dezaten sustatzea. | ▪ Enpresaburuei eskaintzen zaien pizgarrien kopurua eta mota.<br>▪ Ohiz kanpoko kontratu mota izanik prestakuntza-ikastaroetara joan diren emakumeen kopurua. |
| | **3.3. neurria**<br>Bizitza ekonomikoan emakumeek duten egoera aztertzea. | **3.3.1. jarduketa**<br>Gaurko zerga sisteman eta Gizarte Segurantzan gizonen eta emakumeen artean dauden aldeak aztertzea, bai eta eskubideak banan aplikatzeak ekar ditzakeen ondorioak ere. | ▪ Azterketa egin dela egiaztatzea.<br>▪ Lortutako emaitza nagusiak.<br>▪ Gomendio nagusiak |

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

**DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK**

- Zeregin mota bakoitzean emakumeek eta gizonek zenbat denbora ematen duten egunean.

**DATUEN ITURRIA**

Eustat

**DATUAK**

**Zenbait jardueratan batez beste zenbat denbora ematen den egunean, Araban, 2003an**

**(orduak.minutuak)**

| *Jarduera mota* | *Gizonak* | *Emakumeak* |
|---|---|---|
| Etxeko zereginak | 1,08 | 3,36 |
| Etxekoak zaintzea | 0,16 | 0,27 |
| Lana eta prestakuntza | 4,25 | 2,47 |
| Gizarteko jarduerak | 0,56 | 0,44 |
| Aisiako jarduerak eta kirola | 1,16 | 1,09 |

**INFORMAZIOAREN BALORAZIOA**

Batez beste, emakumeek egunean lau ordu ematen dituzte etxeko lanak egiten eta etxekoak zaintzen; gizonek, berriz, ordu eta laurden ematen dute. Lanean eta prestakuntzan, aldiz, emakumeek baino bi bider denbora gehiago ematen dute gizonek. Gainera, emakumeek baino denbora gehiago ematen dute gizarteko eta aisialdiko jardueretan.

Etxeko zereginak egoki banatzea ezinbestekoa da bizitza pertsonala, familiako ardurak eta lana bateratu ahal izateko. Bi sexuetako pertsonek haurtzaroan eta nerabezaroan hartu behar dute gaitasuna, helduaroan euren betebehar pertsonalak, familiako zereginak eta lanekoak autonomiaz eta arduraz betetzeko. Horrek izugarrizko garrantzia du. Komeni da haur eta gazteek gaitasun hori zuzenean lantzea ikastetxean eta gizarte eta aisiako inguruneetan, eta zeharka ere bai, gurasoen eta irakasleen bitartez.

# 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **1. HELBURUA**<br><br>**Zeregin desberdinetan ematen den denborari dagokionez generoaren arabera dauden aldeak murriztea eta etxeko arduren banaketa sustatzea.** | **1.1. neurria**<br><br>Sentsibilizazio kanpaina edo programak egitea, jendea etxeko zereginak banatu beharraz jabetu dadin. | **1.1.1. jarduketa**<br><br>Ondoko jardueretan ematen den denborari buruzko informazioa biltzea<br>- etxeko zereginak<br>- etxekoak zaintzea<br>- lan ordaindua eta prestakuntza<br>- gizarteko jarduerak<br>- aisiako jarduerak eta kirola<br>kontuan izanik adina, sexua, seme-alaben kopurua eta amaren/aitaren kargura dauden seme-alaben kopurua (12 urtetik beherakoak). | ▪ Arabako denbora sozialaren aurrekontuei buruzko datuak biltzea, adinaren, sexuaren eta amaren/aitaren kargura dauden seme-alaben arabera (12 urtetik beherakoak).<br>▪ Alderik handienak zeintzuk taldetan ageri diren begiratzea. |
| | | **1.1.2. jarduketa**<br><br>Etxeko zereginak eta umeak edota inoren laguntza behar duten helduak zaintzeko ardurak banatu beharraz ohartarazteko kanpaina edo programei buruzko informazioa biltzea, batez ere ebaluatuak izan badira, eta Arabako Lurralde Historikoan egindako programa eta kanpainak ebaluatzea. | ▪ Arabatik kanpo egindako sentsibilizazio kanpaina edo programetatik egokientzat jo direnen kopurua eta mota, eta horiek hautatzeko erabilitako irizpideak. |
| | | **1.1.3. jarduketa**<br><br>Arabako Lurralde Historikoan egindako programa eta kanpainak ebaluatzea. | ▪ Araban 2004 baino lehen egindako sentsibilizazio kanpaina edo programetatik, ebaluatuak izan direnen kopurua eta mota. |
| | | **1.1.4. jarduketa**<br><br>Aurreko jarduketan aipatutako balorazioak kontuan izanik, etxeko zereginak eta inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko ardurak banatu beharraz ohartarazteko kanpaina edo programak diseinatzea, desberdintasunik handienak dituzten taldeei berariaz zuzenduak. | ▪ 2006tik 2008ra bitartean egin edo diseinatu diren kanpaina edo programen kopurua eta mota.<br>▪ Helburu diren pertsonen ezaugarriak.<br>▪ Prestatutako materialak.<br>▪ Hedabideak. |
| | | **1.1.5. jarduketa**<br><br>Arduren banaketa areagotzeko esperientziak Europako, Estatuko, autonomi erkidegoetako eta tokiko beste erakunde batzuekin truka daitezen sustatzea. | ▪ Arduren banaketa areagotzeko esperientziak trukatze aldera egin diren jarduerak. |

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Zeregin mota bakoitzean emakumeek eta gizonek zenbat denbora ematen duten egunean. | Eustat | (see table below) | Batez beste, emakumeek egunean lau ordu ematen dituzte etxeko lanak egiten eta etxekoak zaintzen; gizonek, berriz, ordu eta laurden ematen dute. Lanean eta prestakuntzan, aldiz, emakumeek baino bi bider denbora gehiago ematen dute gizonek. Gainera, emakumeek baino denbora gehiago ematen dute gizarteko eta aisialdiko jardueretan.<br><br>Etxeko zereginak egoki banatzea ezinbestekoa da bizitza pertsonala, familiako ardurak eta lana bateratu ahal izateko. Bi sexuetako pertsonek haurtzaroan eta nerabezaroan hartu behar dute gaitasuna, helduaroan euren betebehar pertsonalak, familiako zereginak eta lanekoak autonomiaz eta arduraz betetzeko. Horrek izugarrizko garrantzia du. Komeni da haur eta gazteek gaitasun hori zuzenean lantzea ikastetxean eta gizarte eta aisiako inguruneetan, eta zeharka ere bai, gurasoen eta irakasleen bitartez. |

**Zenbait jardueratan batez beste zenbat denbora ematen den egunean, Araban, 2003an**

**(orduak eta minutuak)**

| *Jarduera mota* | *Gizonak* | *Emakumeak* |
|---|---|---|
| Etxeko zereginak | 1,08 | 3,36 |
| Etxekoak zaintzea | 0,16 | 0,27 |
| Lana eta prestakuntza | 4,25 | 2,47 |
| Gizarteko jarduerak | 0,56 | 0,44 |
| Aisiako jarduerak eta kirola | 1,16 | 1,09 |

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **1. HELBURUA**<br>**Zeregin desberdinetan ematen den denborari dagokionez generoaren arabera dauden aldeak murriztea eta etxeko arduren banaketa sustatzea.** | **1.2. neurria**<br>Ardurak banatzeko sentsibilizazio eta gaikuntza programak egitea, haur, gazte eta helduei zuzenduak. | **1.2.1. jarduketa**<br>Etxeko arduren banaketarako lagungarriak diren jarduerak egitea haur eta gazteentzako udaleku eta auzolandegietan. | ▪ Etxeko arduren banaketa sustatzeko egin diren jardueren kopurua eta mota:<br>- udaleku eta auzolandegietan;<br>- adingabeentzako zentroetan;<br>- haur eta gazteentzako Aisialdiko Eskoletan;<br>- guraso eskoletan;<br>- guraso elkarteekin batera;<br>- helduei zuzenduak.<br>▪ Programak noraino diren egokiak lortu nahi den helbururako.<br>▪ Erabilitako materialen kopurua eta mota. |
| | | **1.2.2. jarduketa**<br>Adingabeentzako zentroetan, nerabeei zuzendutako gizarte eta hezkuntza programetan eta familiei zuzendutako esku-hartze programetan etxeko arduren banaketa sustatzeko programak sartzen laguntzea. | |
| | | **1.2.3. jarduketa**<br>Haur eta gazteentzako Aisialdiko Eskoletan etxeko arduren banaketa sustatzeko programak sartzen laguntzea. | |
| | | **1.2.4. jarduketa**<br>Guraso elkarteekin eta guraso eskolekin esku-hartze programak garatzea, familiako eta etxeko arduren banaketa orekatuari buruzkoak, eta banaketa egokiaren garrantzia azpimarratzea familia ugarien kasuetan. | |
| | | **1.2.5. jarduketa**<br>Etxeko lanak egiteko eta inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko arduren banaketari buruzko programak garatzea helduentzat. | |
| | | **1.2.6. jarduketa**<br>Etxeko eta familiako zereginen banaketa sustatzen duten hezkuntza-materialak egitea edo egiten laguntzea, irakasleei eta eskolan dabiltzan haur eta gazteei zuzenduak. | ▪ Etxeko arduren banaketa sustatzeko prestatu diren hezkuntza-materialen kopurua eta mota.<br>▪ Argitaratu eta banatu diren aleen kopurua.<br>▪ Materialak noraino diren egokiak lortu nahi den helbururako.<br>▪ Pertsona edo erakunde hartzaileen ezaugarriak. |

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<table>
<tr><th>DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK</th><th>DATUEN ITURRIA</th><th>DATUAK</th><th>INFORMAZIOAREN BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td>▪ Seme-alabak edukitzeak enpleguan duen eragina: gizonen eta emakumeen enplegu-tasen arteko aldea (FTEtan), 0-6 urte bitarteko (gazteena) seme-alabak dituzten 20-49 urteko pertsonen taldean eta seme-alabarik ez duten pertsonen taldean.</td><td>Eustat eta EJko Justizia, Lan eta GS Saila</td><td>
<table>
<tr><th colspan="3">Jarduera-, okupazio- eta langabezia-tasak sexuka<br>(2004ko lehen hiruhilekoa)</th></tr>
<tr><th>Tasa mota</th><th>Gizonak</th><th>Emakumeak</th></tr>
<tr><td>Jarduera-tasa</td><td>%68,2</td><td>%49,1</td></tr>
<tr><td>Okupazio-tasa</td><td>%64,7</td><td>%43,5</td></tr>
<tr><td>Langabezia-tasa</td><td>%5,1</td><td>%11,4</td></tr>
</table>
</td><td rowspan="7">Aiten eta amen jarduera- eta langabezia-tasarik ez dugu, seme-alabak edukitzeak Arabako emakumeengan eta gizonengan duen eragina baloratzeko. Hala ere, kopuru absolutuek generoaren araberako desberdintasun nabarmena erakusten dute. Emakumeen langabezia-tasa gizonena halako bi da, eta lanaldi partzialeko kontratuen proportzioa askoz handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.</td></tr>
<tr><td>▪ Seme-alabak (0-14 urtekoak) euren kargura dituzten emakumeen enplegu-tasaren eta seme-alabarik ez duten emakumeen enplegu-tasaren arteko aldea. 0-6 urteko seme-alabak eta 7-14 urtekoak bereizi dira.</td><td>Eustat eta EJko Justizia, Lan eta GS Saila</td><td rowspan="5"></td></tr>
<tr><td>▪ 0-6 urteko seme-alabak dituzten emakumeen enplegu-tasaren eta seme-alabarik ez duten emakumeen enplegu-tasaren arteko aldea, heziketa mailaren arabera (0-2 urteko seme-alabak eta 3-6 urtekoak bereizi dira)</td><td>Eustat eta EJko Justizia, Lan eta GS Saila</td></tr>
<tr><td>▪ Emakumeen enplegu-tasen arteko aldea, euren kargura 0-14 urteko zenbat seme-alaba dituzten erreparatuta (bat ere ez, bat, bi, hiru edo gehiago)</td><td>Eustat eta EJko Justizia, Lan eta GS Saila</td></tr>
<tr><td>▪ Bikotekidearekin bizi diren amen eta bakarrik bizi diren amen enplegu-tasen arteko aldea</td><td>Eustat eta EJko Justizia, Lan eta GS Saila</td></tr>
<tr><td>▪ Lanaldi partzialarekin eta lanaldi osoarekin lan egiten duten emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldeak</td><td>INEM</td></tr>
<tr><td></td><td></td><td>
<table>
<tr><th colspan="3">Lanaldi partzialarekin eta lanaldi osoarekin lan egiten duten emakumeen eta gizonen proportzioen arteko aldeak (2004)</th></tr>
<tr><th>Lanaldi mota</th><th>Gizonak</th><th>Emakumeak</th></tr>
<tr><td>Partziala</td><td>13,3</td><td>37,7</td></tr>
<tr><td>Osoa</td><td>86,7</td><td>62,3</td></tr>
<tr><td>Guztira</td><td>100,0</td><td>100,0</td></tr>
</table>
</td></tr>
</table>

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| 2. HELBURUA<br>**Lan-baldintzak hobetzea, emakumezko eta gizonezko langileek lana, ardura pertsonalak eta familiako ardurak bateratu ahal ditzaten.** | **2.1. neurria**<br>Informazio eguneratua edukitzea eta aldian behin jardueraren, langabeziaren eta lanerako prestakuntzaren tasen arteko aldeak aztertzea sexuaren arabera. | **2.1.1. jarduketa**<br>Urtero informazioa biltzea emakumeek enpleguan duten partaidetzari buruz, ama edo aita izateak laneratzeko orduan duen eraginari buruz (diagnostikorako proposaturiko adierazleak) eta seme-alaben kopuruaren eraginari buruz. | ▪ Seme-alabak edukitzeak enpleguan duen eraginari buruzko datuak biltzea. |
| | | **2.1.2. jarduketa**<br>Aldian behin ikerketak egitea, langabeziaren, jardueraren eta lanerako prestakuntzaren tasetan ageri diren aldeak generoaren eta famili egoeraren arabera aztertuz (seme-alaben kopurua ere kontuan hartuta). | ▪ Enpleguaren eta lanerako prestakuntzaren tasen bilakaerari buruz sexua, amatasuna, aitatasuna, adina eta seme-alaben kopurua kontuan hartuta azterketak egin direla egiaztatzea. |

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Aitatasun eta amatasun baimena, lanaldiaren murrizketa edo eszedentzia izan duten gizonen eta emakumeen proportzioa, lan egiten duten aiten eta amen kopuru osoen aldean. | EJko Justizia, Lan eta GS Saila | **Bizitza pertsonala, lana eta familiako ardurak bateratzeko neurrien erabilera EAEn (2003)** (see table below) | Gaur egun indarrean dauden bateratze-neurriak ez dira nahikoa, itxuraz, aldeak murrizteko. EAEko biztanleei egindako "Familia EAEn - 2002" inkestan baloraziorik onena jaso duen neurria lan ordutegien malgutasuna da. Komeni da neurri hori hedatzea, beste batzuen artean, eta gizonezkoek eszedentzia eta lanaldi murrizketa baliatu ditzaten sustatzea. Jarduketak, batez ere, desberdintasun handienak dituzten taldeei zuzendu behar zaizkie. |
| ▪ Aitatatsun edo amatasun baimena, lanaldi murrizketa edo eszedentzia izan duten gizonen eta emakumeen proportzioak, langileen kopuru osoan | EJko Justizia, Lan eta GS Saila | | |

**Bizitza pertsonala, lana eta familiako ardurak bateratzeko neurrien erabilera EAEn (2003)**

| Neurri mota | *Gizonak* | *Emakumeak* |
|---|---|---|
| Eszedentziak | %3,5 | %96,5 |
| Lanaldi murrizketak | %5,8 | %94,2 |

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| 2. HELBURUA<br>**Lan-baldintzak hobetzea, emakumezko eta gizonezko langileek lana, ardura pertsonalak eta familiako ardurak bateratu ahal ditzaten.** | **2.2. neurria**<br>Gaur egun indarrean dauden bateratze-neurriak erabiltzeko orduan gizonen eta emakumeen artean dauden aldeak murriztea. | **2.2.1. jarduketa**<br>Urtero datuak bildu eta aztertzea, bateratze-neurriak (amatasun eta aitatasun baimenak, lanaldi murrizketak eta eszedentziak) zenbat gizonek eta zenbat emakumek baliatzen dituzten ikusteko, famili egoera kontuan hartuta, bereziki seme-alaben kopurua. | ▪ Bateratze-neurrien erabilerari buruzko datuak biltzea, sexua, jarduera-mota eta lanbide-kategoria kontuan hartuta. |
| | | **2.2.2. jarduketa**<br>Enpresei pizgarriak ematea (sariak edo jendaurreko goraipamenak), bizitza pertsonala, familiako ardurak eta lana bateratzen laguntzeko neurriak har ditzaten (ordutegi malguak, urteko lanordu-kopurua, lan orduetan bilerak egitea, lantokietan haur eskolak edo haurtzaindegiak sortzea, etengabeko prestakuntzaren zati bat lan orduetan izatea, lau asteko baimena gurasoentzat...). | ▪ Enpresei pizgarriak emateko eta bizitza pertsonala, familiako ardurak eta lana bateratzen laguntzeko ekintzen kopurua eta mota. |
| | | **2.2.3. jarduketa**<br>Sindikatuei eskatzea bizitza pertsonala, familiako ardurak eta lana bateratzeko neurriak azter ditzatela. | ▪ AFAko langileen hitzarmenean bizitza pertsonala, familiako ardurak eta lana bateratzeko egin diren aldaketak. |
| | | **2.2.4. jarduketa**<br>Foru Administrazioko langileek adingabeak eta inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko eskatu ditzaketen baimen, lizentzia, lanaldi-murrizketa eta abarrekoei buruzko informazioa zabaltzea. | ▪ Informazioa zabaltzeko ekintzen kopurua eta mota.<br>▪ Erabilitako materialen kopurua eta mota.<br>▪ Hedabideak. |
| | | **2.2.5. jarduketa**<br>Foru Administrazioaren esparruan lan denbora malgutu eta berrantolatzeko behar diren neurriak ezartzea, bai eta bestelako neurriak ere, emakumeek eta gizonek bizitza pertsonala, familiako ardurak eta lana bateratu ahal ditzaten; besteak beste, ordutegi malguak, urteko ordu-kopurua, bilerak lan orduetan egitea, edo etengabeko prestakuntzaren zati bat lan orduetan izatea. | ▪ Lan denbora malgutzeko neurrien kopurua. |

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<table>
<tr><th>DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK</th><th>DATUEN ITURRIA</th><th>DATUAK</th><th>INFORMAZIOAREN BALORAZIOA</th></tr>
<tr>
<td>▪ Etxean pertsonak zaintzen ematen den denbora</td>
<td>Denbora-aurrekontuen inkesta<br><br>Eustat 2003</td>
<td>
<table>
<tr><th></th><th colspan="3">Batez besteko denbora soziala (minutu/egun)</th><th colspan="3">Batez besteko denbora parte-hartzaile bakoitzeko (minutu/egun)</th><th colspan="3">Tasa (%)</th></tr>
<tr><th></th><th>Emak.</th><th>Giz.</th><th>Guztira</th><th>Emak.</th><th>Giz.</th><th>Guztira</th><th>Emak.</th><th>Giz.</th><th>Guztira</th></tr>
<tr><td>Haurrak zaintzen</td><td>0,17</td><td>0,11</td><td>0,14</td><td>1,32</td><td>1,09</td><td>1,21</td><td>18,4</td><td>15,9</td><td>17,2</td></tr>
<tr><td>Helduak zaintzen</td><td>0,06</td><td>0,01</td><td>0,04</td><td>1,30</td><td>1,05</td><td>1,23</td><td>6,6</td><td>1,5</td><td>4,8</td></tr>
</table>
</td>
<td>Denbora zertan ematen den begiratuta, gizonen eta emakumeen arteko aldeak oso nabarmenak dira helduak zaintzen ematen den denborari dagokionez.</td>
</tr>
<tr>
<td>▪ Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako laguntza informalaren estaldura, generoaren eta eskualdearen arabera</td>
<td>Arabako Gizarte Beharrizanen Mapa (2003)</td>
<td>
Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako laguntza informalaren estaldura
<table>
<tr><th></th><th>Vitoria-Gasteiz</th><th>Arabako gainerakoak</th><th>Guztira</th></tr>
<tr><td>Gizonezko zaintzaileak</td><td>%29,7</td><td>%35,5</td><td>%31,3</td></tr>
<tr><td>Emakumezko zaintzaileak</td><td>%70,3</td><td>%64,5</td><td>%68,7</td></tr>
</table>
</td>
<td>Dauden datuen artetik berrienak hartu dira. Zaintzailearekin bizi eta 65 urte baino gehiago dituzten ezinduen zaintzaileei bakarrik dagozkie.</td>
</tr>
</table>

# 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **3. HELBURUA**<br>**Ardura pertsonalak, familiako zereginak, gizarte jarduerak eta lana bateratzen laguntzen duten gizarte zerbitzu komunitarioen estaldura eta kalitatea hobetzea.** | **3.1. neurria**<br>Laguntza sare informala babestea eta harekin lankidetzan aritzea. | **3.1.1. jarduketa**<br>Laguntza informala emateak zaintzaileei ekartzen dizkien ondorioak eta sostengu-zerbitzu desberdinen eraginak aztertzea. | ▪ Azterketa egin dela egiaztatzea.<br>▪ Zaintzaileen kopurua eta proportzioa, generoaren arabera.<br>▪ Zaintzaileen arazoen motak eta norainokoa, eta sostengu-zerbitzuetan antzemandako defizitak. |
| | | **3.1.2. jarduketa**<br>Administrazio publikoek zaintzaileen beharrizanak asetzeko abian jarritako neurriak azaltzen dituen agiria egin eta zabaltzea. | ▪ Zaintzaileei laguntzeko neurriei buruzko eskuliburua egin dela egiaztatzea.<br>▪ Edukia lortu nahi diren helburuei egokitzea.<br>▪ Argitaratu eta zabaldu diren aleen kopurua.<br>▪ Hedabideak. |
| | | **3.1.3. jarduketa**<br>Eskumena duten erakundeei ondokoa proposatzea: menpekotasuna duten senitartekoak (haurrak nahiz helduak) zaintzeko etxeko langileak kontratatzen dituzten pertsonei hobaria eman diezaietela gizarte segurantzako kuotetan. | ▪ Menpekotasuna duten etxeko haur edo helduak zaintzeko langileak kontratatzen dituzten pertsonei gizarte segurantzako gastuak kentzeko proposamena dela-eta burutu diren ekintzak. |
| | | **3.1.4. jarduketa**<br>Oinarrizko gizarte zerbitzuek erabiltzen dituzten balorazio-protokoloetan zaintzailearen beharrizanen ebaluazioa sartzea. | ▪ Menpekotasuna duten pertsonen beharrizanak ebaluatzeko protokoloan zaintzaileen beharrizanen baloraziorako prozedura sartu duten oinarrizko gizarte zerbitzuen kopurua.<br>▪ Zaintzaileen beharrizanak ebaluatzeko prozeduren egokitasuna. |
| | | **3.1.5. jarduketa**<br>Oinarrizko gizarte zerbitzuekin lankidetzan aritzeko protokoloa ezartzea, menpekotasuna duten helduak euren kargura dituzten familien arazo eta eskariei buruzko informazioa aldian-aldian biltzeko. | ▪ Zenbat OGZrekin ezarri den protokoloa. |
| | | **3.1.6. jarduketa**<br>Eskumena duten erakundeei laguntza ekonomiko berriak proposatzea, menpekotasuna duten pertsonak etxean zaintzen dituztenentzat. | ▪ Laguntza berriak sortu direla egiaztatzea. |
| | | **3.1.7. jarduketa**<br>Boluntariotza programak diseinatzea, zahar askoren bakardadeari eta segurtasun gabeziari aurre egiteko. | ▪ Diseinatu diren boluntariotza programen kopurua.<br>▪ Horietan parte hartu duten boluntarioen kopurua.<br>▪ Laguntza jaso duten zaharren kopurua. |

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren estaldura, intentsitatea eta eraginkortasuna | Arabako Gizarte Beharrizanen Mapa eta GOFE | **Estaldura**: 5,9<br>**Intentsitatea**: 22,3 ordu hileko<br>**Eraginkortasun horizontala**: 29,2<br>**Eraginkortasun bertikala**: 69,2 | ▪ Komenigarria litzateke gizarte zerbitzuen estaldurari eustea, gutxienez ere, eta haien eraginkortasuna hobetzea, menpekotasunik handiena duten pertsonentzako arreta lehenetsiz eta hobeto moldatzen direnei bestelako laguntza-zerbitzuak proposatuz: jantokiak, lagun egiteko zerbitzuak, etxean bazkaria prestatu eta arropa garbitzeko zerbitzuak, autonomia sustatzeko programak etab.<br>▪ ELZren kasuan, menpekotasunik handiena duten pertsonei arreta emateko beharrezkoa izango da intentsitatea areagotzea, hau da, erabiltzaile bakoitzeko arreta-orduen kopurua handitzea.<br>▪ ELZren ordutegiak eta menpekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroen ordutegiak malguak badira eta zentroetara joateko garraio zerbitzuak eskaintzen badira, zalantzarik gabe, zaintzaileek errazago izango dute zainketa lanak bestelako jarduerekin bateratzea. |

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **3. HELBURUA**<br><br>**Ardura pertsonalak, familiako zereginak, gizarte jarduerak eta lana bateratzen laguntzen duten gizarte zerbitzu komunitarioen estaldura eta kalitatea hobetzea.** | **3.2. neurria**<br><br>Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren estaldurari eustea, haren intentsitatea areagotzea eta kudeaketa malgutzea. | **3.2.1. jarduketa**<br><br>ELZren estaldura-tasa egokitzea, Arabako Beharrizanen Mapari buruzko azterketaren ondorioz egiten diren gomendioak kontuan hartuta (honako plan hau onesteko orduan azterketa amaitu gabe dago), lehentasuna emanez menpekotasunik handiena duten pertsonentzako arretari. | ▪ Adinekoentzako ELZren estaldura eta eraginkortasuna, eremuka. |
| | | **3.2.2. jarduketa**<br><br>Zerbitzuaren oraingo intentsitatea areagotzea. | ▪ Adinekoentzako ELZren intentsitatea, eremuka. |
| | | **3.2.3. jarduketa**<br><br>Zerbitzuaren eskaintza menpekotasuna duten pertsonen beharrei egokitzea. | ▪ Egiten den zerbitzuaren ezaugarriak menpekotasuna duten pertsonen benetako beharrizanetarako egokiak ote diren aztertzea. |
| | | **3.2.4. jarduketa**<br><br>ELZk larrialdietan ematen duen erantzuna baloratzea. | ▪ ELZren barruan larrialdietarako zerbitzua bideragarria izango litzatekeen ikusteko azterketa egin dela egiaztatzea. |

| 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA | | | |
|---|---|---|---|
| **EGOERAREN DIAGNOSTIKOA** | | | |
| **DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK** | **DATUEN ITURRIA** | **DATUAK** | **INFORMAZIOAREN BALORAZIOA** |
| ▪ Eguneko zentroen estaldura eta eraginkortasuna | Arabako Gizarte Beharrizanen Mapa eta GOFE | **Estaldura**: 0,93<br>**Eraginkortasun horizontala**: 7,01<br>**Eraginkortasun bertikala**: 85,4 | ▪ Komenigarria litzateke gizarte zerbitzuen estaldurari eustea, gutxienez ere, eta haien eraginkortasuna hobetzea, menpekotasunik handiena duten pertsonentzako arreta lehenetsiz, eta hobeto moldatzen direnei bestelako laguntza-zerbitzuak proposatuz: jantokiak, lagun egiteko zerbitzuak, etxean bazkaria prestatu eta arropa garbitzeko zerbitzuak, autonomia sustatzeko programak etab.<br>▪ ELZren kasuan, menpekotasunik handiena duten pertsonei arreta emateko beharrezkoa izango da intentsitatea areagotzea, hau da, erabiltzaile bakoitzeko arreta-orduen kopurua handitzea.<br>▪ ELZren ordutegiak eta menpekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroen ordutegiak malguak badira eta zentroetara joateko garraio zerbitzuak eskaintzen badira, zalantzarik gabe, zaintzaileek errazago izango dute zainketa lanak bestelako jarduerekin bateratzea. |

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **3. HELBURUA**<br>**Ardura pertsonalak, familiako zereginak, gizarte jarduerak eta lana bateratzen laguntzen duten gizarte zerbitzu komunitarioen estaldura eta kalitatea hobetzea.** | **3.3. neurria**<br>Eguneko laguntza zerbitzuen antolaketa eta funtzionamendua hobeto egokitzea menpekotasuna duten pertsona helduen eta haien senideen beharrizanei. | **3.3.1. jarduketa**<br>Eguneko zentroen estaldura-tasa egokitzea, Arabako Beharrizanen Mapari buruzko azterketaren ondorioz egiten diren gomendioak kontuan hartuta (honako plan hau onesteko orduan azterketa amaitu gabe dago), haren erabilpen graduaren jarraipen etengabea eginez. | ▪ Eguneko zentroen estaldura eta eraginkortasuna, eremuka. |
| | | **3.3.2. jarduketa**<br>Zentroetako garraio zerbitzuak malgutzeko aukerak aztertzea, erabiltzaileen beharrizanak bete eta haien ongizatea lortzeko, betiere zaintzaileen eta boluntarioen edo, behar izanez gero, kontratatuzko langileen laguntzarekin. | ▪ Eguneko zentroetara joateko batez besteko garraio-denbora, eremuka.<br>▪ Batez besteko garraio-denbora 30 minututik gorakoa duten eguneko zentroen kopurua, eremuka. |
| | | **3.3.3. jarduketa**<br>Ordutegiak eta egutegiak malgutzeko pizgarriak ematea, zaintzaileen lan ordutegiekin edota prestakuntza ordutegiekin bateragarriak izan daitezen. | ▪ Egutegi malgua duten eguneko zentroen kopurua, eremuka.<br>▪ Egunean 12 orduz zabalik dauden eguneko zentroen kopurua, eremuka.<br>▪ Asteburuetan zabalik dauden eguneko zentroen kopurua, eremuka.<br>▪ Urte osoan zabalik dauden eguneko zentroen kopurua, eremuka. |

## EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<table>
<tr><th>DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK</th><th>DATUEN ITURRIA</th><th colspan="3">DATUAK</th><th>INFORMAZIOAREN BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td rowspan="5">▪ Menpekotasunaren prebalentzia.</td><td rowspan="5">Arabako Gizarte Beharrizanen Mapa eta GOFE</td><td colspan="3">MENPEKOTASUNAREN PREBALENTZIA</td><td rowspan="5">▪ Eguneroko bizitzako jarduera pertsonalak egiteko gaitasunari eusten dioten 65 urtetik gorako pertsonen artean, gizonezkoek zailtasun gehiago izaten dituzte etxeko lanak egiteko.<br>▪ Menpekotasun kulturala, hau da, gizarte ohiturei eta heziketari lotuta dagoena, neurri batean zuzendu daiteke autonomia sustatzeko programen bitartez.</td></tr>
<tr><td>Prebalentzia</td><td>Gizonak</td><td>Emakumeak</td></tr>
<tr><td>Eguneroko bizitzako jarduera pertsonaletarako (EBJP).</td><td>8,9</td><td>15,5</td></tr>
<tr><td>Etxeko zereginetarako menpekotasun kulturala</td><td>10,1</td><td>3,4</td></tr>
<tr><td>Kozinatzeko menpekotasun kulturala</td><td>7,5</td><td>2,3</td></tr>
</table>

# 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| 3. HELBURUA<br><br>**Ardura pertsonalak, familiako zereginak, gizarte jarduerak eta lana bateratzen laguntzen duten gizarte zerbitzu komunitarioen estaldura eta kalitatea hobetzea.** | **3.4. neurria**<br><br>Etxean autonomiaz moldatzeko programak garatzea | **3.4.1. jarduketa**<br><br>Nagusiek eguneroko jarduerak egiteko duten menpekotasuna aztertzea, haien sexua, familia mota eta jasotzen duten laguntza formala eta informala kontuan izanik, menpekotasun kulturalak antzemateko. | ▪ Menpekotasun funtzionalaren eta kulturalaren prebalentzia. |
| | | **3.4.2. jarduketa**<br><br>Nagusiek etxeko lanetarako duten autonomia areagotzea helburu duten programak berrikustea. | ▪ Autonomia areagotzeko programak berrikusi direla egiaztatzea.<br>▪ Hautatutako programen kopurua eta mota. |
| | | **3.4.3. jarduketa**<br><br>Autonomia areagotzeko programak diseinatzea berariazko taldeentzat, antzemandako beharrizanen arabera. | ▪ Etxean moldatzeko autonomia areagotze aldera egin diren programen kopurua eta mota.<br>▪ Programak noraino diren egokiak lortu nahi diren helburuetarako.<br>▪ Programen xede diren pertsonen ezaugarriak. |

| 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA | | | |
|---|---|---|---|
| **EGOERAREN DIAGNOSTIKOA** | | | |
| **DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK** | **DATUEN ITURRIA** | **DATUAK** | **INFORMAZIOAREN BALORAZIOA** |
| ▪ Haurrentzako zerbitzuak erabiltzen dituzten 0-3 urteko haurren proportzioa. | EJko Hezkuntza Saila eta Eustat | **Haurrentzako zerbitzuak erabiltzen dituzten 0-3 urteko haurren proportzioa, adin horretako haurren guztizko kopuruaren aldean (Araba, 2002)**<br><br>%33,5 | ▪ Lan ordutegian haurrak zaintzea gurasoen lanbizitza errazteko ezinbesteko elementuetarikoa da. Zerbitzuen eskuragarritasunaz gainera, haien ordutegiak eta egutegia ere aztertu behar dira, eta laneko ordutegi eta egutegiekin bat ote datozen begiratu. Azterketa horretan kontuan hartu behar dira haurrentzako jarduera mota guztiak, haur hezkuntzako zerbitzuen osagarri direnak. |

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **3. HELBURUA**<br><br>**Ardura pertsonalak, familiako zereginak, gizarte jarduerak eta lana bateratzen laguntzen duten gizarte zerbitzu komunitarioen estaldura eta kalitatea hobetzea** | **3.5. neurria**<br><br>Haurrak zaintzeko gizarte zerbitzu komunitarioak hobetzea. | **3.5.1. jarduketa**<br><br>Haur eskolen ordutegi eta egutegiei buruzko datuak bildu eta aztertzea, eremuka, eta estaldura-defizitak antzematea. | ▪ Haurrak zaintzeko eskolen ordutegi eta egutegiei buruzko datuak biltzea, eremuka.<br>▪ Egunean 12 orduz zabalik dauden haur eskola eta haurtzaindegien kopurua, eremuka.<br>▪ Urte osoan zabalik dauden haur eskola eta haurtzaindegien kopurua, eremuka.<br>▪ Antzemandako defizitak. |
| | | **3.5.2. jarduketa**<br><br>Haur eskolek ordutegi malguak izateko eta egunean 12 orduz zabalik egoteko pizgarriak ematea. | ▪ Haur eskolei ordutegi eta egutegi zabalagoak izateko pizgarriak emate aldera burutu diren ekintzen kopurua eta mota. |
| | | **3.5.3. jarduketa**<br><br>Hezkuntza zentroetan ikastorduetatik kanpo eta oporraldietan egiten diren eskolaz kanpoko jardueren eta gizarte eta hezkuntza arloko beste jarduera-programa batzuen eskuragarritasuna aztertzea eta defizitak antzematea, eremuka. | ▪ Eskolaz kanpoko jardueren ordutegi eta egutegiei buruzko datuak biltzea, eremuka.<br>▪ Antzemandako defizitak. |
| | | **3.5.4. jarduketa**<br><br>Pizgarriak ematea ikastorduetatik kanpo eta oporraldietan aisia eta kirol programak egin daitezen, gazteen elkarte, erakunde edo taldeei diru-laguntzak emanez. | ▪ Ikastorduetatik kanpo eta oporraldietan aisia eta kirol programak egin daitezen pizgarriak emateko burututako ekintzen kopurua eta mota. |
| | | **3.5.5. jarduketa**<br><br>14 urtetik beherako haur eta nerabeek eskolaz kanpoko jarduerak nola erabiltzen dituzten jakiteko datuak bildu eta aztertzea. | ▪ Datuak biltzea.<br>▪ Datuen azterketa egiaztatzea. |
| | | **3.5.6. jarduketa**<br><br>14 urtetik beherako haur eta nerabeentzat eskolaz kanpo dauden baliabideei buruzko informazioa zabaltzea. | ▪ Ikastorduetatik kanpo eta oporraldietan egiten diren aisia eta kirol jarduera eta programei buruzko informazioa zabaltzeko burutu diren ekintzen kopurua eta mota.<br>▪ Erabilitako materialak.<br>▪ Hedabideak.<br>▪ Pertsona edo erakunde hartzaileen ezaugarriak. |

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Zerbitzu publikoak (haurrentzako zerbitzuak, Administrazioaren zerbitzuak) zabalik dauden ordutegiak | EJko Hezkuntza Saila<br><br>Arabako Foru Aldundia | • **Vitoria-Gasteizko Udalaren haur hezkuntzako eskolak, Udaleko Hezkuntza Sailaren menpekoak:**<br>- 18 zentro jardunean<br>- Ordutegi jarraitua jantoki eta guzti: 07:30-17:00<br>- Oporrak: hilabete eta erdi udan.<br><br>▪ **Eusko Jaurlaritzaren haur hezkuntzako zentroak: lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan sartutako haurtzaindegiak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpekoak.**<br>- 32 zentro jardunean (horietariko 6 Vitoria-Gasteizen eta 25 Arabako gainerako herrietan).<br>- Ordutegi jarraitua jantoki eta guzti: 09:00-17:00<br>- Oporrak: lehen eta bigarren hezkuntzan bezalatsu.<br><br>• **Haurreskola partzuergoan sartutako haur eskolak:** udal haurtzaindegiak -batez ere landa aldeetakoak- eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Nekazaritza sailen menpeko haurtzaindegiak.<br>- 14 zentro jardunean (horietariko 3 Vitoria-Gasteizen eta 11 Arabako gainerako herrietan).<br>- Ordutegi jarraitua jantoki eta guzti: 07:30-18:30<br>- Oporrak: abuztuan.<br><br>▪ **Beste udal haurtzaindegi batzuk: udalen menpeko haurtzaindegiak dira, baina ez daude sartuta Haurreskola partzuergoan.**<br>- 7 zentro jardunean (denak ere landa aldeetako herrietan).<br>- Ordutegi jarraitua jantoki eta guzti: ordutegi desberdinak dituzte; 07:30etik 08:00etara bitartean ireki eta 16:30etik 18:00etara bitartean ixten dira.<br>- Oporrak: oro har, abuztuan.<br><br>• **Haurtzaindegi pribatuak:**<br>- 27 zentro jardunean (horietariko 18 Vitoria-Gasteizen eta 9 Arabako gainerako herrietan).<br>- Ordutegi jarraitua jantoki eta guzti: ordutegi desberdinak dituzte; 07:30etik 09:00etara bitartean ireki eta 17:00etatik 18:00etara bitartean ixten dira.<br>- Oporrak: oro har, abuztuan. | |

## 3. ARLOA.- BIZITZA PERTSONALA, FAMILIAKO ARDURAK ETA LANA BATERATZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **3. HELBURUA**<br>**Ardura pertsonalak, familiako zereginak, gizarte jarduerak eta lana bateratzen laguntzen duten gizarte zerbitzu komunitarioen estaldura eta kalitatea hobetzea.** | **3.6. neurria**<br>Zerbitzu publikoen ordutegiak gizonezko eta emakumezko langileen ahalbideen arabera egokitzea. | **3.6.1. jarduketa**<br>Foru Administrazioaren menpeko zerbitzu publikoen ordutegiak etxetik kanpo lan egiten duten gizon eta emakumeen beharrizan eta ahalbideetarako egokiak diren aztertzea. | ▪ Foru Administrazioaren zerbitzu publikoen ordutegiak emakumezko eta gizonezko langileen beharrizanetarako egokiak ote diren ikusteko azterketa egin dela egiaztatzea. |
| | | **3.6.2. jarduketa**<br>Zerbitzu publikoen ordutegiak aurreko jarduketaren emaitzen arabera malgutzeko esperientziak garatzea. | ▪ Zerbitzu publikoen ordutegiak malgutzeko egindako esperientzien kopurua eta mota. |

## EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea Biltzar Nagusietan. | Emakunde | Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea Biltzar Nagusietan (2003) (see table A) | ▪ Egia da egoerak hobera egin duela, alegia, emakumeek lehen baino partaidetza handiagoa dutela botere guneetan. Hala ere, emakumeek oraindik ordezkaritza txikiegia dute eremu politiko guztietan, baita euren alderdietako zuzendaritzetan ere. Behar-beharrezkoa da, gizarte osoaren interesak bermatzearren, erabaki politikoak eta sozioekonomikoak hartzen diren tokietan emakumeek eta gizonek partaidetza berdina izan dezaten sustatzea. |
| ▪ Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldearen bilakaera Biltzar Nagusietan. | Eusko Jaurlaritza | Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldearen bilakaera Biltzar Nagusietan (1979-2003) (see table B) | |
| ▪ Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea, alderdi politikoek Biltzar Nagusietarako aurkeztutako hautagai-zerrendetako lehen bost postuetan. | Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala | Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea, alderdi politikoek Biltzar Nagusietarako aurkeztutako hautagai-zerrendetako lehen bost postuetan (2003) (see table C) | |

**Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea Biltzar Nagusietan (2003)**

| *Biltzar Nagusietarako hauteskundeak* | *Gizonak* | *Emakumeak* |
|---|---|---|
| Zerrendetan sartutako hautagaiak | 64,4 | 35,6 |
| Hautagai-zerrendetako lehen postua | 76,2 | 23,8 |
| Hautagai-zerrendetako lehen bost postuak | 69,5 | 30,5 |
| Hautaturiko pertsonak | 74,5 | 25,5 |

**Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldearen bilakaera Biltzar Nagusietan (1979-2003)**

| Urtea | *1979* | *1983* | *1987* | *1991* | *1995* | *1999* | *2003* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeen proportzioa | 10,5 | 1,9 | 13,7 | 15,7 | 13,7 | 15,1 | 25,5 |
| Gizonen proportzioa | 89,5 | 98,1 | 86,3 | 84,3 | 86,3 | 84,9 | 74,5 |

Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea, alderdi politikoek Biltzar Nagusietarako aurkeztutako hautagai-zerrendetako lehen bost postuetan (2003)

| *Alderdi politikoa* | *Gizonak* | *Emakumeak* |
|---|---|---|
| PSE-EE | 73,3 | 26,7 |
| EAJ/PNV-EA | 66,7 | 33,3 |
| EB-IU | 66,7 | 33,3 |
| Unidad Alavesa | 66,7 | 33,3 |
| Aralar | 80,0 | 20,0 |
| Gasteizko AUB | 53,3 | 46,7 |
| PP | 80,0 | 20,0 |

## 4. ARLOA.- BERDINTASUN ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEREZIKI KONTUAN HARTZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **1. HELBURUA**<br><br>**Erabaki politiko eta sozio-ekonomikoak hartzen diren tokietan emakumeek eta gizonek neurri berean parte har dezaten sustatzea.** | **1.1. neurria**<br><br>Erabaki politiko eta sozioekonomikoak hartzen diren guneetan emakumeen partaidetza areagotzeko formula bideragarriak aztertzea. | **1.1.1. jarduketa**<br><br>Azterketa eta eztabaida foroak antolatzea, erabakiak hartzen diren gune guztietan generoari dagokionez azaltzen diren aurrerapenak eta eragozpenak aztertzeko. | ▪ Antolatutako foroen kopurua eta mota.<br>▪ Aztertutako gaiak eta ateratako ondorioak.<br>▪ Parte-hartzaileen kopurua eta ezaugarriak. |
| | | **1.1.2. jarduketa**<br><br>Ardura politikoak dituzten emakume eta gizonei gogoeta eragitea aldaketarako estrategiez, kudeaketa-eredu berriez, buruzagitzaren eta parte-hartze politikoaren eredu berriez eta eredu horiek nork bere esparruan ezartzeko moduez. | ▪ Egindako jardueren kopurua eta mota.<br>▪ Jardueretatik ateratako ondo-rioak.<br>▪ Gogoetaren ondorioz egindako jarduketen kopurua eta mota. |
| | | **1.1.3. jarduketa**<br><br>Emakumeek ardurako postuen eta erabakiak hartzen diren postuen eskuraketan lortutako aurrerapenen jarraipen eta ebaluaziorako sistemak ezartzea. | ▪ Ezarritako zainketa-sistemen kopurua eta mota.<br>▪ Behatutako aldagaiak. |
| | | **1.1.4. jarduketa**<br><br>Europako beste herrialde batzuetan emakumeek eta gizonek erabaki politiko eta sozioekonomikoak hartzen diren guneetan partaidetza berdina izan dezaten aplikatu diren neurriak aztertzea. | ▪ Beste herrialdeetan aplikatutako neurriei buruzko deskripzio-azterketa egin dela egiaztatzea.<br>▪ Aztertu diren neurrietatik zein-tzuk ekar daitezkeen Arabako esparrura. |
| | | **1.1.5. jarduketa**<br><br>Kultura politikoari eta generoari buruzko azterlanen ezagutza, trukea eta zabal-kundea erraztea. | ▪ Egindako truke-esperientzien kopurua eta mota.<br>▪ Esperientzia horietan lankide izan diren erakundeak. |
| | | **1.1.6. jarduketa**<br><br>Europako hainbat herrialdetan praktika onen inguruan toki mailan garatutako esperientzien trukea erraztea. | |

## EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK |
|---|---|---|
| ▪ Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea Biltzar Nagusietan. | Emakunde | Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea Biltzar Nagusietan (2003) |
| ▪ Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldearen bilakaera Biltzar Nagusietan. | Eusko Jaurlaritza | Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldearen bilakaera Biltzar Nagusietan (1979-2003) |
| ▪ Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea, alderdi politikoek Biltzar Nagusietarako aurkeztutako hautagai-zerrendetako lehen bost postuetan. | Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala | Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea, alderdi politikoek Biltzar Nagusietarako aurkeztutako hautagai-zerrendetako lehen bost postuetan (2003) |

**Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea Biltzar Nagusietan (2003)**

| *Biltzar Nagusietarako hauteskundeak* | *Gizonak* | *Emakumeak* |
|---|---|---|
| Zerrendetan sartutako hautagaiak | 64,4 | 35,6 |
| Hautagai-zerrendetako lehen postua | 76,2 | 23,8 |
| Hautagai-zerrendetako lehen bost postuak | 69,5 | 30,5 |
| Hautaturiko pertsonak | 74,5 | 25,5 |

**Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldearen bilakaera Biltzar Nagusietan (1979-2003)**

| Urtea | *1979* | *1983* | *1987* | *1991* | *1995* | *1999* | *2003* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeen proportzioa | 10,5 | 1,9 | 13,7 | 15,7 | 13,7 | 15,1 | 25,5 |
| Gizonen proportzioa | 89,5 | 98,1 | 86,3 | 84,3 | 86,3 | 84,9 | 74,5 |

**Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea, alderdi politikoek Biltzar Nagusietarako aurkeztutako hautagai-zerrendetako lehen bost postuetan (2003)**

| *Alderdi politikoa* | *Gizonak* | *Emakumeak* |
|---|---|---|
| PSE-EE | 73,3 | 26,7 |
| EAJ/PNV-EA | 66,7 | 33,3 |
| EB-IU | 66,7 | 33,3 |
| Unidad Alavesa | 66,7 | 33,3 |
| Aralar | 80,0 | 20,0 |
| Gasteizko AUB | 53,3 | 46,7 |
| PP | 80,0 | 20,0 |

### INFORMAZIOAREN BALORAZIOA

▪ Egia da egoerak hobera egin duela, alegia, emakumeek lehen baino partaidetza handiagoa dutela botere guneetan. Hala ere, emakumeek oraindik ordezkaritza txikiegia dute eremu politiko guztietan, baita euren alderdietako zuzendaritzetan ere. Behar-beharrezkoa da, gizarte osoaren interesak bermatzearren, erabaki politikoak eta sozio-ekonomikoak hartzen diren tokietan emakumeek eta gizonek partaidetza berdina izan dezaten sustatzea.

Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago diagnostikoan ageri diren zenbakiak 2003koak direla eta testu hau 2005eko udazkenean amaitu dela; bitarte horretako bilakaera oso ona izan da, Biltzar Nagusietarako hautaturiko emakumeen proportzioa aldi labur horretan %25,5etik %33,33ra igo baita.

## 4. ARLOA.- BERDINTASUN ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEREZIKI KONTUAN HARTZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **1. HELBURUA**<br>**Erabaki politiko eta sozio-ekonomikoak hartzen diren tokietan emakumeek eta gizonek neurri berean parte har dezaten sustatzea.** | **1.2. neurria**<br>Herritarrei ohartaraztea komenigarria dela emakumeek bizitza politiko eta sozioekonomikoan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzea. | **1.2.1. jarduketa**<br>Sentsibilizazio politiko eta sozialerako kanpainak diseinatu eta kaleratzea, aurreiritziak ezabatzen eta gero eta emakume gehiagori ordezkaritza publikoko karguak eskuratzen laguntzeko. | ▪ Sentsibilizazio politiko eta sozialerako egindako jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Kanpainen xede diren pertsonen ezaugarriak.<br>▪ Erabilitako hedabideak.<br>▪ Sortutako materialen kopurua eta mota. |
| | | **1.2.2. jarduketa**<br>Biltzar Nagusietan ordezkaritza duten talde politikoen arteko adostasuna bideratu eta sustatzea, emakumeek Biltzarretan, batzordeburutzetan eta lurralde edota toki mailako beste partaidetza foro batzuetan duten erakunde-ordezkaritza areagotu dadin. | ▪ Egindako sustapen-jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Lortutako adostasunak. |

| 4. ARLOA.- BERDINTASUN ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA.<br>EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEREZIKI KONTUAN HARTZEA | | | |
|---|---|---|---|
| **EGOERAREN DIAGNOSTIKOA** | | | |
| **DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK** | **DATUEN ITURRIA** | **DATUAK** | **INFORMAZIOAREN BALORAZIOA** |
| **1.1. eta 1.2. neurrietan bezalako diagnostikoa aplikatu da** | | | |

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **1. HELBURUA**<br>**Erabaki politiko eta sozio-ekonomikoak hartzen diren tokietan emakumeek eta gizonek neurri berean parte har dezaten sustatzea.** | **1.3. neurria**<br>Emakumeen parte-hartzea areagotzeko neurriak hartzea. | **1.3.1. jarduketa**<br>Kudeaketa publikoaren esparruan, bokazio politikoa duten emakumeei adore ematea ardurako postuak har ditzaten. | ▪ Bokazio politikoa duten emakumeei ardurako postuak har ditzaten adore emateko jardueren kopurua eta mota.<br>▪ Neurri hauek abian jarri zirenetik ardurako postuak hartu dituzten emakumeen kopurua. |
| | | **1.3.2. jarduketa**<br>Trebetasun pertsonalen eta antolaketarako trebetasunen garapena sustatzea, emakumeek ardura handiagoko postuak eskuratu ahal ditzaten. | ▪ Trebetasun pertsonalen garapena sustatzen duten jardueren kopurua eta mota.<br>▪ Jarduera horien xede diren emakumeen kopurua eta ezaugarriak.<br>▪ Horrelako jarduerak egin ondoren ardura handiagoko postuak eskuratu dituzten emakumeen kopurua. |
| | | **1.3.3. jarduketa**<br>Emakumeentzat berariaz buruzagitza-eginkizunei buruzko prestakuntza ikastaroak egin daitezela sustatzea. Ikastaro horietan zuzendaritzako postuak, erabaki-postuak eta jarduera publikoko postuak eskuratzeko teknikak irakatsiko dira. | ▪ Egindako prestakuntza ikastaroen kopurua eta mota.<br>▪ Ikastaroen diseinua eta edukia.<br>▪ Jarduera horien xede diren emakumeen kopurua eta ezaugarriak.<br>▪ Horrelako jarduerak egin ondoren zuzendaritzako postuak edo erabaki-postuak eskuratu dituzten emakumeen kopurua. |
| | | **1.3.4. jarduketa**<br>Bide formalak ezartzea emakumeek berdintasunari buruzko erabaki politikoetan eta berdintasunarekin zerikusia duten arauen diseinuan eta prestaketan parte har dezaten. | ▪ Emakumeek berdintasunari buruzko jarduketa politikoetan parte har dezaten ezarri diren bide formalak. |
| | | **1.3.5. jarduketa**<br>Giza baliabideak kudeatzeko eta lana antolatzeko formula berriak sustatzea, emakumeek ardurako postuak eskuratu ahal ditzaten. | ▪ Giza baliabideak kudeatzeko onartu diren modu berriak, emakumeei ardurako postuak eskuratzeko aukera ematen dietenak. |

## 4. ARLOA.- BERDINTASUN ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEREZIKI KONTUAN HARTZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<table>
<tr><th>DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK</th><th>DATUEN ITURRIA</th><th>DATUAK</th><th>INFORMAZIOAREN BALORAZIOA</th></tr>
<tr>
<td>▪ Emakumeen proportzioa herritarren partaidetzarako kontseilu edo batzordeetan.</td>
<td>AFA</td>
<td>
Emakumeen proportzioa herritarren partaidetzarako beste kontseilu edo batzorde batzuetan.
<table>
<tr><th>Kontseiluak</th><th>Gizonak</th><th>Emakumeak</th></tr>
<tr><td>Administrazio Kontseilua</td><td>100,0</td><td>0</td></tr>
<tr><td>Elkarteen Partaidetzarako Arabako Lurralde Kontseilua</td><td>63,6</td><td>36,4</td></tr>
<tr><td>Zaharren Kontseilua</td><td>50,0</td><td>50,0</td></tr>
<tr><td>Adingabeen Kontseilua</td><td>62,5</td><td>37,5</td></tr>
<tr><td>GUZTIRA</td><td>64,3</td><td>35,7</td></tr>
</table>
</td>
<td>▪ Kontseilu edo herritarren partaidetzarako kontseilu guztietan, emakumeek ordezkari gutxiegi dituzte. Oso nabarmena da Administrazio Kontseiluaren kasua: bertan ez dago emakume bat bera ere. Emakumeek ordezkaritza urria ez duten kasu bakarra Zaharren Kontseilua da, bertan emakumeek gizonen pareko partaidetza baitute.</td>
</tr>
<tr>
<td>▪ Genero-berdintasuna sustatzen duten elkarteen kopurua eta egiten dituzten jarduera motak.</td>
<td>AFA</td>
<td>
Genero-berdintasunaren sustapenean diharduten emakume-elkarteak eta egiten dituzten jarduera motak (2003)
<table>
<tr><th>Jarduera-eremua</th><th>Elkarteen kopurua</th></tr>
<tr><td>Laguntza-Osasuna</td><td>2</td></tr>
<tr><td>Gizarte laguntza</td><td>1</td></tr>
<tr><td>Prestakuntza</td><td>9</td></tr>
<tr><td>Gizartea eta kultura</td><td>36</td></tr>
<tr><td>Arteak</td><td>2</td></tr>
<tr><td>Nekazaritza</td><td>1</td></tr>
<tr><td>Gogoeta feminista</td><td>2</td></tr>
<tr><td>Beste batzuk</td><td>8</td></tr>
</table>
</td>
<td rowspan="2">▪ Bada elkarte-sare garrantzitsu bat genero-berdintasuna sustatzea helburuetarikoa duena, eta partaidetza-bideak ezarri dira, elkarte horiek berdintasunaren arloko politikak prestatzen eta garatzen lagun dezaten. Garrantzitsua da ahalegin horri eustea, elkarteei ildo beretik jarraitzeko behar dituzten tresnak emanez. Guztiz garrantzitsua da, halaber, elkarteek zeregin horretan lankidetzan aritu nahi izatea eta euren ekarpen eta jardueren bitartez sektore publikoari laguntza eskaintzea berak sustatzen dituen ekintzak diseinatu eta garatzeko.</td>
</tr>
<tr>
<td>▪ Herritarrek genero-berdintasunaren inguruko gaietan parte hartzeko kontseilu edo batzordeak izatea.</td>
<td>AFA</td>
<td>▪ 162/1999 Foru Dekretuaren bitartez Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Batzordea eratu zen, elkarteek Planaren garapenean zuzenean parte hartzeko bide gisa</td>
</tr>
</table>

## 4. ARLOA.- BERDINTASUN ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEREZIKI KONTUAN HARTZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **2. HELBURUA**<br>**Emakumeek berdintasun printzipioa garatzeko gizarte eragile gisa parte har dezaten laguntzea.** | **2.1. neurria**<br>Elkarte-mugimenduan emakumeek lekua izan dezaten eta aktiboki parte har dezaten sustatzea. | **2.1.1. jarduketa**<br>Sentsibilizazio kanpainen bitartez, emakumeek elkarte-mugimenduan edo gizarte ekimeneko beste erakunde batzuetan aktiboki parte har dezaten sustatzea. | ▪ Emakumeek elkarte-mugimenduan aktiboki parte har dezaten sustatzea helburu duten sentsibilizazio-jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Ekintzen xede diren pertsonen ezaugarriak.<br>▪ Hedabideak.<br>▪ Diseinatutako material edo tresnek kopurua eta mota. |
| | | **2.1.2. jarduketa**<br>Emakumeen elkarteen kudeaketa eta antolaketa hobetzea helburu duten prestakuntza-programa berariazkoen garapena sustatzea. | ▪ Emakumeen elkarteen kudeaketa eta antolaketa hobetzea helburu duten prestakuntza-programen kopurua eta mota.<br>▪ Prestakuntzako gaien zerrenda.<br>▪ Prestakuntzaren xede diren pertsona edo erakundeen kopurua eta ezaugarriak. |
| | | **2.1.3. jarduketa**<br>Emakumeen elkarteak sortzen laguntzea, eraketarako izapideetan aholku emanez, eta erakundeen kudeaketa hobetzeko prestakuntza programak sustatzea elkarteen artean. | ▪ Elkarteak eratzeko izapideetan aholku emateko jardueren kopurua eta mota.<br>▪ Emakumeen elkarteen kudeaketa eta antolaketa hobetzea helburu duten prestakuntza-programen kopurua eta mota.<br>▪ Prestakuntzako gai zerrenda.<br>▪ Prestakuntzaren xede diren pertsona edo erakundeen kopurua eta ezaugarriak. |
| | | **2.1.4. jarduketa**<br>Balorazioko irizpidetzat erabiltzea, diru-laguntzak emateko orduan, diru-laguntza eskatzen duten elkarte edo erakundeen erabaki-organoetan emakumeek duten lekua. | ▪ Diru-laguntzak emateko zenbat deialditan hartu den kontuan, balorazio-irizpide gisa, emakumeek erakunde onuradunen erabaki-organoetan duten lekua. |
| | | | ▪ Emakume asko biltzen dituzten elkarte onuradunen kopurua. |

## 4. ARLOA.- BERDINTASUN ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEREZIKI KONTUAN HARTZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA *(jarraipena)*

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Genero-berdintasunaren sustapenean herritarrek parte har dezaten sustatzeko laguntza ekonomikoak. | AFA | ▪ Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzea helburu duten proiektuak egiteko ideia-lehiaketa, Arabako Foru Aldundiak Vitoria-Gasteizko Udalarekin batera antolatua.<br>▪ Elkarte edo fundazioentzako laguntzak, euren zentro edo lokalak zaharberritu, atondu eta hornitzeko.<br>▪ Diru-laguntzak, gizarte zerbitzuen helburu nagusi diren pertsonen eta giza taldeen prebentziorako, arretarako eta gizarteratzeko elkarte eta fundazioek antolatzen dituzten jarduerak eta programak aurrera eramaten laguntzeko.<br>▪ Inmigrazioaren arloan lan egiten duten elkarteentzako laguntzak.<br>▪ Irabazteko asmorik gabeko erakundeetan prestakuntza ezartzeko laguntzen programa.<br>▪ Sindikatuentzako laguntzak, migrazio-mugimenduen eragina jasaten duten pertsonentzako elkartasun-egitasmoak garatzeko.<br>▪ Gizarte zerbitzuen jarduerekin zerikusia duten ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak eta kongresuak antolatzeko laguntzak. | ▪ Bada elkarte-sare garrantzitsu bat genero-berdintasuna sustatzea helburuetarikoa duena, eta partaidetza-bideak ezarri dira, elkarte horiek berdintasunaren arloko politikak prestatzen eta garatzen lagun dezaten. Garrantzitsua da ahalegin horri eustea, elkarteei ildo beretik jarraitzeko behar dituzten tresnak emanez. Guztiz garrantzitsua da, halaber, elkarteek zeregin horretan lankidetzan aritu nahi izatea eta euren ekarpen eta jardueren bitartez sektore publikoari laguntza eskaintzea berak sustatzen dituen ekintzak diseinatu eta garatzeko. |
| ▪ Arabako Foru Aldundiak eta elkarteek emakumeei laguntzeko programak burutzeko sinatutako lankidetza-hitzarmenak. | AFA | **Arabako Foru Aldundiak eta elkarteek emakumeei laguntzeko programak burutzeko sinatutako lankidetza-hitzarmenak (2003)**<br>▪ Vitoria-Gasteizko alde zaharreko emakumeentzako sustapen-programa, elizbarrutiko Caritas erakundearekin hitzartua. 38 emakumek jaso dute laguntza.<br>▪ GIB/HIES gaitzari aurrea hartzeko programa, prostituzioan diharduten pertsonentzat, Arabako HIESaren kontrako Batzordearekin hitzartua. 69 pertsonak jaso dute laguntza.<br>▪ Prostituzioan jardun eta bazterturik dauden emakumeak gizarteratzeko programa, Gizarterako elkartearekin hitzartua. 467 emakumek jaso dute laguntza.<br>▪ Langraiz Okako espetxean dauden emakumeei laguntzeko etxebizitza baten kudeaketa, ADAPekin hitzartua. 27 emakumek jaso dute laguntza.<br>▪ Landa Aldeetako Emakumeen Sareari eusteko programa. 10 elkarte.<br>▪ Emakume ijitoentzako prestakuntza programa, Gao Lacho Drom elkartearekin hitzartua. 64 emakumek erabiltzen dute. | |

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **2. HELBURUA**<br>**Emakumeek berdintasun printzipioa garatzeko gizarte eragile gisa parte har dezaten laguntzea.** | **2.2. neurria**<br>Gizarte ekimenak berdintasun-politikan parte har dezan sustatzea. | **2.2.1. jarduketa**<br>Planeko 1. arloko 4.4.1. jarduketan aipatutako Berdintasunerako Batzordea bultzatzea, emakumeen elkarteek ekintza positiboko politiken antolaketan eta jarraipenean duten partaidetza areagotzeko. | ▪ Berdintasunerako Batzordearen eginkizunak berriro formulatzea.<br>▪ Batzorde horretan parte hartzeko irizpideak berriro aztertzea, berdintasun-printzipioa sustatu eta defendatzen duten elkarteen parte-hartzea hobeto bermatzeko. |
| | | **2.2.2. jarduketa**<br>Bide ematea, diru-laguntzen bitartez, gizarte ekimeneko elkarteek eta toki erakundeek berdintasunerako balio eta praktiken sustapena helburu nagusi duten jarduerak eta Planaren helburuekin zerikusia duten programak egin ditzaten. | ▪ Emakumeen elkarteen kudeaketa eta antolaketa hobetzea helburu duten prestakuntza-programen kopurua eta mota.<br>▪ Prestakuntzako gai zerrenda.<br>▪ Prestakuntzaren xede diren pertsona edo erakundeen kopurua eta ezaugarriak. |
| | | **2.2.3. jarduketa**<br>Emakumeen elkarteentzat berdintasun-politikei buruzko informazio eta aholkularitza programa garatzea, Planaren xedeak eta edukiak bereziki kontuan hartuta. | ▪ Informazio eta aholkularitza programa diseinatu eta egin dela egiaztatzea.<br>▪ Burututako informazio eta aholkularitza ekintzen kopurua eta mota.<br>▪ Programaren gai zerrenda.<br>▪ Prestakuntzaren xede izan diren pertsona edo erakundeen kopurua eta ezaugarriak. |

| 4. ARLOA.- BERDINTASUN ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA.<br>EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEREZIKI KONTUAN HARTZEA | | | |
|---|---|---|---|
| **EGOERAREN DIAGNOSTIKOA** | | | |
| **DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK** | **DATUEN ITURRIA** | **DATUAK** | **INFORMAZIOAREN BALORAZIOA** |
| **2.1. eta 2.2. neurrietan bezalako diagnostikoa aplikatu da** | | | |

4. ARLOA.- BERDINTASUN ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA.
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEREZIKI KONTUAN HARTZEA

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **2. HELBURUA**<br>**Emakumeek berdintasun printzipioa garatzeko gizarte eragile gisa parte har dezaten laguntzea.** | | **2.2.4. jarduketa**<br>Gizarteko sektore guztietako elkarte eta erakundeei aholku ematea, erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeek sarrera izan dezaten sustatzeko ekimen eta laguntza publikoei buruz. | ▪ Egindako aholkularitza-jardueren kopurua eta mota.<br>▪ Diseinatu eta zabaldu diren informazio- eta aholkularitza-materialen kopurua eta mota.<br>▪ Elkarte eta erakunde hartzaileak. |
| | | **2.2.5. jarduketa**<br>Emakumeei interesatzen zaizkien "Gizarte Baliabideen Gida" aldian behin eguneratzea eta emakumeen gizarte-partaidetzaren alde diharduten elkarte eta erakundeei banatzea. | ▪ Gida egin dela eta aldian behin eguneratzen dela egiaztatzea.<br>▪ Egindako zabalkunde-jardueren kopurua eta mota.<br>▪ Elkarte eta erakunde hartzaileen kopurua eta ezaugarriak. |
| | | **2.2.6. jarduketa**<br>Berdintasunaren sustapenarekin zerikusia duten praktika onak emakume-elkarteen artean trukatzeko bidea ematea, bai toki mailan, bai autonomia erkidegoetan, Estatuan eta Europan. | ▪ Praktika onak trukatzeko egindako jarduketen kopurua eta mota.<br>▪ Truke ekintzetan parte hartzen duten erakundeak. |
| | | **2.2.7. jarduketa**<br>Berdintasunerako Erakundeen Erregistroa sustatzea, gizarte ekimenaren berri jakiteko eta hari laguntzeko bitarteko gisa, erakundeen arteko topaketak eta trukeak errazte aldera. | ▪ Erregistroa sortu dela egiaztatzea.<br>▪ Erregistroan inskribatzeko irizpideak.<br>▪ Inskribatutako erakundeen kopurua. |

## 4. ARLOA.- BERDINTASUN ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEREZIKI KONTUAN HARTZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<table>
<tr><th>DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK</th><th>DATUEN ITURRIA</th><th colspan="3">DATUAK</th><th>INFORMAZIOAREN BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td>▪ Etxeko tratu txarrak edo sexu-erasoak jasan dituzten edo jasaten ari diren emakumeen kopurua.</td><td>Emakunde</td><td colspan="3">▪ 2003an 372 emakumek salatu zuten indarkeria eta tratu txarrak jasan izana, eta 50 salaketa sexu-askatasunaren kontrako delituengatik jarri ziren.<br>▪ Ustez, indarkeria jasaten duten emakumeen ehuneko 10-30 baino ez dira gertatutakoa salatzen dutenak.</td><td rowspan="3">▪ Emakumeen aurkako indarkeria, zalantzarik gabe, botere-harremanetan oinarrituta emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasunaren agerpenik larriena da. 2003. urtean bakarrik 372 emakumek salatu zuten tratu txarrak jasan izana, eta horietatik ehuneko 71ek bikotekidearen eskutik jasan zuten erasoa. Hala eta guztiz ere, egiazko egoera datu horiek erakusten dutena baino are larriagoa da; izan ere, uste da tratu txarren ehuneko 10-30 bitartean baino ez direla salatzen. Datuen argitan, garbi dago neurri egokiak hartu behar direla arazo horiek hobeto ezagutzeko eta prebentzio jarduerak garatu behar direla, bai eta azaltzen diren kasuei arreta emateko programak ere.</td></tr>
<tr><td rowspan="5">▪ Emakumeen biktimizazioak[1] etxeko indarkeriagatik, oro har, eta bikotekidearen eskutik, arau-hauste motaren arabera.</td><td rowspan="5">Herrizaingo Saila</td><td colspan="3">Emakumeen biktimizazioak etxeko indarkeriagatik, oro har, eta bikotekidearen eskutik, arau-hauste motaren arabera (2003)</td></tr>
<tr><td>Arau-hauste mota</td><td>Guztira</td><td>Ezkontide edo parekoaren eskutik</td></tr>
<tr><td>Delituak</td><td>211</td><td>157</td></tr>
<tr><td>Hutsegiteak</td><td>161</td><td>108</td></tr>
<tr><td>Guztira</td><td>372</td><td>265</td></tr>
<tr><td rowspan="7">▪ Emakumeen biktimizazioak sexu-askatasunaren aurkako delituengatik, arau-hauste motaren arabera.</td><td rowspan="7">Herrizaingo Saila</td><td colspan="3">Emakumeen biktimizazioak sexu-askatasunaren aurkako delituengatik, arau-hauste motaren arabera (2003)</td></tr>
<tr><td colspan="2">Arau-hauste mota</td><td>Emakumeak</td></tr>
<tr><td colspan="2">Sexu-erasoa</td><td>22</td></tr>
<tr><td colspan="2">Sexu-abusua</td><td>19</td></tr>
<tr><td colspan="2">Sexu-jazarpena</td><td>2</td></tr>
<tr><td colspan="2">Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa</td><td>7</td></tr>
<tr><td colspan="2">Guztira</td><td>50</td></tr>
<tr><td>▪ Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza duten gizarte langileen proportzioa.</td><td>AFA</td><td colspan="3">Gizarte langile guztiak emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikastaro edo hitzaldietara joan dira.</td><td>▪ Arabako gizarte zerbitzuetako gizarte langileak AFAk berdintasunari buruz antolatutako ikastaro edo hitzaldietan izan dira. Funtsezkoa da profesional horiek arlo honetako prestakuntza jasotzen jarraitzea, oso eginkizun garrantzitsua betetzen dutelako emakumeen aurkako indarkeria kasuak antzematen, eta babes sistemara heltzeko funtsezko sarbideak direlako.</td></tr>
</table>

[1] Biktimizaziotzat jotzen dira Ertzaintzak arau-hauste penalen baten zuzeneko biktima fisikoren bat izan dela jakiten duen aldi guztiak; gerta liteke pertsona bera estatistikan hainbat aldiz zenbatuta egotea.

## 4. ARLOA.- BERDINTASUN ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA.<br>EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEREZIKI KONTUAN HARTZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **3. HELBURUA**<br><br>**Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea eta biktimei arreta ematea, indarkeria mota hori betiko ezabatzeko xedearekin.** | **3.1. neurria**<br><br>Baliabideak antolatzea emakumeen aurkako indarkeria hobeto ezagutzeko, bai etxean gertatzen dena bai lan arlokoa. | **3.1.1. jarduketa**<br><br>Lan arloan eta etxean gertatzen den emakumeen aurkako indarkeria hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten ikerketak eta azterlanak sustatzea. Helburua da egoera horiek sortzeko kariak zeintzuk diren ezagutzea eta egoera horiek sortu ondoren hartu beharreko neurriak zeintzuk diren zehaztea. | ▪ Azterlan eta ikerketak egin direla egiaztatzea.<br>▪ Egindako azterlanen kopurua eta aztertutako gaiak. |
| | **3.2. neurria**<br><br>Herritarrak emakumeen aurkako indarkeriari buruz informatu eta sentsibilizatzea. | **3.2.1. jarduketa**<br>Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko azterlanak, ikerketak eta txostenak zabaltzea, bide hauek erabiliz:<br>- zuzenean edo zeharka eremu horretan lan egiten duten profesional guztiei zuzendutako jardunaldiak antolatzea horien emaitzak aurkezteko;<br>- komunikabideei emaitzen inguruko laburpena ematea hori zabal dezaten;<br>- testu osoa Aldundiaren web orrian jartzea. | ▪ Emakumeen aurkako indarkeriari buruz zabaldutako azterlan, ikerketa eta txostenen emaitzak.<br>▪ Antolatutako jardunaldien kopurua eta gai zerrenda.<br>▪ Sortutako hedabideen kopurua eta mota.<br>▪ Azterlanak Foru Aldundiaren web orrian jarri direla egiaztatzea. |
| | | **3.2.2. jarduketa**<br><br>Emakumeen aurkako indarkeriari aurre hartzeko eta hori antzemateko informazio eta sentsibilizazio kanpainak diseinatzea, baita era horretako kanpainak antolatzen dituzten erakunde eta elkarteei laguntza ematea ere. | ▪ Egindako informazio- eta sentsibilizazio-jardueren kopurua eta mota.<br>▪ Zabaldutako jardueren edukia.<br>▪ Erabilitako hedabideak eta sortutako materialak.<br>▪ Beste erakunde batzuekin elkarlanean antolatutako ekitaldien kopurua. |

# 4. ARLOA.- BERDINTASUN ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEREZIKI KONTUAN HARTZEA

## EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<table>
<tr><th>DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK</th><th>DATUEN ITURRIA</th><th>DATUAK</th><th>INFORMAZIOAREN BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td>▪ Etxeko tratu txarrak edo eraso sexualak jasan dituzten edo jasaten ari diren emakumeen kopurua.</td><td>Emakunde</td><td>▪ 2003an 372 emakumek salatu zuten indarkeria eta tratu txarrak jasan izana, eta 50 salaketa sexu-askatasunaren kontrako delituengatik jarri ziren.<br>▪ Ustez, indarkeria jasaten duten emakumeen ehuneko 10-30 baino ez dira gertatutakoa salatzen dutenak.</td><td rowspan="3">▪ Emakumeen aurkako indarkeria, zalantzarik gabe, botere-harremanetan oinarrituta emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasunaren agerpenik larriena da. 2003. urtean bakarrik 372 emakumek salatu zuten tratu txarrak jasan izana, eta horietatik ehuneko 71ek bikotekidearen eskutik jasan zuten erasoa. Hala eta guztiz ere, egiazko egoera datu horiek erakusten dutena baino are larriagoa da; izan ere, uste da tratu txarren ehuneko 10-30 bitartean baino ez direla salatzen. Datuen argitan, garbi dago neurri egokiak hartu behar direla arazo horiek hobeto ezagutzeko eta prebentzio jarduerak garatu behar direla, bai eta azaltzen diren kasuei arreta emateko programak ere.</td></tr>
<tr><td>▪ Emakumeen biktimizazioak[2] etxeko indarkeriagatik, oro har, eta bikotekidearen eskutik, arau-hauste motaren arabera.</td><td>Herrizaingo Saila</td><td>Emakumeen biktimizazioak etxeko indarkeriagatik, oro har, eta bikotekidearen eskutik, arau-hauste motaren arabera (2003)
<table>
<tr><th>Arau-hauste mota</th><th>Guztira</th><th>Ezkontide edo parekoaren eskutik</th></tr>
<tr><td>Delituak</td><td>211</td><td>157</td></tr>
<tr><td>Hutsegiteak</td><td>161</td><td>108</td></tr>
<tr><td>Guztira</td><td>372</td><td>265</td></tr>
</table></td></tr>
<tr><td>▪ Emakumeen biktimizazioak sexu-askatasunaren aurkako delituengatik, arau-hauste motaren arabera.</td><td>Herrizaingo Saila</td><td>Emakumeen biktimizazioak sexu-askatasunaren aurkako delituengatik, arau-hauste motaren arabera (2003)
<table>
<tr><th>Arau-hauste mota</th><th>Emakumeak</th></tr>
<tr><td>Sexu-erasoa</td><td>22</td></tr>
<tr><td>Sexu-abusua</td><td>19</td></tr>
<tr><td>Sexu-jazarpena</td><td>2</td></tr>
<tr><td>Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa</td><td>7</td></tr>
<tr><td>Guztira</td><td>50</td></tr>
</table></td></tr>
<tr><td>▪ Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza duten gizarte langileen proportzioa.</td><td>AFA</td><td>Gizarte langile guztiak emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikastaro edo hitzaldietara joan dira.</td><td>▪ Arabako gizarte zerbitzuetako gizarte langileak AFAk berdintasunari buruz antolatutako ikastaro edo hitzaldietan izan dira. Funtsezkoa da profesional horiek arlo honetako prestakuntza jasotzen jarraitzea, oso eginkizun garrantzitsua betetzen dutelako emakumeen aurkako indarkeria kasuak antzematen, eta babes sistemara heltzeko funtsezko sarbideak direlako.</td></tr>
</table>

[2] Biktimizaziotzat jotzen dira Ertzaintzak arau-hauste penalen baten zuzeneko biktima fisikoren bat izan dela jakiten duen aldi guztiak; gerta liteke pertsona bera estatistikan hainbat aldiz zenbatuta egotea.

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **3. HELBURUA**<br><br>**Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea eta biktimei arreta ematea, indarkeria mota hori betiko ezabatzeko xedearekin.** | | **3.2.3. jarduketa**<br><br>Haur eta gazteei zuzendutako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko materialak gauzatzea. | ▪ Sortutako material pedagogikoen kopurua eta mota. |
| | | **3.2.4. jarduketa**<br><br>Komunikabideen parte hartzea sustatzea, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko albisteak eraiki nahi den berdintasunezko gizartearen ikuspuntutik ematea bermatzeko. | ▪ Komunikabideetan emakumeen aurkako indarkeriari buruzko berriek behar bezalako tratamendua izango dutela bermatzeko jardueren kopurua eta mota. |
| | | **3.2.5. jarduketa**<br><br>Profesionalen prestakuntza gai guztietan hobetzea, zerbitzuak hobetzeko eta indarkeriaren aurrean kontzientziatzeko. | ▪ Prestakuntza jardueren kopurua eta mota.<br>▪ Xede diren profesionalen kopurua eta ezaugarriak. |
| | **3.3. neurria**<br><br>Arazoa ikusgai egiteko neurriak hartzea. | **3.3.1. jarduketa**<br><br>Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei salaketa jartzen laguntzea, hasierako uneetan aholkularitzarik egokiena bermatuz, Tratu Txar eta Erasoetarako Ofiziozko Txandaren bitartez. Horren jarduketek Arabako Abokatuen Elkargoko Gainbegirapen Taldearen babesa izango dute; talde hori Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailak Abokatuen Elkartearekin duen hitzarmenaren esparruan antolatu da. | ▪ Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei salaketa jartzen laguntzeko egindako jarduketen kopurua eta mota. |
| | | **3.3.2. jarduketa**<br><br>Azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Nazioarteko Egunean, garatutako ekimenekin jarraitzea. Berdintasun eta elkarrenganako errespetua oinarri dira indarkeria saihesteko. | ▪ Emakumeen aurkako Indarkeriaren Nazioarteko egunean garatutako ekintzen kopurua eta mota. |

# 4. ARLOA.- BERDINTASUN ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEREZIKI KONTUAN HARTZEA

## EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei eta erasotzaileei arreta emateko zerbitzu espezializatuak, Arabako Foru Aldundiaren menpekoak, eta haien estaldura. | AFA | Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta emateko zerbitzu espezializatuak eta haien estaldura (2002) (ikus 1. taula) | ▪ Badago zerbitzu-sare garrantzitsu bat tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei eta haien erasotzaileei arreta emateko. Hala ere, aldian-aldian aztertu egin behar litzateke ea zerbitzu horiek egokiak ote diren egiazko beharrizanetarako, eta, behar izanez gero, zerbitzuen eskaintza zuzendu. Arartekoaren Bulegoak argitaratutako "Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna" izeneko txostenaren arabera, Arabako laguntza zerbitzuek arazo nagusi hauek dituzte: arreta psikologikoa eta orientazio juridikoa emateko zerbitzuen irisgarritasun geografikorik eza, eta egoitzez osatutako laguntza-sarearen ezegokitasuna, zenbait alderditan. Beraz, arazo horiek konpontzeko neurri egokiak hartu beharra dago. |
| ▪ Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeentzako ostatu-zerbitzuek dituzten plazen kopurua, haiek kudeatzen dituen erakundearen arabera. | Arartekoa | Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeentzako ostatu-zerbitzuek dituzten plazen kopurua, haiek kudeatzen dituen erakundearen arabera (2001) (ikus 2. taula) | |
| ▪ Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako egonaldi ertaineko ostatu-zerbitzuen erabilpenaren bilakaera. | Arartekoa | Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako egonaldi ertaineko ostatu-zerbitzuen erabilpenaren bilakaera (1997-2001) (ikus 3. taula) | |
| ▪ Arreta psikologikoa eta orientazio juridikoa emateko zerbitzuen erabilpenaren bilakaera. | Arartekoa | Arreta psikologikoa eta orientazio juridikoa emateko zerbitzuen erabilpenaren bilakaera (1997-2001) (ikus 4. taula) | |
| ▪ Gasteizko Udalaren beste zerbitzu batzuk, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei arreta ematen dietenak, beraientzat bakarrik ez izan arren. | Arartekoa | ▪ Emakumeen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten gaietan laguntza eta aholkua emateko zerbitzua<br>▪ Larrialdietarako Udal Zerbitzua | |
| ▪ Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen sustapenerako beste laguntza batzuk. | AFA | ▪ Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzea helburu duten proiektuak egiteko ideia-lehiaketa, Vitoria-Gasteizko Udalarekin batera antolatua. | |

**Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta emateko zerbitzu espezializatuak eta haien estaldura (2002)**

| *Zerbitzu espezializatuak* | *Zerbitzuen erabilera* |
|---|---|
| ***Biktimentzako laguntza psikologikoa*** | **170** |
| ***Erasotzaileentzako laguntza psikologikoa*** | **20** |
| ***Orientazio juridikoa*** | **330** |
| ***Auzibideen jarraipena*** | **1** |
| ***Aterpea emateko etxebizitzak (9 plaza)*** | **3** |
| ***Larrialdietarako zentroa*** | **-** |
| ***Aterpetutako emakumeentzako heziketa programa*** | **3** |

**Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeentzako ostatu-zerbitzuek dituzten plazen kopurua, haiek kudeatzen dituen erakundearen arabera (2001)**

| **Ostatu mota** | **Udalak** | | **Aldundia** | **Guztira** |
|---|---|---|---|---|
| | Vitoria-Gasteiz | Llodio | | |
| Presako ostatu ematea | 8 | - | - | 8 |
| Egonaldi ertainerako ostatu ematea | 15 | 6 | 9 | 30 |
| Guztira | 23 | 6 | 9 | 38 |

**Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako egonaldi ertaineko ostatu-zerbitzuen erabilpenaren bilakaera (1997-2001)**

| | **1997** | **1998** | **1999** | **2000** | **2001** |
|---|---|---|---|---|---|
| Aldundia | 4 | 1 | 10 | 3 | 6 |
| Vitoria-Gasteiz | 11 | 7 | 17 | 14 | 3 |
| Llodio | 1 | 1 | 1 | 3 | 1 |
| Guztira | 16 | 9 | 28 | 20 | 10 |

**Arreta psikologikoa eta orientazio juridikoa emateko zerbitzuen erabilpenaren bilakaera (1997-2001)**

| **Zerbitzu mota** | **1997** | **1998** | **1999** | **2000** | **2001** |
|---|---|---|---|---|---|
| Arreta psikologikoa | 145 | 147 | 154 | 150 | 183 |
| Biktimak | *145* | *137* | *134* | *118* | *147* |
| Erasotzaileak | - | *10* | *20* | *32* | *36* |
| Orientazio juridikoa | 326 | 204 | 288 | 273 | 248 |

# 4. ARLOA.- BERDINTASUN ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALA SUSTATZEA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEREZIKI KONTUAN HARTZEA

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **3. HELBURUA**<br><br>**Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea eta biktimei arreta ematea, indarkeria mota hori betiko ezabatzeko xedearekin.** | **3.4. neurria**<br><br>Emakumeen aurkako indarkeria kasuei babes-sistema publikoak ematen dien arreta areagotzea. | **3.4.1. jarduketa**<br><br>Emakumeen aurkako indarkeria egoerei erantzutean gizarte baliabideen berri ematea, hain zuzen ere, “tratu txarrak eta sexu erasoak izan dituzten emakumeen arreta hobetzeko jardun protokoloan” jasotzen direnak. | ▪ Dauden baliabideei buruzko informazioa bildu dela egiaztatzea.<br>▪ Egindako informazio-jardueren kopurua eta mota.<br>▪ Xede diren pertsona eta erakundeen kopurua eta ezaugarriak. |
| | | **3.4.2. jarduketa**<br><br>Gizarte Zerbitzuen sarea emakumeen aurkako indarkeria egoerek sortutako beharretara zein mailatan egokituta dagoen aztertzea. Hautemandako eskasiak zehaztuko dira eta erantzunik ez duten beharretara hobeto egokitzen diren neurriak proposatuko dira. | ▪ Gizarte zerbitzuen sarea antzemandako beharrizanetarako egokia ote den aztertu dela egiaztatzea.<br>▪ Azterketaren emaitza nagusiak.<br>▪ Zerbitzuak bete gabeko beharrizanei egokitzeko jardueren kopurua eta mota. |
| | | **3.4.3. jarduketa**<br><br>“Tratu txarrak eta sexu erasoak izan dituzten emakumeen arreta hobetzeko jardun protokoloa”ren inguruan sortutako batzorde eta lantaldean parte hartzen jarraitzea. Protokolo hori hainbat erakundek izenpetu zuten izaera publikoko baliabide eta jarduera guztiak koordinatzeko, edozein izanik ere horien kudeaketa, publikoa edo pribatua. | ▪ Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak izan dituzten emakumeen arreta hobetzeko jardun protokoloaren inguruan sortutako batzordearen eta lantalde teknikoaren bilkuretan zenbat aldiz parte hartu duen AFAk.<br>▪ Batzordean eta lantalde teknikoan parte hartzearen ondorioz zenbat jarduketa egin diren eta zein motatakoak. |

# 5. ARLOA.- BIZI-KALITATEA, ONGIZATEA ETA OSASUNA SUSTATZEA

## EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<table>
<tr><th>DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK</th><th>DATUEN ITURRIA</th><th>DATUAK</th><th>INFORMAZIOAREN BALORAZIOA</th></tr>
<tr>
<td>▪ Mantenu-pobreziaren eragina, pertsona nagusiaren sexuaren arabera</td>
<td>Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2000ko Inkesta</td>
<td>
Mantenu-pobreziaren eragina, pertsona nagusiaren sexuaren arabera (etxeen %)
<table>
<tr><th></th><th>Pobrea</th><th>Ongizaterik ez</th><th>Ez da pobrea</th></tr>
<tr><td>Gizona</td><td>1,5</td><td>14,1</td><td>84,4</td></tr>
<tr><td>Emakumea</td><td>5,4</td><td>46,7</td><td>47,9</td></tr>
<tr><td>Guztira</td><td>2,1</td><td>18,9</td><td>79,0</td></tr>
</table>
</td>
<td rowspan="2">
▪ Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak agerian jartzen du pobreziaren feminizazioa:<br>
- Pobrezia gorriaren eta ongizaterik ezaren eragina ia hiru aldiz handiagoa da pertsona nagusia emakumezkoa duten etxeetan, gizonezko bat buru duten etxeetan baino.<br>
- Metatze-pobreziak prekariotasun egoera kroniko bihurtu dela adierazten du. Hau ere askoz ugariagoa da familiako ardurak dituzten emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino.<br>
▪ Pobreziaren feminizazioaren erakusgarri diren desberdintasun horiek kontuan hartu behar dira gizarte-bazterkeriaren aurkako politikak eta programak diseinatzeko orduan, gaurko eskaintza hobetu dadin.
</td>
</tr>
<tr>
<td>▪ Mantenu-pobreziaren eragina, pertsona nagusiaren sexuaren arabera</td>
<td>Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2000ko Inkesta</td>
<td>
Metatze-pobreziaren eragina, pertsona nagusiaren sexuaren arabera (etxeen %)
<table>
<tr><th></th><th>Pobrea</th><th>Batezbestekoa baino nabarmen beherago</th><th>Nolabaiteko prekariotasuna</th><th>Ongizatea</th></tr>
<tr><td>Gizona</td><td>0,2</td><td>6,4</td><td>12,2</td><td>81,2</td></tr>
<tr><td>Emak.</td><td>1,5</td><td>8,2</td><td>12,0</td><td>78,3</td></tr>
<tr><td>Guztira</td><td>0,4</td><td>6,7</td><td>12,2</td><td>80,8</td></tr>
</table>
</td>
</tr>
</table>

# 5. ARLOA.- BIZI-KALITATEA, ONGIZATEA ETA OSASUNA SUSTATZEA

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| 1. HELBURUA<br><br>**Ahultasun bereziko egoeran aurkitzen diren emakumeei gizarteratzen laguntzea** | **1.1. neurria**<br><br>Oinarrizko titulurik eduki ez eta gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden emakumeen prestakuntza maila hobetzea, errazago gizarteratu eta laneratu daitezen. | **1.1.1. jarduketa**<br><br>Lanerako prestakuntzaren aurreko ikastaroak (aurreprestakuntza) antolatzen laguntzea, inolako prestakuntza edo kualifikaziorik ez duten eta gizarte eta lan egoera txarrean aurkitzen diren emakumeentzat. | ▪ Helburu horrekin antolatutako ikastaroen kopurua eta edukia.<br>▪ Ikastaroetan parte hartzen duten emakumeen kopurua.<br>▪ Parte-hartzaileen gogobetetze maila.<br>▪ Jasotako prestakuntzari esker lanpostua eskuratu duten pertsonen kopurua. |
| | | **1.1.2. jarduketa**<br><br>Analfabetismo funtzionala murriztea helburu duten prestakuntza ekintzen garapenean laguntzea. | ▪ Helburu horrekin antolatutako ikastaroen kopurua eta edukia.<br>▪ Ikastaroetan parte hartzen duten emakumeen kopurua.<br>▪ Parte-hartzaileen gogobetetze maila. |
| | **1.2. neurria**<br><br>Gizartetik bazterturik geratzeko arriskua duten emakumeei etxebizitza eskuratzeko bideak ematea. | **1.2.1. jarduketa**<br><br>Eskumena duen erakundeari proposatzea alokatzeko etxebizitza sozialen adjudikazioan lehentasuna eman diezaiela gizartetik bazterturik geratzeko arriskua duten emakumeei, batez ere bakarrik dauden, familiako ardurak dituzten eta kolokako egoera ekonomikoan aurkitzen diren emakumeei eta etxeko indarkeriaren biktima direnei. | ▪ Gizartetik baztertuta geratzeko arriskua duten emakumeei emandako alokairuko gizarte etxebizitzen kopurua, eskabideen kopuruarekin alderatuta.<br>▪ Gizartetik baztertuta geratzeko arriskua duten emakumeei emandako alokairuko gizarte etxebizitzen proportzioa, onuradunen kopuru osoaren aldean. |
| | | **1.2.2. jarduketa**<br><br>Eskumena duen erakundeari proposatzea laguntza eman diezaiela gizartetik baztertuta geratzeko arriskua duten emakumeei, korriturik gabeko kredituak emateko hain zuzen ere, etxebizitzaren arloko zorpetze egoerak aldi baterako estaltze aldera. | ▪ Laguntza horiek sortu direla frogatzen duen arautegia. |

# 5. ARLOA.- BIZI-KALITATEA, ONGIZATEA ETA OSASUNA SUSTATZEA

## EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|
| ▪ Sarrerak bermatzeko eta larrialdietan laguntzeko prestazioak. | AFA | **Sarrerak bermatzeko eta larrialdietan laguntzeko prestazioak (prestazioa jasotzen duen famili unitatearen titularra) (2003)** (see table below) | ▪ Laguntza-prestazioen onuradunen artean emakumeen proportzioa handiagoa izateak erakusten digunez, kolokako egoerak eta gizartetik bazterturik geratzeko arriskuak ugariagoak dira emakumeen kolektiboan.<br><br>▪ Pobreziaren feminizazioaren erakusgarri diren desberdintasun horiek kontuan hartu behar dira gizarte-bazterkeriaren aurkako politikak eta programak diseinatzeko orduan, gaurko eskaintza hobetu dadin. |
| ▪ Gizartetik baztertuta dauden emakumeentzat berariaz egiten diren laguntza-programak. | AFA | ▪ Vitoria-Gasteizko alde zaharreko emakumeentzako sustapen-programa, elizbarrutiko Caritas erakundearekin hitzartua. 38 emakumek jaso dute laguntza.<br>▪ Emakume ijitoentzako prestakuntza programa. 64 emakumek parte hartzen dute. | |
| ▪ Egoera zailean aurkitzen diren emakume eta gizonentzako beste programa eta laguntza batzuk. | AFA | ▪ Estrada eguneko zentroa, HIESaren kontrako Batzordearekin eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin hitzartua.<br>▪ Landa aldeetan telefono bidez etxez etxeko laguntza emateko programa, Arabako Itxaropen eta Laguntasun Telefonoaren Elkartearekin hitzartua. | |

**Sarrerak bermatzeko eta larrialdietan laguntzeko prestazioak (prestazioa jasotzen duen famili unitatearen titularra) (2003)**

| Prestazio mota | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|
| Oinarrizko errenta | 41,4 | 58,6 |
| Gutxieneko bermeko laguntza-prestazioa | 41,1 | 58,9 |
| Gizarte larrialdietarako laguntzak | 41,2 | 58,8 |
| Premiazko egoeretarako laguntza bereziak | 58,3 | 41,7 |
| Kotizazio gabeko pentsioak | 33,4 | 66,6 |
| Gizarte Ongizateko Funtseko pentsioak | 27,3 | 72,7 |

# 5. ARLOA.- BIZI-KALITATEA, ONGIZATEA ETA OSASUNA SUSTATZEA

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **1. HELBURUA**<br><br>**Ahultasun bereziko egoeran aurkitzen diren emakumeei gizarteratzen laguntzea** | **1.3. neurria**<br><br>Gizartetik bazterturik edo baztertzeko arriskuan dauden emakumeen egoeraren nondik-norakoak aztertzea. | **1.3.1. jarduketa**<br><br>Pobrezia eta gizarte-bazterketa eragiten dituzten prozesuetan emakumeen eta gizonen artean dauden aldeak aztertzea. | ▪ Helburu horretarako egindako azterketa eta jardunaldiak.<br><br>▪ Lortutako emaitza nagusiak. |
| | | **1.3.2. jarduketa**<br><br>Azterketa egitea, ea gizonek eta emakumeek zenbateraino ezagutzen dituzten gizarte zerbitzu orokor eta espezializatuetako baliabideak eta zenbateraino erabiltzen dituzten baliabide horiek eta sistemara sartzeko bideak. | ▪ Helburu horretarako egindako zundaketa edo inkestak.<br><br>▪ Gizonek eta emakumeek gizarte zerbitzuak nola erabiltzen dituzten erakusten duten datuen bilketa eta azterketa. |
| | | **1.3.3. jarduketa**<br><br>Profesionalen topaketak eta eztabaidak sustatzea, gizartetik bazterturik edo baztertzeko arriskuan dauden emakumeei arreta emateko praktika onak trukatu ditzaten. | ▪ Helburu horrekin antolatutako topaketa eta eztabaiden kopurua eta edukia. |

## 5. ARLOA.- BIZI-KALITATEA, ONGIZATEA ETA OSASUNA SUSTATZEA

### EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

| DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK | DATUEN ITURRIA | DATUAK | | | INFORMAZIOAREN BALORAZIOA |
|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeen eta gizonen arteko aldeak guraso bakarreko famili nukleoetan | Eustat | **Guraso bakarreko famili nukleoak** | | | ▪ Nabarmen ugariagoak dira amak eta seme-alabek osatutako guraso bakarreko famili nukleoak aitak eta seme-alabek osatutakoak baino. Egoera horrek, berez, gizarte beharrizan bereziak sortzen ditu.<br>▪ Pobreziaren feminizazioaren erakusgarri diren desberdintasun horiek kontuan hartu behar dira gizarte-bazterkeriaren aurkako politikak eta programak diseinatzeko orduan, gaurko eskaintza hobetu dadin. |
| | | | ***Aita eta seme-alabak*** | ***Ama eta seme-alabak*** | |
| | | Absolutuak | 2.506 | 9.837 | |
| | | Ehunekoa | 20,3 | 79,7 | |

# 5. ARLOA.- BIZI-KALITATEA, ONGIZATEA ETA OSASUNA SUSTATZEA

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| | **1.4. neurria**<br>Baliabideen eskaintza egokitzea, kolokako egoera ekonomikoa izan, euren kargura senideak eduki eta bakarrik dauden emakumeen beharrizan bereziak asetzeko. | **1.4.1. jarduketa**<br>“Guraso bakarreko familia” terminoaren eta haren tipologien definizioari buruzko irizpideak bateratu daitezen sustatzea, datu-bilketa eta konparazio-azterketak ahalbidetzeko. | ▪ Guraso bakarreko familiei buruzko irizpideen batasuna frogatzen duten agiriak. |
| | | **1.4.2. jarduketa**<br>Foru Aldundiak egiten dituen estatistiketan guraso bakarreko familiaren tipifikazioa jasotzea. | ▪ Foru Aldundiaren estatistiken bilduman guraso bakarreko familien tipifikazioa egiaztatzea. |
| | | **1.4.3. jarduketa**<br>Bakarrik egon, egoera zaila izan eta famili kargak dituzten pertsonentzako aisia eta astialdiko programen garapena proposatzea. | ▪ Egoera zaila izanik aisia eta aisialdi partekatuko egonaldiak erabiltzen dituzten emakumeen kopurua. |
| | | **1.4.4. jarduketa**<br>Eskumena duen erakundeari tresna juridiko subsidiarioa antolatu dezala eskatzea, emakumeei errenta jasoko dutela bermatzeko, ezkontideak banandu edo dibortziatzen direnean edo ezkontzaren deuseztasuna deklaratzen denean epaileak agindutako pentsioak ordaintzen ez diren kasuetarako. | ▪ Tresna hori sortu dela frogatzen duen arautegia. |
| | | **1.4.5. jarduketa**<br>Guraso bakarreko familia izatea, kolokako egoera ekonomikoarekin batera, lehentasuneko irizpidetzat jotzea familia horietako seme-alabei laguntzak eta bekak emateko, matrikulak ordaindu, liburuak erosi, jantokiak erabili, udalekuetara joan eta beharrezko beste gastu batzuk egin ditzaten. | ▪ Irizpide hori dagokion arautegian sartu dela egiaztatzea. |
| | | **1.4.6. jarduketa**<br>Familia desegituratuta dagoelako famili ardura guztiak euren gain hartu behar dituzten emakumeei laguntza emateko behar diren mekanismoak ezartzea. Udalek, udalen elkarteek eta emakumeen elkarteek familietan esku hartzeko dituzten lantaldeek eman behar diete laguntza. | ▪ Guraso bakarreko familien beharrizanei arreta emateko sistema egokia dela egiaztatzea.<br>▪ Familietan esku hartzeko programak erabiltzen dituzten emakumeen kopurua. |
| | | **1.4.7. jarduketa**<br>Laguntza ematea kolokako egoera duten guraso bakarreko familientzat haurtzaindegietan plazak gorde daitezen eta ordutegiak haien beharrizanen arabera luzatu daitezen. | ▪ Haurtzaindegien erabilerari dagokionez guraso bakarreko familiei laguntza ematen zaiela egiaztatzen duen arautegia.<br>▪ Haurtzaindegien ordutegiak luzatzeko burututako ekintzak. |
| | | **1.4.8. jarduketa**<br>Haurren amak diren nerabeentzako gizarte baliabideak garatzea, hezkuntza sisteman iraungo dutela bermatzeko edo, hala behar denean, gizarteratu eta laneratzeko bideak emateko. | ▪ Amak diren nerabeentzat garatutako gizarte baliabideen kopurua eta mota.<br>▪ Baliabide horien erabilera maila eta mota. |
| | | **1.4.9. jarduketa**<br>Garraiobide publikoetan laguntzen eta deskontuen sistema sortzea, emakume behartsuen kargura dauden familietako kideentzat. | ▪ Laguntza horiek sortu direla frogatzen duen arautegia. |

# 5. ARLOA.- BIZI-KALITATEA, ONGIZATEA ETA OSASUNA SUSTATZEA

## EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<table>
<tr><th>DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK</th><th>DATUEN ITURRIA</th><th>DATUAK</th><th>INFORMAZIOAREN BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td>▪ Sarrerak bermatzeko eta larrialdietan laguntzeko prestazioak.</td><td>AFA</td><td>Sarrerak bermatzeko eta larrialdietan laguntzeko prestazioak (prestazioa jasotzen duen famili unitatearen titularra) (2003)
<table>
<tr><th>Prestazio mota</th><th>Gizonak</th><th>Emakumeak</th></tr>
<tr><td>Oinarrizko errenta</td><td>41,4</td><td>58,6</td></tr>
<tr><td>Gutxieneko bermeko laguntza-prestazioa</td><td>41,1</td><td>58,9</td></tr>
<tr><td>Gizarte larrialdietarako laguntzak</td><td>41,2</td><td>58,8</td></tr>
<tr><td>Premiazko egoeretarako laguntza bereziak</td><td>58,3</td><td>41,7</td></tr>
<tr><td>Kotizazio gabeko pentsioak</td><td>33,4</td><td>66,6</td></tr>
<tr><td>Gizarte Ongizateko Funtseko pentsioak</td><td>27,3</td><td>72,7</td></tr>
</table></td><td rowspan="3">▪ Laguntza-prestazioen onuradunen artean emakumeen proportzioa handiagoa izateak erakusten digunez, kolokako egoerak eta gizartetik bazterturik geratzeko arriskuak ugariagoak dira emakumeen kolektiboan.<br><br>▪ Pobreziaren feminizazioaren erakusgarri diren desberdintasun horiek kontuan hartu behar dira gizarte-bazterkeriaren aurkako politikak eta programak diseinatzeko orduan, gaurko eskaintza hobetu dadin.</td></tr>
<tr><td>▪ Gizartetik baztertuta dauden emakumeentzat berariaz egiten diren laguntza-programak.</td><td>AFA</td><td>▪ Vitoria-Gasteizko alde zaharreko emakumeentzako sustapen-programa, elizbarrutiko Caritas erakundearekin hitzartua. 38 emakumek jaso dute laguntza.<br><br>▪ Emakume ijitoentzako prestakuntza programa. 64 emakumek parte hartzen dute.</td></tr>
<tr><td>▪ Egoera zailean aurkitzen diren emakume eta gizonentzako beste programa eta laguntza batzuk.</td><td>AFA</td><td>▪ Estrada eguneko zentroa, HIESaren kontrako Batzordearekin eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin hitzartua.<br><br>▪ Landa aldeetan telefono bidez etxez etxeko laguntza emateko programa, Arabako Itxaropen eta Laguntasun Telefonoaren Elkartearekin hitzartua.</td></tr>
</table>

## 5. ARLOA.- BIZI-KALITATEA, ONGIZATEA ETA OSASUNA SUSTATZEA

### HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| | **1.5. neurria**<br><br>Emakumeei Arabako Lurralde Historikoan dauden laguntza, prestazio eta gizarte baliabideak erraz eskuratzeko bideak ematea. | **1.5.1. jarduketa**<br><br>Emakumeen eskura dauden gizarte baliabideei buruzko informazio ulerterraza ematea leku estrategikoetan: oinarrizko gizarte zerbitzuetan, osasun etxeetan, polizi etxeetan, espetxeetan eta gizarte egoera zaila duten emakumeei laguntzeko elkarteetan. | ▪ Gizarte baliabideen berri zabaltzeko burututako ekintzak (solasaldiak, triptiko eta liburuxkak, kartelak etab.). |
| | | **1.5.2. jarduketa**<br><br>Aldian behin eguneratzea Arabako Lurralde Historikoko gizarte baliabideen eskaintza jasotzen duten Baliabideen Gidak. | ▪ Eguneratpena egiaztatzea. |
| | | **1.5.3. jarduketa**<br><br>Gizartetik bazterturik edo baztertzeko arriskuan dauden emakumeak atzeman eta haiei arreta emateko programak garatzea. Emakume horiek gizarteratzeko ahaleginak egin behar dira genero-ikuspegitik, eta banakako orientazioa eman behar zaie euren beharrizanetarako gizarte baliabide egokienak erabil ditzaten. | ▪ Garatutako programen kopurua eta edukia.<br>▪ Programa horiek erabiltzen dituzten emakumeen kopurua. |
| | | **1.5.4. jarduketa**<br><br>Aholkularitza zerbitzu juridikoa badagoela jakinaraztea, hizkera ulerterrazean idatzitako liburuxka argitaratuz. Liburuxka hori eskura jarri behar da oinarrizko gizarte zerbitzu guztietan, osasun etxeetan eta egoera zaila duten emakumeei laguntzen dieten erakundeetan. | ▪ Aholkularitza juridikoan jaso eta bideratu diren kontsulten kopurua eta arrazoiak.<br>▪ Aholkularitza zerbitzu juridikoari buruzko zabalkunde-liburuxka berrikustea. |
| | | **1.5.5. jarduketa**<br><br>Indarkeria jasaten duten emakumeei eta famili kargak eduki eta bakarrik dauden emakumeei lehentasuna ematea gizarte baliabideak eskuratzeko orduan, eta egoera hori kontuan hartzea zerbitzu eta prestazioak eskuratzeko baremoan, beste irizpide batzuekin batera. | ▪ Irizpide hori gizarte baliabideak eskuratzeko arauetan sartu dela egiaztatzea. |
| | | **1.5.6. jarduketa**<br><br>Eskumena duten agintariei eskatzea alarguntasun eta zurztasun pentsioei buruzko arauak egokitu ditzatela, inguruabar horien ondorioz kolokako egoera ekonomikoa duten emakumeen benetako beharrizanen arabera. | ▪ Alarguntasun eta zurztasun pentsioei buruzko arauetan egindako aldaketak egiaztatzea. |

# 5. ARLOA.- BIZI-KALITATEA, ONGIZATEA ETA OSASUNA SUSTATZEA

## EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<table>
<tr><th>DIAGNOSTIKORAKO ADIERAZLEAK</th><th>DATUEN ITURRIA</th><th>DATUAK</th><th>INFORMAZIOAREN BALORAZIOA</th></tr>
<tr><td>▪ Emakumeen eta gizonen arteko aldeak, legez kanpoko drogen ohiko kontsumoari dagokionez.</td><td>Droga-mendekotasunaren Behatokia</td><td><table>
<tr><th colspan="3">Emakumeen eta gizonen arteko aldeak, legez kanpoko drogen ohiko kontsumoari dagokionez (2002)</th></tr>
<tr><td>Droga mota</td><td>Gizonak</td><td>Emakumeak</td></tr>
<tr><td>Kanabisa</td><td>42,8</td><td>28,8</td></tr>
<tr><td>Anfetaminak</td><td>24,4</td><td>18,6</td></tr>
<tr><td>Estasia</td><td>19,4</td><td>21,1</td></tr>
<tr><td>Kokaina</td><td>17,6</td><td>17,9</td></tr>
<tr><td>LSD</td><td>10,0</td><td>12,5</td></tr>
<tr><td>Heroina</td><td>28,6</td><td>20,0</td></tr>
</table></td><td></td></tr>
<tr><td>▪ Emakumeen eta gizonen arteko aldeak, edari alkoholdunen kontsumoari dagokionez.</td><td>Droga-mendekotasunaren Behatokia</td><td><table>
<tr><th colspan="3">Emakumeen eta gizonen arteko aldeak, edari alkoholdunen kontsumoari dagokionez (2002)</th></tr>
<tr><td>Kontsumoaren maiztasuna</td><td>Gizonak</td><td>Emakumeak</td></tr>
<tr><td>Ez du inoiz edaten</td><td>16,0</td><td>28,7</td></tr>
<tr><td>Noizbehinka edaten du</td><td>42,7</td><td>50,7</td></tr>
<tr><td>Sarritan edaten du</td><td>41,3</td><td>20,6</td></tr>
</table></td><td></td></tr>
<tr><td>▪ Emakumeen eta gizonen arteko aldeak, tabakoaren kontsumoari dagokionez.</td><td>Droga-mendekotasunaren Behatokia</td><td><table>
<tr><th colspan="3">Emakumeen eta gizonen arteko aldeak, tabakoaren kontsumoari dagokionez (2002)</th></tr>
<tr><td>Kontsumoa</td><td>Gizonak</td><td>Emakumeak</td></tr>
<tr><td>Erretzailea</td><td>37,1</td><td>28,3</td></tr>
<tr><td>Erretzaile izandakoa</td><td>18,2</td><td>10,9</td></tr>
<tr><td>Ez du erretzen</td><td>44,7</td><td>60,8</td></tr>
</table></td><td></td></tr>
<tr><td>▪ Emakumeen eta gizonen arteko aldeak, botiken kontsumoari dagokionez.</td><td>Droga-mendekotasunaren Behatokia</td><td><table>
<tr><th colspan="3">Emakumeen eta gizonen arteko aldeak, botiken kontsumoari dagokionez (2002)</th></tr>
<tr><td>Botika mota</td><td>Gizonak</td><td>Emakumeak</td></tr>
<tr><td>Analgesikoak</td><td>7,2</td><td>15,0</td></tr>
<tr><td>Lasaigarriak</td><td>3,6</td><td>8,7</td></tr>
<tr><td>Depresioaren kontrakoak</td><td>1,8</td><td>3,7</td></tr>
</table></td><td></td></tr>
<tr><td>▪ Drogazaletasun arazoak dituzten emakume eta gizonei arreta emateko eta haiek gizarteratzeko foru programak.</td><td>AFA</td><td>▪ Drogazale izandakoak gizarteratzeko programa (Arabako Foru Aldundiaren, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta JEIKI Fundazioaren arteko lankidetza-hitzarmena).<br>▪ Nerabeei, gurasoei eta gizarte-bitartekariei arreta eta laguntza emateko HAZGARRI programak (Arabako Foru Aldundiaren eta JEIKI Fundazioaren arteko lankidetza-hitzarmena).<br>▪ Nerabe eta gazteei laguntza emateko programa (57 mutil eta 21 neska).<br>▪ Nerabeen gurasoei laguntza emateko programa (70 gizon eta 98 emakume).<br>▪ Drogazaletasunaren prebentzioan diharduten gizarte-bitartekariei laguntza emateko programa (780 gizon eta 865 emakume).<br>▪ Ijito drogazaleak birgaitu eta gizarteratzeko programak (lankidetza-hitzarmena Gao-Lacho-Drom elkartearekin eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin).</td><td>▪ Botikak izan ezik, gizonek gehiago kontsumitzen dituzte drogak emakumeek baino. Hala ere, komeni da generoari lotutako alderdiak kontuan hartzea prebentzio, arreta eta birgaikuntza programak diseinatzeko orduan.</td></tr>
</table>

# 5. ARLOA.- BIZI-KALITATEA, ONGIZATEA ETA OSASUNA SUSTATZEA

## HELBURUAK – NEURRIAK – JARDUKETAK – JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

| HELBURUAK | NEURRIAK | JARDUKETAK | JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA |
|---|---|---|---|
| **1. HELBURUA**<br>**Ahultasun bereziko egoeran aurkitzen diren emakumeei gizarteratzen laguntzea.** | **1.6. neurria**<br>Gizarte baliabideak adikzio arazoak dituzten emakume eta gizonen beharrizan bereziei egokitzea. | **1.6.1. jarduketa**<br>Adikzioak dituzten pertsonen portaeran eta horren ondorio pertsonal eta sozialetan generoaren arabera ageri diren aldeak aztertzea. Faktore biologiko, psikologiko eta sozialek emakumeengan eta gizonengan dituzten eragin desberdinak ikertu behar dira, adikzio arazoei eta horien ondorioei dagokienez. | ▪ Generoak adikzioa duten pertsonen portaeran eta horren ondorioetan duen eraginari buruz egindako azterketak. |
| | | **1.6.2. jarduketa**<br>Erakunde eskudunekin lankidetzan jardutea droga-kontsumoaren prebentzioan eta tratamenduan, genero-ikuspegia sartzeko programen diseinuan eta aplikazioan. | ▪ Burututako lankidetza-ekintzen kopurua eta mota. |
| | | **1.6.3. jarduketa**<br>Laguntza osoa emateko programak egitea, senideentzako laguntza barne dela. Programa horietan aintzat hartu behar dira adikzio arazoak dituzten emakume eta gizonen baldintza, egoera eta beharrizan desberdinak, errazago gizarteratu eta laneratu daitezen. | ▪ Adikzio arazoak dituzten pertsonei laguntza osoa emateko programen kopurua eta edukia.<br>▪ Programa horiek erabiltzen dituzten pertsonen kopurua, sexuka. |
| | | **1.6.4. jarduketa**<br>Erakunde eskudunekin lankidetzan aritzea tabakismoari eta alkoholismoari aurrea hartzeko jarduerak garatzen gazteen artean, genero-ikuspegia sartuz programa horien diseinuan eta aplikazioan. | ▪ Burututako lankidetza-ekintzen kopurua eta mota. |
